eman ta zabal zazu

Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea
Fisiologia Saila

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Luzera desberdineko ariketa fisikoko esku-hartzeen eragina ospitalizazio bat pairatu duten adinekoen funtzio fisiko, egoera nutrizional, bizi-kalitate, hauskortasun eta sarkopenian

Effect of different-lengths physical exercise interventions on physical function, nutritional status, quality of life, frailty, and sarcopenia in post-hospitalized older adults

2021

Doktorego Tesia **Iñaki Echeverria Garay**

Zuzendariak **Jon Irazusta Astiazaran** **Isabelle Bourdel-Marchasson**

Luzera desberdineko ariketa fisikoko esku-hartzeen eragina ospitalizazio bat pairatu duten adinekoen funtzio fisiko, egoera nutrizional, bizi-kalitate, hauskortasun eta sarkopenian.

Effect of different-lengths physical exercise interventions on physical function, nutritional status, quality of life, frailty, and sarcopenia in post-hospitalized older adults.

Doktorego Tesia

Iñaki Echeverria Garay

Zuzendariak

Jon Irazusta Astiazaran

Isabelle Bourdel-Marchasson

2021

ESKER ONAK

ACKNOWLEDGEMENTS

ESKER ONAK / ACKNOWLEDGEMENTS

Uzten badidazue lehenik nire tesiaren egona azaltzen duen etxeko pasarte bat idatziko dut: *Aitak Semeari:* Noiz bukatukozu ikasten?

Semeak Aitari: Espeo inoiz ez. Ikastea beti ongi dator eta.

Amaren ahotsa entzuten da: Bueno, bakizu ze esan nahi duen. Erantzuiozu ongi.

Semeak: Zuek lasai nik baino gogo gehio ez ditula inork. Bukatzean abisatuko dizuet, eon lasai.

Hitz gutxiko pertsona izan arren atal honetan eskerrak ematea gustatuko litzaidake. Proiektu luze, gogor baina aberasgarri honetan, zorionez, pertsona berri asko ezagutzeko parada izateaz gain, aurrez ezagun nituen beste batzuk ondoan izatearen pribilegioa sakontzeko balio izan dit.

Esker mila Euskal Herriko eta Bordeleko Unibertsitateei emandako laguntza ekonomikoagatik eta, honekin batera, EHU-ko Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko Fisiologia Sailari, UB-ko Science de la vie et de la santé doktorego eskolari eta Arabako Santiago Ospitale Unibertsitateari tesia egiteko baimena emateagatik.

Mila esker zuri Jon Irazusta, Tesiko zuzendari eta bidelagun izateagatik. Momentu txar eta onak bizi izan ditugu elkarrekin, baina benetan asko eskertzen dizut gauza guztietarako erantzun bat izateko egin duzun esfortzuagatik. Bide honetan ikasi dudana nagusiki zuri zor dizut. Berriz ere eskerrik asko Jon!

Bien sûr, merci aussi à toi, Isabelle Bourdel-Marchasson, pour toute ton aide pendant la thèse et pour le soutien et les facilités fournies pendant mon séjour à Bordeaux. Ce fut une grande expérience de travailler avec toi et d'apprendre de toi. Esker mila Ixabel!

Neurketa eta esku-hartzeetan lagundutako guztiei ere eskerrik asko, zuen laguntza ezinbestekoa izan baita proiektu hau aurrera eramateko. Mila esker Maria Amasene, Miriam Urquiza, Ane Errasti, Garbiñe Lozano, Julen Gomez, Cristina Alonso, Nekane Nograro, Guillermo Cano, Cristina Bernad eta ospitalean erreferente nuen Ariadna Besga.

Mila esker ere Ageing On Ikerketa Taldeari, proiektuan emandako laguntza guztiagatik eta lehenengo egunetik harrera bikaina egiteagatik! Eskerrik asko Ana Rodriguez, Begoña Sanz, Susana Gil, Javi Gil, Jon Torres, Fatima Ruiz, Maider Kortaxarena, Idoia Zarrazkin, Izaro Esain, Iraia Bidaurrazaga, Iratxe Duñabeitia, Gotzone Hervás eta abar luze bat. Asko gara eta!

Merci également au Centre de Résonance Magnétique des Systèmes Biologiques (RMSB, rattaché au CNRS et à l'Université de Bordeaux), à son directeur et, bien sûr, à mes collègues pour toutes les facilités mises à ma disposition. J'ai pu me familiariser et travailler dans un nouveau domaine de recherche.

Ezin zaituztet aipatu gabe utzi Chloe eta Haritz, tesiko bide luze honetan zein nire ikerlari bide labur honen hasieran beti hor egon zaretelako. Plazer hutsa izan da bai aurretiaz beste proiektuetan zuek biokin lan egitea eta baita ere, egun, nire tesiko oztopoetan zuen laguntza izatea! Animo zeuen bideetan eta esker beroenak!

Esker mila ere kuadrilakoei, egon ezin eta tentsioak ahazteko ezinbestekoak izan zarete emandako poztasun une eta eta animo guztiekin. Eskerrik asko Arregi, Balen, Goiko, Itur, Mc, Murzk, Peruya, Ruba eta Sora!

Nola ez, nire miresmen eta esker ona zuei, Ama (Maria) eta Aita (Inaxio). Ez bakarrik beti hor egoteagatik, baizik eta horrelako erronka baten aurrean zuen babesik gabe ez nukeelako lortuko, baita ere, horrelako erronka bati aurre egiteko tresnak eta indarrak eskeini dizkidazuelako.

Bukatzeko, zu zatoz, Mof, alegia, zeu Ana. Nire bidea gertutik eta barnetik bizi izan duzu eta horregatik ez daukat hitzik niregatik egin duzun guztia eskertzeko. Zu izan zara momentu txarrenetan amore ez ematearen arduradun nagusia eta horrexegatik, benetan, asko eskertzen dizut izan duzun pazientzia eta ni ulertzeko gaitasuna. A ze merezitako lasaitua hartuko duzun proiektu honi amaiera ematen diodanean, baina hoberena ez da hori, baizik eta badakidala etorkizunean etortzen diren beste hainbat proiektuetan ere, zeu, bertan egongo zarela eta horrek asko lasaitzen nau.

Emandako laguntza, indar eta oreka guztiagatik, bihotz-bihotzez, mila esker guztioi!

Ama, Aita eta Mofi zuengatik

AURKIBIDEA

INDEX

AURKIBIDEA / INDEX

LABURPENA

ABSTRACT

RÉSUMÉ

LABURPENA / ABSTRACT / RÉSUMÉ

LABURPENA

Aurrekari nagusiak eta helburuak

Zahartzen joan hala benetako erronka autonomia mantentzea da eta hori da, hain zuzen ere, zahartze aktiboaren helburu nagusietariko bat. Epe ertaineko proiekzioek agerian uzten dute gizartearen desgaitasun eta mendekotasun tasen gorakada, eta horrekin batera iraupen luzeko zainketa beharrak ere. Ospitaleraturiko zein ospitalizazio bat pairatu berri duten helduek populazio zaurgarri konplexu eta heterogeneoa osatzen dute; komunitatean bizi diren adineko pertsonekin alderatuta urritasun fisiko, nutrizional eta kognitibo eta hauskortasun, bizi-kalitate galera eta sarkopenia intzidentzia handiagoak dituztenak. Zentzu honetan, azken urteetan adineko pertsonen funtzionaltasun galerari aurre egiteko esku-hartzeen inguruko azterlanen kopurua esponentzialki handitu da eta ebidentzia-maila altuena erakutsi duten esku-hartzeen artean ariketa fisikoan oinarritutakoak ditugu. Hala ere, gaiari buruzko inguruko ikerketa gehienak komunitatean bizi diren pertsonengan gauzatu dira, eta orain arte ez da ondorioztatu hirugarren adineko pertsonentzako egoera akutu baten ondoren errekuperatu ahal izateko zein ariketa fisiko mota den egokiena. Hortaz, ikerketa proiektu honen helburu nagusia, ospitaleratu ondoren helduengan iraupen desberdineko taldeetan oinarrituta, osagai anitzeko bi esku-hartzeren eraginkortasuna aztertzea izan da.

Material eta metodoak

Parte-hartzaileak Arabako Unibertsitate Ospitaleko (HUA) Barne Medikuntza eta Neurologia zerbitzuetan errekrutatu ziren. Parte-hartzaile hautagarriek hurrengo irizpideak betetzen zituzten: ≥ 70 urte, ≥ 20 puntu Mini Mental State Examination eskalan, eta gutxienez (laguntza-gailuekin edo gabe) 4 metro modu independentean ibiltzeko gai ziren. Parte-hartzaile guztiek baimen informatua sinatu zuten eta ausaz epe motzeko adar (EMA) edo epe luzeko adar batera (ELA) esleitu zitzaien. Bioaraba Osasun Ikerketa Institutuko Entsegu Kliniko eta Etika Batzordeak (CEIC-HUA Code Expte. 2017-021) eta Euskal Herriko Unibertsitateko Agente Biologikoen eta genetikoki eraldatutako organismoen Ikerketetarako Etika Batzordeak ere (ABIEB M30/2018/201) ikerlana onartu zuten. Ikerketa proiektuaren protokoloa berriz Australian and New Zealand Clinical Trials Registry-n (ANZCTR) erregistratu zen honako kodea eskuratuz: ACTRN12619000093189.

Emaitzak

Doktorego tesi honen emaitzen atala, ikerketa-proiektutik eratorritako lau artikulutan aurkeztuko da. Lehen biak eta azken artikulua argitaratuak daude, eta hirugarrena berriz

berrikuspen prozesuan dago.

*1. artikulua:*Lehenengo artikulu horretan, ospitaleratu ondoko adineko pazienteek ariketa fisikoa baztertzea laguntzen duten faktoreak identifikatzea proposatu genuen. Aztertutako pazienteen artean, gehienek (% 88,8k) ez zuten parte hartu ariketa fisikoaren programan. Aldagai anitzeko erregresioak agerian utzi zuen adin handia, nutrizio-egoera txarra eta etxerako irisgarritasun txikiagoa zirela parte-hartzea baztertzeko faktore prediktiboak. Gainera, parte hartzeari uko egin zioten pazienteek Short Physical Performance Battery eskalan eta haien oreka, hanken indar eta ibilera abiadura probetan errendimendu eskasagoa zuten. Taldeen artean beste aldagai batzuetan ez da desberdintasunik aurkitu.

2. artikulua: Bigarren artikuluan, ospitaleratu ondoren helduen funtzio eta jarduera fisiko, bizi-kalitate, antropometria eta nutrizio-egoerari dagokienez taldean eta etxean egindako epeen iraupen desberdinekin egindako osagai anitzeko ariketa fisikoko bi esku-hartzeren onurak alderatu ziren. Funtzio fisikoa, jarduera fisikoa, bizi-kalitatea, antropometria eta nutrizio-egoera hasieran, 12 asteren ondoren eta 24 asteren ondoren ebaluatu ziren. Ospitale-altari aplikatutako osagai anitzeko ariketa fisikoko bi esku-hartzeek 12 asteren ondoren funtzio fisiko eta nutrizio-egoeran onura nabarmenak ekarri, eta jarduera fisikoa handitu zuten, eta hurrengo 12 asteetan ondorio positiboei eutsi zieten. Aztertutako aldagaietan ez zen talde-denbora elkarrekintzarik hauteman.

3. artikulua: Hirugarren artikuluan, hauskortasun eta sarkopenian osagai anitzeko ariketa fisikoko eta gainbegiratutako talde-saioko epe iraupen desberdineko bi esku-hartzeren ondorioak aztertu eta alderatu ziren. Hauskortasun-egoera eta sarkopenia hasieran eta 3 hilabetera, Fried-en indizearekin eta EWGSOP-en berrikusitako gorte-puntuekin ebaluatu ziren. Taldeen barruko aldaketei dagokienez, 3 hilabeteko esku-hartzearen ondoren, bi taldeek Fried-en indizea murriztu zuten. Sarkopenia egiaztatua zuten pazienteen ehunekoak bi taldeetan ere hobera egin zuen, baina ez zen eragin esanguratsurik izan. Ez zen talde-denbora interakziorik hauteman.

4. artikulua: Laugarren eta azken artikuluan, ospitaleratu ondoko adineko pertsonetan miostatinaren eta follistatinaren eta hauskortasuna eta/edo sarkopenia arteko lotura alderatzea proposatu genuen. Gainera, bi miokinek hauskortasuna eta sarkopenia identifikatzeko duten gaitasuna proba fisikoek dutenekin alderatu zen. Hauskortasuna edo sarkopenia duten pertsonetan miostatina-kontzentrazioa txikiagoa izan zen, eta follistatinina-kontzentrazioa berriz, handiagoa. Hartzailearen ezaugarri operatiboen kurbek (ROC) erakutsi zuten ibilera abiadura eta altxa, ibili, bira eta eseri (8TUG) probak

hauskortasuna identifikatzeko gaitasun handiagoa zutela. Miostatina izan zen sarkopenia identifikatzeko gai zen aldagai bakarra.

Ondorioak

Ikerketa honek ospitalizazioaren ondoko ariketa fisikoko programa batean pertsona helduek parte-hartze txikia dutela berretsi egin du. Izandako emaitzen bidez, ospitaleratu ondoren helduen irisgarritasuna hobetzeko eta ariketa fisikoko programetan parte-hartzea areagotzeko estrategien berri eman da. Bereziki parte hartzeko joera txikiena duten biztanlerian ariketa fisikoko programetan parte hartzeko ahalegin handiak egin behar dira.

Osagai anitzeko bi esku-hartzeek funtzio fisikoa eta nutrizio-egoera hobetu zituztela kontuan hartuta, zehaztu zen hogeita lau astera arte etxean jarraitzen dutenean sei asteko talde saio ariketako esku-hartzea baten onura funtzional eta nutrizionalak, hamabi asteko talde saio baten antzekoak sortzen zirela. Emaitza horiek informazio baliotsua ematen dute adinekoek ospitaleratu ondoren egin beharreko ariketa fisiko interbentzio praktiko, egingarri eta errentagarriak diseinatzeko.

Bestalde, hauskortasunean nahiz eta osagai anitzeko bi esku-hartzeek antzeko edo ia onurak berdinak eragin, sarkopeniarekin ez zen gauza bera gertatu. Hori dela eta, zehaztu zen osagai anitzeko ariketa fisikoko 6 asteko talde saioak nahikoak direla hauskortasuna aldatzeko. Sarkopeniaren tratamenduaren eta prebentzioaren eragina argitzeko berriz lagin handiagoko azterketa gehiago justifikatzen dira.

Miostatina ospitaleratu ondoko adineko helduentan sarkopenia identifikatzeko biomarkatzaile erabilgarria izan daiteke. Haatik, folistatina eta miostatinak hauskortasuna identifikatzeko gaitasun txikiagoa dute proba fisikoek baino. Lagin handiagoak eta miokina horiek beste biomarkatzaile batzuekin batera erabiliz azterketa gehiago egitea justifikatzen da.

Aurretik adierazitakoaren argitan, ospitaleratu ondoren helduen ariketa fisikoko programetara irisgarritasuna hobetzeko eta parte hartzea handitzeko estrategiak erakutsi ditugu. Era berean, izandako emaitzak eta esku-hartzeei lotutako ondorio negatiborik egon ez dela, tolerantzia ona egon dela eta bertaratze tasa handiak egon direla kontuan hartuta, berretsi behar da informazio baliotsua eman dela pertsona helduetan ospitaleratu ondoren egin beharreko ariketa fisikoko interbentzio praktiko, egingarri eta errentagarriak diseinatzeko.

ABSTRACT

Background and objectives

One of the challenges of aging is to maintain independence as we age, and this is, in particular, one of the main objectives of active aging. Medium-term projections show an increase in disability and dependency rates in society and, therefore, in long-term care needs. Older adults who are hospitalized or have undergone recent hospitalization represent a complex and heterogeneous vulnerable population, with physical, nutritional and cognitive impairments, along with a higher incidence of frailty, loss of quality of life and sarcopenia than those without an hospitalization history. In this regard, in recent years there has been an exponential increase in the number of studies on interventions to address the loss of functionality in the elderly. Among the interventions that have shown the highest level of evidence are those involving physical exercise. However, most of the research on the subject has been conducted on people living in the community and so far, no conclusion has been reached as to which type and duration of physical exercise is the most suitable for recovery after an acute situation. Therefore, the main objective of this research project was to analyze the efficacy of two multicomponent exercise interventions based on groups of different duration in older adults after hospitalization.

Materials and methods

Participants were recruited from the Internal Medicine and Neurology services of the University Hospital of Araba (HUA). Eligible participants were aged ≥70 years, scored ≥20 on the Mini Mental State Examination, and were able to walk (with or without assistive devices) independently for at least 4 m. All participants provided informed consent and were randomly assigned to either a short-term group-based branch (SGB) or a long-term group-based branch (LGB). The study was approved by the Committee on Ethics in Research at the University Hospital of Araba (CEIC-HUA Code Expte. 2017-021). The Biological Agents Committee of the University of the Basque Country (CEIAB M30/2018/201) also approved the study. The protocol was registered under the Australian and New Zealand Clinical Trials Registry (ANZCTR) with the identifier ACTRN12619000093189.

Results

The results section in this doctoral thesis will be presented in the form of four articles derived from the research project. The first two and the last article have already been published, while the third is under review.

Article 1: In this first article, we aimed to identify factors that contribute to exercise intervention refusal among post-hospitalized older patients. Among the analyzed

patients, the vast majority (88.8%) declined participation in the physical exercise program. Multivariate regression revealed that older age, poor nutritional status, and reduced home accessibility were predictors of participation refusal. Moreover, patients who declined participation had worse performance on the Short Physical Performance Battery and on their tests of balance, leg strength, and walking speed. No differences were found between groups in other variables.

Article 2: In the second article we compared the benefits of two multicomponent physical exercise interventions with different group- and home-based period lengths on physical function, physical activity, quality of life, anthropometry, and nutritional status among older adults after hospitalization. Physical function, physical activity, quality of life, anthropometrics, and nutritional status were assessed at baseline, after 12 weeks, and after 24 weeks of intervention. Both multicomponent physical exercise interventions implemented at hospital discharge provided significant benefits in physical function and nutritional status and increased physical activity after 12 weeks of intervention and maintained the positive effects during the following 12 weeks. No group-by-time interaction was observed in any of the studied variables.

Article 3: In the third article, we analyzed and compared the effects of two multicomponent physical exercise interventions with different supervised group-based period lengths on frailty and sarcopenia. Frailty status and sarcopenia were assessed at baseline and at 3 months with Fried´s Index and revised EWGSOP cut-off points. Regarding changes within groups, both groups reduced Fried's Index after 3-month intervention. Percentage of patients with confirmed sarcopenia tended to improve in both interventions, but we were not able to observe change in sarcopenia. No group-by-time interaction was observed.

Article 4: In the fourth and the last article we aimed to compare the association between myostatin and follistatin and frailty and/or sarcopenia in post-hospitalised older people. In addition, the capability of both myokines for identifying frailty and sarcopenia was compared with physical tests. Myostatin concentration was lower and follistatin concentration higher in people with frailty or sarcopenia. Receiver operating characteristic curves indicated that gait speed and 8-Foot Timed Up and Go Test had the greatest capability for identifying frailty. Myostatin was the only biomarker capable of identifying sarcopenia.

Conclusions

This study confirms low participation of older adults in a post-hospitalization physical exercise program. These findings inform strategies to improve accessibility and increase older adult participation in physical exercise programs following hospitalization. Efforts

are needed to increase participation in physical exercise programs, specifically in populations that are less prone to participate.

Considering that both the multicomponent interventions improved physical function and nutritional status, we determined that six weeks of a group-based exercise intervention caused similar functional and nutritional benefits to a longer group-based intervention of twelve weeks when both are continued at home until twenty-four weeks. These results provide valuable information for the design of practical, feasible, and cost-effective physical exercise interventions following hospitalization in older adults.

On the other hand, although both multicomponent interventions caused similar or nearly equal benefits in frailty, the same was not true for sarcopenia. Therefore, we determined that a 6-week multicomponent group-based exercise intervention is sufficient to reverse frailty. Further studies with larger samples are warranted to clarify the effect of treatment and prevention of sarcopenia.

Myostatin may be a useful biomarker for sarcopenia in post-hospitalised older adults. Nevertheless, myostatin and follistatin have a lower capability for identifying frailty than physical tests. Further studies using larger samples and these myokines together with other biomarkers are warranted.

In light of the above, we have shown strategies to improve accessibility and increase older adult participation in physical exercise programs following hospitalization. Likewise, taking into account these results along with the absence of negative effects associated with the interventions, the good tolerance and overall high attendance rates observed, these results provide valuable information for the design of practical, feasible, and cost-efective physical exercise interventions following hospitalization in older adults.

RÉSUMÉ

Contexte et objectifs

L'un des défis du vieillissement est de maintenir l'indépendance au fur et à mesure que l'on vieillit, et c'est notamment l'un des principaux objectifs du vieillissement actif. Les projections à moyen terme montrent une augmentation des taux d'invalidité et de dépendance dans la société et, par conséquent, des besoins en soins de longue durée. Les personnes âgées hospitalisées ou ayant subi une hospitalisation récente représentent une population vulnérable complexe et hétérogène, présentant des déficiences physiques, nutritionnelles et cognitives, ainsi qu'une incidence plus élevée de fragilité, de perte de qualité de vie et de sarcopénie que les personnes vivant dans la communauté. À cet égard, ces dernières années, on a assisté à une augmentation exponentielle du nombre d'études sur les interventions visant à remédier à la perte de fonctionnalité des personnes âgées. Parmi les interventions qui ont montré le plus haut niveau de preuve, on trouve celles impliquant l'exercice physique. Cependant, la plupart des recherches sur le sujet ont été menées sur des personnes vivant dans la communauté (n'ayant pas récemment été hospitalisé ou n'ayant pas subit un problème de santé aigu récent) et, jusqu'à présent, aucune conclusion n'a été tirée quant au programme d'exercice physique le plus adapté à la récupération après une situation aiguë. Par conséquent, l'objectif principal de ce projet de recherche était d'analyser l'efficacité de deux interventions en exercice physique à composantes multiples basées sur des groupes de durée différente chez des personnes âgées après une hospitalisation.

Matériel et méthodes

Les participants ont été recrutés dans les services de médecine interne et de neurologie de l'hôpital universitaire d'Araba (HUA). Les participants éligibles étaient âgés de ≥70 ans, avaient un score ≥20 au Mini Mental State Examination, et étaient capables de marcher (avec ou sans dispositifs d'assistance) de manière indépendante sur au moins 4 m. Tous les participants ont signé un consentement éclairé de participation à l'étude et ont été assignés de manière aléatoire à un bras proposant une intervention en groupe sur une courte période (GCP) ou à à un bras proposant une intervention en groupe sur une longue période (GLP). L'étude a été approuvée par le Comité d'éthique de la recherche de l'hôpital universitaire d'Araba (CEIC-HUA Code Expte. 2017-021). Le Comité Biologie de l'Université du Pays basque (CEIAB M30/2018/201) a également approuvé l'étude. Le protocole a été enregistré dans le registre des essais cliniques australiens et néo-zélandais (ANZCTR) avec l'identifiant ACTRN12619000093189.

Résultats

Le chapitre des résultats de cette thèse de doctorat sera présenté sous la forme de quatre articles dérivés du projet de recherche. Les deux premiers et le dernier article ont déjà été publiés, tandis que le troisième est en cours de révision.

Article 1 : Dans ce premier article, nous avons cherché à identifier les facteurs qui contribuent au refus d'exercice chez les patients âgés après une hospitalisation. Parmi les patients analysés, la grande majorité (88,8%) a refusé de participer au programme d'exercice physique. La régression multivariée a révélé que l'âge avancé, le mauvais état nutritionnel et l'accessibilité réduite du domicile étaient des facteurs prédictifs du refus de participer. En outre, les patients qui ont refusé de participer avaient de moins bons résultats à la Short Physical Performance Battery et aux tests d'équilibre, de force des jambes et de vitesse de marche. Aucune différence n'a été constatée entre les groupes pour les autres variables.

Article 2 : Dans le deuxième article, nous avons comparé les bénéfices de deux interventions d'exercice physique à composantes multiples avec des périodes différentes en groupe et à domicile sur la fonction physique, l'activité physique, la qualité de vie, l'anthropométrie et le statut nutritionnel chez les personnes âgées après une hospitalisation. La fonction physique, l'activité physique, la qualité de vie, l'anthropométrie et l'état nutritionnel ont été évalués au départ, après 12 semaines et après 24 semaines d'intervention. Les deux interventions d'exercice physique à multicomposantes mises en œuvre à la sortie de l'hôpital ont apporté des bénéfices significatifs en termes de fonction physique et d'état nutritionnel et ont augmenté l'activité physique après 12 semaines d'intervention et ont maintenu les effets positifs pendant les 12 semaines suivantes. Aucune interaction groupe-temps n'a été observée dans aucune des variables étudiées.

Article 3 : Dans le troisième article, nous avons analysé et comparé les effets sur la fragilité et la sarcopénie de deux interventions d'exercice physique multicomposantes avec différentes durées de périodes supervisées en groupe. Le statut de fragilité et la sarcopénie ont été évalués au départ et à 3 mois avec l'indice de Fried et les points de coupure révisés de l'EWGSOP. Les deux groupes ont réduit l'indice de Fried après 3 mois d'intervention. Le pourcentage de patients présentant une sarcopénie confirmée a eu tendance à s'améliorer dans les deux groupes, mais il n'y a pas eu d'effet visible significatif sur la sarcopénie. Aucune interaction groupe-temps n'a été observée.

Article 4 : Dans le quatrième et dernier article, nous avons cherché à comparer l'association entre la myostatine et la follistatine et la fragilité et/ou la sarcopénie chez les personnes âgées post-hospitalisées. De plus, la capacité des deux myokines à

identifier la fragilité et la sarcopénie a été comparée à des tests physiques. La concentration de myostatine était plus faible et celle de la follistatine plus élevée chez les personnes fragiles ou sarcopéniques. Les courbes de caractéristiques d'exploitation du récepteur ont indiqué que la vitesse de la marche et le test du lever et du coucher chronométré à 8 pieds étaient les plus aptes à identifier la fragilité. La myostatine était la seule variable capable d'identifier la sarcopénie.

Conclusions

Cette étude confirme la faible participation des adultes âgés à un programme d'exercice physique après une hospitalisation. Ces résultats éclairent les stratégies visant à améliorer l'accessibilité et à accroître la participation des personnes âgées aux programmes d'exercice physique après une hospitalisation. Des efforts sont nécessaires pour augmenter la participation aux programmes d'exercice physique, en particulier dans les populations qui sont moins enclines à participer.

Considérant que les deux interventions en exercice physique à composantes multiples ont amélioré la fonction physique et l'état nutritionnel, nous avons déterminé que six semaines d'une intervention d'exercice en groupe entraînaient des avantages fonctionnels et nutritionnels similaires à une intervention en groupe plus longue de douze semaines, lorsque les deux sont poursuivies à domicile jusqu'à vingt-quatre semaines. Ces résultats fournissent des informations précieuses pour la conception d'interventions d'exercice physique pratiques, réalisables et de bonne efficacité médico-économique après une hospitalisation chez les personnes âgées.

D'autre part, bien que les deux interventions aient entraîné des bénéfices similaires ou presque égaux en matière de fragilité, il n'en a pas été de même pour la sarcopénie. Par conséquent, nous avons déterminé qu'une intervention d'exercices à multicomposantes en groupe de 6 semaines est suffisante pour inverser la fragilité. D'autres études avec des échantillons plus importants sont justifiées pour clarifier l'effet de ces différentes durées d’intervention sur le traitement et la prévention de la sarcopénie.

La myostatine peut être un biomarqueur utile pour identifier et suivre la sarcopénie chez les personnes âgées au décours d’une hospitalisation. Néanmoins, la myostatine et la follistatine sont moins performantes dans l’identification de la fragilité que les tests physiques. D'autres études utilisant des échantillons de plus grande taille et ces myokines ainsi que d'autres biomarqueurs sont justifiées.

À la lumière de ce qui précède, nous avons montré des stratégies pour améliorer l'accessibilité et augmenter la participation des personnes âgées aux programmes

d'exercices physiques après une hospitalisation. De même, si l'on tient compte de ces résultats, de l'absence d'effets négatifs associés aux interventions, de la bonne tolérance et des taux d'observance globalement élevés observés, ces résultats fournissent des informations précieuses pour la conception d'interventions d'exercice physique pratiques, réalisables et performantes sur le plan médico-économique après une hospitalisation chez les personnes âgées.

LABURDURAK

ABBREVIATIONS

LABURDURAK / ABBREVIATIONS

ACT: Arm-Curl Test
ACSM: American College of Sports Medicine
AHA: American Heart Association
ANOVA: analysis of variance
ANZCTR: Australian and New Zealand Clinical Trials Registry
ASM: Appendicular Skeletal Muscle mass
AUC: Area Under the Curve/ Kurba azpiko area
BMC: Bone Mineral Content
BMD: Bone Mineral Density
BMI: Body Mass Index
CI: Confidence Interval
CC: Calf Circumference
CCI: Charlson Comorbidity Index
CST: 30-s Chair-Stand Test / Chair Stand Test
DXA: Dual-Energy X-ray Absorptiometry
EBA: Eskala Bisual Analogikoa
ELA: Epe Luzeko Adarra
ELISA: Enzyme Linked Immunosorbent Assay
EMA: Epe Motzeko Adarra
EQ-5D-5L: EuroQol–5 Dimension
EWGSOP2: European Working Group on Sarcopenia in Older People
GMI: Gorputz-Masaren Indizea
GS: Gait Speed
HUA: University Hospital of Araba / Arabako Unibertsitate Ospitalea
INE: instituto nacional de estadística
ISAK: International Society for the Advancement of Kinanthropometry
IQR: interquartile range
LGB: Long-term Group-based Branch
LPA: Light Physical Activity
η^2: Eta squared
MMSE: Mini Mental State Examination
MNA: Mini Nutritional Assessment
MNA-SF: Mini Nutritional Assessment Short Form
MoCA: Montreal Cognitive Assessment
MRI: Magnetic Resonance Imaging
MVPA: Moderate to Vigorous Physical Activity
PE: Physical Exercise
PTS: points
QoL: Quality of Life
RCT: Randomized Controlled Trial
ROC: Receiver Operating Characteristic/ hartzailearen ezaugarri operatiboa
SD: Standard Deviation

SE: Standard Error
SEN: sensitivity
SFT: Senior Fitness Test
SGB: Short-term Group-based Branch
SPE: specificity
SPMSQ: Short Portable Mental Status Questionnaire
SPPB: Short Physical Performance Battery
STROBE: Strengthening the Reporting of Observational Studies in Epidemiology
U: Mann Whitney's U
UB: Université de Bordeaux / Bordeleko Unibertsitatea
UPV/EHU: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
χ^2: chi-square test
WHO: World Health Organization
WHR: Waist-to-Hip Ratio
1-RM: one-repetition maximum
5-SQUAT: sit-to-stand five times
6mWT: 6-minute Walking Test
8-ft TUGT: 8-ft Timed Up-and-Go Test
8TUG: 8-Foot Timed Up and Go Test / altxa, ibili, bira eta eseri

1.

AURREKARI NAGUSIAK

BACKGROUND

1. AURREKARI NAGUSIAK / BACKGROUND

1.1. Biztanleriaren zahartzea eta gizartean duen eragina

Bizi-itxaropena mundu maila igotzeak, mundu osoan biztanleriaren zahartzea dakar beraz fenomeno honek hirugarren adineko pertsonak geroz eta gehiago izatea sortaraziko du (Scully, 2012). Esaten da 2050. urterako, bizi-itxaropenaren handitzea eta jaiotza-tasaren txikitzea dela medio, 60 urtetik gorako biztanleria gaur egungoaren bikoitza izatera pasako dela, hots, mundu mailako biztanleria osoaren % 11tik % 22-ra pasaz (WHO, 2007).

Europar Batasuneko beste herrialdeekin konparatuz gero, Euskadin bizi-itxaropena oso altua da; emakumeetan Europar Batasuneko altuena (86,2 urte) eta gizonetan (80,3 urte) Italiarekin berdinduta bigarren altuena (Eustat, 2018). Euskadiko gizon zein emakumeek bizi-itxaropenaren etengabeko hazkundea izan dute, aurten emandako datuak kontuan hartuz gero emakume (% 0,02) zein gizonek (% 0,03) goranzkoa izan dute. Fenomeno demografikoak aztertzeko egindako adierazleen emaitzeei eta behean ikusgai dagoen irudiari erreparatuz gero, gaur egun, Euskadin jaiotzen den emakumeen bizi-itxaropena 86,4 urtekoa da eta gizonezkoen kasuan 80,6 urtekoa (Eustat, 2020).



1. Irudia: Bizi-itxaropena Euskadin. **Iturria**: Eustat, 2020.

Bestalde jaiotza-tasari dagokionez ez dira datu hain pozgarriak, Euskadik Europar Batasuneko jaiotze-tasa baxuenetarikoa baitu. Euskadin 2017an, 1.000 biztanleko 7,8 jaiotza erregistratu ziren, eta hori Europar Batasuneko herrialdeetan egon zen batez bestekoaren (9,9) oso azpitik dago, soilik Italiaren (7,6) aurretik kokatuta. (Eustat, 2019). Hau dena ikusirik, adinaren piramidea guztiz aldatuko dela aurreikusi da. Izan ere, 65 urtetik gorakoak 2000. urtean Euskadiko biztanleria osoaren % 17,2 ziren, egun, 2020an, % 22,8 dira eta 2031ean % 28,2 izango direla iragartzen da. Sexuen arteko banaketa orekatzen joango da, nahiz eta oraindik hirugarren adineko pertsonetan gehiengoak

emakumeak izaten jarraitu; 2020an 65 urtetik gorako biztanlerian % 57,4 emakumeak izatetik, 2031an % 56,4 izatera pasako dira (Eustat, 2018b). Hori gutxi ez balitz, 65 urte eta gehiagokoak ugariagoak lirateke egungo norabidea jarraituz gero eta migratze-saldoaren araberako agertoki guztietan. Hurrenez hurren, 2061erako aldaketa horien hazkundeak % 43,4 edo % 72 lirateke (Eustat, 2018d). Begirada soilik Araban zentratuz gero 65 urtetik gorakoak 2010ean % 17,2 izatetik, 2019an % 21,1 izatera pasa ziren (INE, 2019). Berriz estatuan zentratzen bagara, 2 irudian ikusi daitekeen moduan, piramide demografiakoak 27 urtetan ikaragarrizko eraldaketa izan du eta etorkizuna ere norabide berean doala argi ikusi daiteke 2043. urtean iragarritako datuekin (INE, 2020).



2. Irudia: Piramide demografikoak. Iturria: INE, 2020.

Orohar, osasun gastua pertsonako areagotzen doa zahartzen goazen heinean, nahiz eta adinaren eta osasun gastuen arteko lotura lineala ez izan. Hala ere, geroz eta hirugarren adineko pertsona gehiago egongo direnz, osasun baliabideen erabilera eta beraz osasun gastua esponentzialki igoko dela aurreikusi da (Carone, 2005). Argi dago osasun publikoaren politika eta garapen sozio-ekonomikoaren arrakastaren ondorio dela populazioaren zahartzea, baina era berean. errealitate berri hau, gizartearen erronka garrantzitsuenetariko batean bihurtu da (The Lancet Public Health, 2017).

Euskadiko osasun zerbitzuen azken datuek argi adierazten duten ospitaleko sarrerak gehitu egin direla biztanleko, nahiz eta ospitaleko egonaldiak murriztu, hau da, arreta (ospitaleratzea, kanpoko kontsultak, jarduera kirurgikoa) jaso duten pertsonen kopurua gehitu egin da. Osasunaren gaineko azken inkestaren arabera (2013), emakumeak gizonezkoak baino maizago doaz medikuarengana. Inkestan emakumeen % 87 azken 12 hilabeteetan medikuari kontsultaren bat egin ziotela esan zuten, gizonen kasuan berriz % 78. Adin tarteak kontuan hartuta, adingabeak dira medikuarengana sarrien joaten direnak, baina 65 urte eta gehiagoko pertsonetan zentratuz gero, horien % 90-etik gora gutxienez urtean zehar behin joan dira medikuarengana (Eustat, 2014).

Geroz eta urte gehiago bizitzeak osasun errekurtsoen erabileran eragiteaz gain, bizi garen urteen kalitatean ere eragiten du. Esan ohi den bezala bizitzari urteak gehitzea ondo dago, baina garrantzitsuagoa da urte horiei bizia gehitzea. Euskadiko osasun inkestara itzuliz, 2007tik 2013ra bitartean gizonetan desgaitasunik gabeko bizi-itxaropena mantendu arren emakumeetan jaitsi egin zen. Baina desgaitasunarekin bizitako urte kopuruak begiratuz gero, urte tarte horietan, 3,1 urte emakumeen kasuan eta 1,7 urte gehitu da gizonen kasuan (Eustat, 2014). Ondorioz, populazioaren bizi-itxaropena luzatzea beti ez dator bat bizi-kalitate hobe edo egokiagoarekin (Kress eta Herridge, 2012), hori dela eta desgaitasunik gabe ahalik eta gehien bizitzea gaur egungo erronken artean ezarri da (Crimmins eta Beltrán-Sánchez, 2011).

Hau guztia dela eta, bizitza aktibo eta osasuntsuak, ariketa fisikoak eta jarduera fisikoak gaitasun funtzional, autonomian, bizi-kalitatean, egoera nutrizionalean eta ospitalizatzeko arriskuen gutxitzean izan dezaketen eraginaren inguruan interesa sortu da, eta ondorioz azken urteotan pertsona nagusiengan zer nolako eragina izan dezakeen ere asko ikertu da.

1.2. Zahartze-prozesua

Zahartzea prozesu jarraia, graduala eta unibertsala izateaz gain itzulezina da, bizi guztikoa eta oso aldakorra. Aldaketa horiek pertsona bakoitzarengan erritmo eta modu ezberdinean ematen diren aldaketa funtzional, fisiko, biologiko eta sozialei eragiten die. Zahartzea morbilitatearen, faktore genetikoen eta hala nola nutrizioa, bizimodua eta jarduera fisikoa bezalako beste faktore batzuen bidez azal daiteke eta gehien bat funtzio fisiologikoen narriadura progresiboan ezaugarritzen da (Del Pozo-Cruz eta lank., 2013; Kirkwood, 2017). Degenerazio prozesu honek eragiten dituen funtzio fisiko zein kognitiboen gainbeherek, eguneroko jarduerak aurrera eramatea oztopatuz gaitasun funtzionalaren galera eragiten dute (Rodríguez-López eta lank., 2014; Blazer eta lank., 2015). Era berean, bizi kalitatea murrizketaren eragile nagusienetarikoa eguneroko jarduerak gauzatzeko ezintasuna edo gaitasun eza da (Keeler eta lank., 2010).

1.2.1. Kognitiboki

Adina aurrera joan ala, neuronen galera jarraitua ematen da eta ondorioz baita neurotransmisoreen gutxitzea ere (Mather, 2016). Beraz egoera aldaketa honek funtzio fisiko zein kognitiboaren beherakadarekin erlazionatuta egoten dira eta faktore ezberdinek (ingurumena, genetika eta bizi kalitatea) eragina dute (Nyberg eta lank., 2012). Zahartzaroan zehar eguneroko bizitzaren funtzionamenduan eragina izan dezaketen aldaketa kognitibo arinak direla medio funtzio kognitiboak behera egiten du (Harada eta lank., 2013). Nahiz eta aldaketa hauek menpekotasuna handituz zein

bizi kalitatea gutxituz pertsonen autonomian eragina izan dezaketen, prozesu hau oso aldakorra izan ohi dela ez dugu ahaztu behar (Blazer eta lank., 2015).

Zahartze prozesuan zehar, gaixotasun zehatz batzuek edota hauskortasuna bezalako sindromeak medio direla, adin bereko pertsonen artean batzuek funtzio exekutiboaren eta prozesatzeko abiaduraren zenbait probatan beste batzuek baino emaitza txarragoak izan ohi dituzte (Langlois eta lank., 2012). Bestalde, nahiz eta erreakzio denbora eta oroimena bezalako funtzioak okertzen diren jakin arren, adimena eta jakituria bezalako beste funtzio batzuk hobetu edo mantentzen direla ikusi ahal izan da (Blazer eta lank., 2015).

1.2.2. Funtzionalki

Zahartze-prozesuak gorputz-osaeran aldaketak eragiten ditu, muskulu-masa eta hezur-masa murriztuz eta gantz-masa handituz, eta horrek errendimenduaren murrizte funtzionala dakar (Brady eta lank., 2014). Errendimendu funtzionalaren galera progresibo hori zahartzaroarekin eta osasunarekin lotutako arazo garrantzitsuenetariko bat da. Esan bezala, adinean aurrera egin ahala, beheko gorputz-adarretako muskulu multzoetan muskulu-masa gehiago galtzen da. Gazteekin alderatuz geroz, zeinbait muskuluetan berauen zeharkako azalera % 40, hanketako indarra % 70, artikulazioen mugikortasuna % 50 eta koordinazio neuromuskularra % 90 murrizten dira (Casas-Herrero eta Izquierdo, 2012).

Funtzio fisiko eskasa desnutrizio, erorketa, erikortasun handi, hilkortasun eta ezgaitasun handiekin eta bizi kalitatea murriztearekin lotzen da (Goodpaster eta lank., 2006; Wolinsky eta lank., 2007; Bradley, 2013; Hu, 2017). Baita ere, funtzio fisikoaren gainbeheran zentratuta jarraituz, zahartze prozesuak oreka, indarra eta gaitasun aerobikoaren murrizketa dakar eta ondorioz ibili edo altxatzeko jarduerak burutzeko eragin zuzena izanez (Goodpaster eta lank., 2006; Reid eta lank., 2008; Milanović eta lank., 2013). Hala, funtzio fisikoa galtzea erronka bat da helduentzat, eta osasunarekin eta karga ekonomikoarekin lotutako baliabideen eskaria handitzea dakar (Tieland, eta lank., 2018).

1.2.3. Nutrizionalki

Elikagaien ingesta, oro har, jaitsi egiten da zahartzearekin batera, besteak beste, horri zahartzearen anorexia deritzo. Alegia, zahartzearen anorexia gosearen murrizte fisiologikoari eta adinean aurrera egin ahala jakiak hartzen uzteari dagokio. Jateko gogoa galtzeak lagundu egiten du mantenugaiak gutxitzen, eta horrek pisua galtzea eta azpi nutrizioa edo desnutrizioa iragartzen ditu. Eguneko batez besteko energia-kontsumoa % 30 murriztu daiteke 20 eta 80 urte bitartean (Visvanathan, 2015).

Zenbait faktore fisiologikoez gain baita ere faktore sozialengatik, adinekoek elikagai gutxiago hartzeko joera dute, eta, ondorioz, askotan ez dituzte betetzen energia- eta proteina-baldintza egokiak (Hung eta lank., 2019). Hori dela eta, dieta osasuntsu eta orekatua izatea erronka izan daiteke adinekoentzat, bereziki haiek dituzten elikagai jakin batzuen beharrak biztanleria osoarenak baino handiagoak direlako. Ondorioz, esan daiteke desnutrizioaren prebalentzia handitu egiten dela adinak aurrera egin ahala (Siddique eta lank., 2017).

1.3. Hauskortasuna eta Sarkopenia

Azken urteotan, osasun politika zein ikerketa munduan populazioaren zahartzearekin batera hauskortasunaren eta sarkopeniaren inguruan interes handia sortu da. Hauskortasuna eta sarkopenia baldintza itzulgarritzat hartzen dira (Yoo eta lank., 2018), eta, beraz, oso garrantzitsua da garaiz detektatzea.

Lehen honen inguruan, hauskortasuna, hainbat ikerketa argitaratu arren, ez dago definizio bateratu ezta estandarizaturik ere (Morley eta lank.,2013; Rockwood eta Howlett, 2018). Hori dela eta hauskortasuna identifikatzeko hainbat eskala edo test diseñatu eta erabiltzen dira (Rodríguez-Mañas eta lank., 2013), hala nola, Frailty Index, SPPB, Study of Osteoporotic Fracture Index, Tilburg Frailty Indicator, Frailty Scale edota Phenotype of Frailty. Orain arte ikerketetan ohikoena eta erabiliena Fried-en hauskortasun irizpidean oinarritutakoa eskala izan da (Bouillon eta lank., 2013). Berau eta bere lankideak hauskortasuna ezaugarri fisiko edo fenotipoetan oinarrituz deskribatzen lehenak izan baitziren (Fried eta lank., 2001). Beraz, hauskortasuna neurtzeko, metodologia atalean irakur gai dagoen moduan, guk azken hau hautatu genuen. Adineko pertsonen artean hauskortasuna ohikoa izaten da eta honako sintomak izaten dituzte: neke goiztiarra, astenia, jarduera fisiko eskasa, muskuluaren indar eta erresistentzia gutxitzea, pisu galera, sintoma depresiboak eta hiporexia (Fried, eta lank., 2004); horiez gain, ibileran eta orekan asaldura, mugimendu motel, mugikortasun eza, osteopenia, malnutrizioa, desgaitasuna, narriadura funtzionala, ospitalizazio eta hilkortasun arrisku handiagoa dakar (Fried eta lank., 2004; Garcia-Garcia eta lank., 2011; Morley eta lank., 2014; Vellas, 2016). Bestetik, garrantzitsuada aipatzea komorbilitatea eta desgaitasuna hauskortasunarekin batera agertu arren, entitate kontzeptual zein kliniko ezberdinak direla, komorbilitate edo desgaitasunik izan gabe hauskortasuna pairatu daitekeelako (Fried eta lank., 2004; Rodríguez-Mañas eta lank., 2013).

Bien bitartean, European Working Group on Sarcopenia in older People (EWGSOP) lan taldeak 2010. urtean adinarekin erlazionaturiko sarkopeniaren definizio kliniko-praktikoa eta adostutako irizpide diagnostikoak zehazten zituen dokumentua argitaratu

zuen (Cruz-Jentoft eta lank., 2010). Gerora, aurreko urtean berrikusitako definizio zein diagnosi prozesua argitaratuz (Cruz-Jentoft eta lank., 2019). Beraz adosturiko eta berrikusitako definizioa honakoa da: Sarkopenia muskulu-nahaste eskeletiko progresibo eta orokortua da, eta muskulu-masa eta funtzioa azkar galtzea dakar. Sarkopenia identifikatzeko parametroak muskuluaren kantitatea eta funtzioa dira. Horrenbestez, aldagai kuantifikagarriak indarra, masa, eta errendimendu fisikoa dira (Cruz-Jentoft eta lank., 2019). Hauskortasunean bezala, sarkopeniak kontrako gertaerak izateko arrisku handiagoa du, hala nola ezgaitasuna, autonomia galera eta aldez aurretiko heriotza (Fielding eta lank., 2011). Europar Batasuneko 65 urtetik gorako pertsonen % 20-ri eragiten diola uste da, eta hurrengo hiru hamarkadetan % 63-ra iritsiko dela kalkulatzen da (Ethgen eta lank., 2017). Ondorioz, sarkopenia hirugarren adinekoentzako mehatxu bat da, eta osasun-kostu handiak eragiten ditu (Santilli eta lank., 2014; Miljkovic eta lank.,2015).

1.3.1. Biomarkatzaileak

Ingurune klinikoetan kokatzen bagara ezin dugu ukatu hauskortasun eta sakopeniaren inguruko ebaluazio zehatzak egitea beti ez dela erraza. Hauskortasun-indizeek, oro har, proba fisikoak eta galdera-sortak izaten dituzte, eta, askotan, zaila izaten da horiek egitea eskatzen duten denbora dela eta. Sarkopeniaren diagnostikoak, berriz, proba garestiak eskatzen ditu, hala nola energia bikoitzeko X-izpien absorptiometria (DXA) (Guglielmi eta lank., 2016) edo erresonantzia magnetikoa (Lee eta lank., 2019). Hauskortasuna edo sarkopenia identifikatzeko tresna alternatibo gisa, indarra (Pinheiro eta lank., 2016; Lee eta lank., 2017), abiadura (Lee eta lank., 2017), arintasuna edota oreka dinamikoa (Savva eta lank., 2013) neurtzeko erabiltzen diren banakako probak proposatu dira. Hala ere, proba horiek ospitale-inguruneetan gauzatzea zaila izan daiteke egoera eta espazio berezitzat hartu behar baita, hala nola oso zaurgarriak diren pazienteak eta denbora- eta/edo espazio-mugak agertu daitezkeelako.

Biomarkatzaile molekularrak prozesu fisiologiko eta patogenikoen adierazle gisa erraz neur eta ebaluatu daitezke (Biomarkers Definitions Working Group, 2001). Funtzio fisikoaren narriadura hauskortasun fisikoaren eta sarkopeniaren nukleo amankomuna bezala adieraz daiteke (Cesari eta lank., 2014). Horrenbestez, muskulu-funtzioari lotutako biomarkatzaile molekularrak (besteak beste) ikertu behar dira, hauskortasun- eta/edo sarkopenia-biomarkatzaile gisa duten potentziala zehazteko asmoz.

Miostatina muskulu eskeletikoan oso ugaria den zitokina da, baina gantz-ehunean eta bihotz-muskuluan ere aurki daiteke (White eta Le Brasseur, 2014). Miostatinak proteolisia hobetu eta muskulu eskeletikoan proteinen sintesia inhibitzen du, horrez

gain muskulu-masaren erregulatzaile negatibo sendoa da (Rodgers eta Garikipati, 2008). Haatik, hauskortasun eta sarkopeniarekin lotutako parametroek miostatinarekin dituzten asoziazioen berri ematen duten ikerketek emaitza kontraesankorrak erakutsi dituzte. Batzuek miostatinaren eta muskulu-masaren (Yarasheski eta lank., 2002) edo funtzio fisikoaren (Fife eta lank., 2018) arteko lotura negatiboa aurkitu dute; beste batzuek, berriz, kontrakoa adierazi dute (Bergen eta lank., 2015): miostatina-kontzentrazio handiagoa, muskulu-masa handiagoarekin eta muskulu-funtzio hobearekin lotua. Gure ikerketa berriak, hirugarren adineko egoitzetako egoilarretan, hauskortasun eta miostatinaren arteko lotura negatiboa aurkitu zuen (Arrieta eta lank., 2019).

Folistatina proteinak miostatinaren jarduera inhibitu eta muskulu-hazkundea sustatzen du (Lee eta lank., 2010). Hala ere, miostatinarekin bezala, folistatina funtzio muskulular eta fisiko (Liaw eta lank., 2016), zahartze eta adinarekin zerikusia duten hauskortasun eta sarkopeniarekin (Ratkevicius eta lank., 2011; Negaresh eta lank., 2019) nola asoziatzen den aztertzertutako ikerketek, emaitza eztabaidagarriak azalerazi dituzte. Ondorioz hauskortasun eta sarkopeniaren biomarkatzaile molekular gisa miostatina eta folistatinaren balio potentziala kontuan izatekoa dela deritzogu.

1.4. Ospitalizazioaren eragina

Gero eta handiagoa den ebidentziak iradokitzen du adineko pazienteen funtzio fisikoa eta kognitiboa murriztu egiten dela, eritasun akutuagatik ospitaleratu ondoren (Graf, 2006; Mathews eta lank., 2014). Gainera, gaitasun fisiko eta kognitiboen galerak altaren ondorengo hilabeteetan ere jarrai dezake (Wilson eta lank., 2012). Murrizketa funtzionalak lotura zuzena izan du ospitaleratu eta hurrengo urteko emaitza negatiboekin, mendekotasuna barne, instituzionalizatzeko eta are hiltzeko arrisku gero eta handiagoa (Campbell eta lank., 2004). Alta hartu eta urtebetera, gastu mediko osoak handitu egiten dira narriadura funtzionalaren proportzioan, eta horrek adierazten du ospitaleratu ondoren funtzio fisikoa eta kognitiboa galtzeko izan dezakeen eragin ekonomikoa (Greysen eta lank., 2017).

Zahartze-prozesuari estresa gehitzeak, gaixotasunagatik edo ospitaleratzeagatik, desegokitzapena bizkortu egiten du normalean. Adineko pazienteen ospitaleratzea muskulu-indarra gutxitzearekin lotzen da, eta muskulu-masa galtzea eta nutrizio-egoerak eta bizi-kalitateak okerrera egitea (Van Ancum eta lank., 2017). Estresaren eta narriaduraren arteko lotura sendoak handitu egin dezake ondorio negatiboen arriskua, hala nola mendekotasuna edo heriotza-tasa (Oliveira eta lank., 2009; Deutz eta lank., 2019; Sauer eta lank., 2019), eta horrek bereziki paziente zaharrenei eragiten die (Chen, eta lank., 2008). Gaitasunen gutxitze horrek altaren ondorengo hilabeteetan jarrai

dezake (Chen eta lank., 2008; Wilson eta lank., 2012), baita ospitaleratu eta urtebete baino gehiagora (Gill eta lank., 2010). Gainera ospitalizazioa bukatu eta esku-hartze egokirik gabe, egoera akutu horri lotutako ondorio eskasak kronikoki hauspeatzeko ahalmena dute (Suetta eta lank., 2007; Kanach eta lank., 2018).

Zahartze osasuntsuan, muskulu-masaren galera % 3tik % 8ra bitartekoa da hamarkada bakoitzeko (Mitchell eta lank., 2012). Hala ere, murrizketa hori are gehiago areagotzen edo nabarmentzen da gaixotasun akutu edo kronikoagatik edota jarduerarik gabeko aldi akutu bat, hala nola ospitaleko egonaldi bat, dela eta (Witard eta lank., 2016). Ospitaleratu ondoren, adineko pertsonak kontrako edozein gertaera garatzeko zaurgarriagoak dira (Krumholz, 2013). Gero, sendatzea azkartzeko eta ospitalera berriz ez onartzeko esku-hartze goiztiarrak garrantzitsuak izango dira (Deer eta lank., 2019). Desnutrizioa ohikoa da adineko gaixoetan (Hung eta lank., 2019), eta horregatik alta eman eta berehala elikadura eta ariketa fisikoa konbinatzen dituzten esku-hartzeak ezartzea garrantzitsua da.

Ospitaleratzea hauskortasun eta sarkopeniarekin lotuta egon daiteke. Hauskortasun-sindromea oso ohikoa da ospitaleratuta dauden heldu zaharrenetan (Cunha eta lank., 2019), eta sarkopenia modu akutuan ager daiteke ospitalean sartzen diren bitartean, bereziki heldu nagusietan (Cruz-Jentoft eta lank., 2019). Hauskortasuna (Aranha eta lank., 2020) eta sarkopenia (O'Brien eta lank., 2018) ospitalera itzultzeko arrisku handiagoarekin ere lotzen direnez, ospitalizazioaren eta hauskortasun/sarkopeniaren arteko erlazioak bizio-zirkulu bat sor lezake, eta horrek gainbehera funtzional handia eragin lezake.

Adineko pazienteen ospitaleratzea indar gutxitzearekin eta muskulu galera azkartzearekin lotzen da, eta beraz bizi-kalitateak okerrera egiten du (Van Ancum eta lank., 2017). Gaitasun funtzionalaren murrizte progresibo hori zahartzearekin lotutako arazo garrantzitsuenetariko bat da. Funtzio galera hori desnutrizio, erorketa, erikortasun handi, hilkortasun eta ezgaitasun arazo handiekin lotzen da, eta guzti horrek bizi-kalitatea murrizten du (Goodpaster eta lank., 2006).

1.5. Ariketa fisikoaren eragina hirugarren adineko pertsonetan

1.5.1. Esku-hartze motak

Ariketa fisikoko esku-hartzeen artean, bereziki, komunitatean bizi diren heldu nagusien artean osagai anitzeko ariketa fisikoan oinarrituriko programak indarra, oreka, gaitasun aerobikoa eta orokorrean funtzionaltasuna hobetzeko eraginkorrak direla erakutsi dute (Paw eta lank., 2008; Cadore eta lank., 2013; Pahor eta lank., 2014; Arrieta eta lank., 2018). Hau dela eta, gehien gomendatzen diren ariketa fisikoko esku-

hartzeak hauexek dira, osagai anitzekoak, non indarra, oreka edo gaitasun aerobikoa bezalako osagaiak konbinatuta landu ohi diren. Indarra, erresistentzia eta oreka lantzeko entrenamendua duten osagai anitzeko programak zahartzearekin lotutako ondorio kaltegarriak arintzeko eraginkorrak dira (Cadore eta lank., 2013; Pahor eta lank., 2014; Arrieta eta lank., 2018).

Orain arte publikatutako ikerketen gehiengoak egoera fisikoko osagaien konbinaketa eta esku-hartze desberdinak (taldekako saioak edo etxean bakarka) erabili dituzte (Lacroix eta lank., 2016); batzuk indarra eta oreka konbinatuz, beste batzuk indarra eta gaitasun, eta beste batzuk hiruen bateratze bat jorratu dute. Era berean, egoera fisikoko osagai horiek lantzerako orduan atsedena, ariketa motak, maiztasuna (astean zenbat saio), intentsitateak (arina edo moderatua) eta bolumena (errepikapen zein serie kopuruak) bezalako ezaugarriak ikerketen artean ezberdinak dira. Ondorioz esan daiteke osagai anitzeko esku-hartzeen artean heterogeneotasun metodologikoa dela nagusi, eta zer esanik ez ospitalizazioan edo ospitalizazio ostean. Horregatik ezinbestekoa da egoera edo ingurune honetarako osagai anitzeko ariketa fisikoko esku-hartze eraginkorrena zehaztea.

Ospitaleratze akutuan edo ospitaleratze akutuaren ondoren egiten direnean, esku-hartze horiek muskulu-indarra eta gaitasun funtzionala handitzen dituzte, eta funtzio fisikoa eta egoera kognitiboa hobetzeko eraginkorrak dira (Timonen eta lank., 2002; . Stevens-Lapsley eta lank., 2016; Martínez-Velilla eta lank., 2019; Sáez de Asteasu eta lank., 2019). Hala ere, ospitalizazioan ariketa fisikoa egitea zaila izaten da, gaixotasunaren larritasuna eta beharrezko arreta zein zaintza medikoaren konplexutasuna direla eta. Ospitalizazio osteko ariketa fisikoko programa gehienak bihotz- eta birika-patologiak dituzten gaixoekin edota aldaka zein belaun interbentzio kirurgiko baten ondoren erabiltzen dira (Benzo eta lank., 2015; Ruano-Ravina eta lank., 2016; Mudge eta lank., 2018). Hala ere, ikerketa gutxik ebaluatzen dituzte adinekoengan ospitalizazioaren ondoren eta beraien tratamenduaren barne izan gabe ariketa fisiko programa batek zer nolako eragina sortzen duen (Stevens-Lapsley eta lank., 2016; Bäck eta lank., 2015). Gainera, ariketa fisikoko esku-hartzeen kostu sozial eta ekonomikoa kezkagarria da. Beraz, ospitaleko alta jaso ondoren funtzio fisikoa azkarrago berreskuratzeko esku-hartze eraginkor eta jasangarriak egitea justifikatuta dago (Deer eta lank., 2016).

Ariketa fisikoko esku-hartze gehienak taldeka edo etxean bakarka sailkatu daitezke. Ingurune kliniko batean, taldeetan oinarritutako saioak langile kualifikatuek kontrolatzen dituzte. Horrela, ariketaren teknikan arreta eta errendimendu egokia bermatzen dira, eta, hala, ariketak egiteko kargak eta zailtasuna handitu eta optimizatzen dira, eta jarraipena errazago egiten da (Lacroix eta lank., 2016; Tsekoura

eta lank., 2018). Hori dela eta, entrenatzaile esperimentatuak eta instalazioetarako garraioa beharrezkoak dira, eta beraz programa horiek epe luzera mantentzea zailagoa egiten da. Aitzitik, etxean oinarritutako ariketa programek taldeetan oinarritutakoarekin konparatuz, ariketen-ikuspegitik, zenbait onura dituzte, hala nola ariketa bizi-estiloaren lehentasunei egokitzea, parte-hartzailearen autonomia, denboran malgutasuna, gizabanakoarentzako kostu txikia eta bidaiatzeko behar eza. Hala ere, etxean gauzaturiko programek, programara atxikitzeko autodiziplina indartsu baten beharra eta programaren izaera sozialaren falta (azken hau talde ariketaren elementu positibotzat jotzen baita) bezalako mugak dauzkate (Hill eta lank., 2015). Normalean, ikuskapenaren intentsitatea zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoak izango ohi dira hobekuntzak (Sherrington eta lank., 2014; Deer eta lank., 2019), baina ez dago adostasunik helduengan zein programak eskaintzen duen hobekuntzarik handiena.

Programa batzuetan, errendimendua eta atxikimendua errazteko hasierako saio gainbegiratuen ondoren, etxean oinarritutako saio-aldi bat dago. Honela, gure kasuan bezala, programa horiek bi esku-hartze motak aprobetxa ditzakete. Hain zuzen, epe luzera taldeetan oinarritutako esku-hartzea amaitu ondoren jarraipena etxean edo komunitatean egin zirenean ondorio positiboagoak aurkitu zirela argitaraturiko datuak aztertuz gero erabaki hori indartzen da (DeVito eta lank., 2003; Kosse eta lank., 2013; Kanach eta lank., 2018). Kasu horretan, taldean oinarritutako osagaiaren luzera faktore mugatzailea izan liteke, kostu ekonomiko eta soziala dela eta. Beraz, kalitate handiko zorizko saiakuntza kontrolatuak proposatu dira ikuspegi gradualak ebaluatzeko, ariketa gainbegiratzeko etapa desberdinak aplikatuz (Lacroix, eta lank., 2017).

1.5.2. Ariketa motak

Ariketa fisikoko programa bat planifikatzerako orduan, frekuentzia, intentsitatea, iraupena, bolumena, indibidualizazio, espezifikotasuna, karga progresibo, atsedenaldi eta errekuperazio printzipioak kontuan hartu behar dira (Garber eta lank., 2011; de Souto Barreto eta lank., 2016; Zaleski eta lank., 2016). Intentsitateari dagokionez, nahiz eta intentsitate baxuko (Cichocki eta lank., 2015), altuko (Toots eta lank., 2016; Zaleski eta lank., 2016) edota mistoko (moderatu+altuko) (Zaleski eta lank., 2016) ariketa fisikoko programak osasuneko zenbait parametrorentzat onuragarriak izan daitezkeela ikusi den, hirugarren adineko zaugarrieenentzako intentsitate moderatua da gehien gomendatzen dena (de Souto Barreto eta lank., 2016) denek altua ezin baitute egoki toleratu (Zaleski eta lank., 2016). Printzipio hauek oinarri hartuta, adinduen egoera fisikoa zein kognitiboa mantentzeko indarra, lan aerobikoa, oreka

eta malgutasuna lantzen dituen ariketa fisikoko programak aholaktzentzen dira (ACSM, 2013; de Souto Barreto eta lank., 2016; Zaleski eta lank., 2016).

Astean bi eta bost saio bitarte burutzea gomendatzen da, saio bakoitzak gutxienez 30 minutu eta gehienez 60 minutu iraupena izanik (ACSM, 2013; Zaleski eta lank., 2016). Asteko saioen artean, 48 orduko tartea errespetatzea ere aholkatzen da, deskantsoa programatzean kontuan hartzea beharrezkoa baita (ACSM, 2009; Garber eta lank., 2011; de Souto Barreto eta lank.,2016).

1.5.2.1. Indarra

Muskulu galera moteltzeko Indar entrenamendua funtsezkoa da, masa eta funtzio muskularra gehitzean gain eta oreka arazoak ere murrizten dituela frogatu baita eta (Montero-Fernandez eta Serra-Rexach, 2013). Hare gehiago, astean zehar 2-3 saioen bitartez adineko pertsonetan muskuluen ahultasuna hobetu, zenbait muga funtzional gainditu eta desgaitasun fisikoa murriztu daitekeela frogatu da (Liu eta Latham, 2009). Indar ariketak burutzen hasiko dituzten adineko pertsonentzat, beraien indar maximoaren (RM1) % 40-50 bitarteko intentsitatea erabiltzeko gomendatzen da, eta gerora, egokitzapen fasea burutu ondoren % 60-70 RM1 (Garber eta lank., 2001; ACSM, 2013). Errepikapen maximo bateko neurketa egin ezin denean, indar ariketen intentsitatea zehazteko 0tik 10erako eskala subjektiboa erabiltzea adierazten da: 5-6 intentsitate moderaturako eta 7-8 intentsitate alturako (Nelson eta lank., 2007; Zaleski eta lank., 2016).

Aurrez esan bezala, hasiberriek egokitzapen fase egoki bat izateko lehen asteetan intentsitate baxuko ariketak burutzea aholkatzen da. Ondoren, % 60-70 RM1 intentsitatean 8-10 ariketa eta gehienez 8-15 errepikapeneko 2-4 serie burutuz (Garber eta lank., 2011; Zaleski eta lank., 2016). Indarra lantzeko pisu askeak zein makina gidatuen erabilera egokia dela frogatua dago (ACSM, 2009). Horrez gain, periodizazioa aurrera joan ahala ariketen zailtasuna handitzen joatea eta mugimenduaren abiadura areagotzen joatea gomendatzen da, batez ere behe gorputz-adarrak indartzeko (Gaber eta lank., 2011; de Souto Barreto eta lank., 2016).

1.5.2.2. Lan aerobikoa

Adineko pertsona osasuntsu zein gaixoetan gorputzeko gantz masa eta gaitasun kar-

diobaskular eta erresistentziaren hobekuntzari dagokionez lan aerobikoaren lanketa bitartez lortzen diren onurak frogatu dira (Montero-Fernandez eta lank., 2013). Hirugarren adineko pertsonentzat intentsitate moderatuan eguneko gutxienez 30 eta gehienez 60 minutuz jarduera fisikoa burutzea aholkatzen da. Intentsitatea altuan berriz 20 eta 30 minutu bitarte egitea gomendatzen da (Garber eta lank.,

2011). Lan aerobiko hori gutxienezko 5-10 minutuko tarteekin gauzatzea bultzatzen da, astean guztira 150-300 minutu intentsitate moderatuan edota altuan 75-100 minutu. Beraz, astean, intentsitate moderatuko 5 saio edo gehiago eta intentsitate altuko 3 saio burutzea gomendatzen da (Garber eta lank., 2011; ACSM, 2013). Intentsitatearen neurketari dagokionez, indarraren kasuan bezalaxe, 0tik 10erako eskala subjektiboan intentsitate moderatua 5-6 bitarte kokatuko litzateke eta altua berriz 7-8 artean (Nelson eta lank., 2007; Zaleski eta lank., 2016).

Hala ere, hirugarren adineko pertsona zaurgarrietan ariketa fisikoko programaren hasierako asteetan lan aerobikoa intentsitate baxuan burutzea gomendatzen da, moderaturako bidea jorratuz (de Souto Barreto eta lank., 2016; Zaleski eta lank., 2016). Lan aerobikoa ibilaldien bitartez modu jarrai batean eginda zein atsedenak tartekatuz jorratu daitekeela adierazten da (de Souto Barreto eta lank., 2016). Kontuz ibili behar da narriadura kognitiboa duten pertsonekin, intentsitate moderatua antzemateko zailtasuna dutenekin eta mina zein beste edozein arazo dutela ohartzeko gai ez direnekin. Horregatik lan aerobikoaren intentsitatea arnasketa eta bihotz taupadak igotzeko (disneak edo gehiegizko nekea ekidin) nahikoa izan behar da, gehiago ez (de Souto Barreto eta lank.,2016).

1.5.2.3. Oreka

Adineko pertsonetan erorketen prebentzioak duen garrantzia dela eta, hauskortasuna edota mugikortasun mugatua duten pertsonekin, oreka ariketa neuromotorren bitartez lantzea gomendatzen da. Entrenamendu neuromotorretan oreka, propiozepzio eta arintasun ariketak lantzen dira, eta aholkua astean 2-3 egunetan 20-30 minutu bitartea burutzea da (Garber eta lank., 2011).

Oreka ariketen intentsitatea eta progresioa definitzea zaila da (Garber eta lank., 2011), gaur egun oraindik ez baitago intentsitatea definitzen duen tresna balidaturik (Farlie eta lank., 2013). Baina periodizazioan, zailtasun maila handitzen joatea gomendatzen da (ACSM, 2013). Horretarako oinarria txikitzen joatea, grabitate-zentroa aldatzen duten ariketa dinamikoak egitea, muskuluen uzkurdura jarrerak mantentzea (adibidez puntilletan jarriz), zentzumenak murriztea (begiak itxita adibidez) (ACSM, 2009) bezalako aldaerak gehitzen joan behar da. Adibidez, zailtasuna areagotzen doan oreka estatiko (bi oinak elkarrekin, semi-tandem, tandem, hanka bakarrean) zein dinamikoa (marra baten gainetik ibil, ibiltzen goazela norabide aldaketak egin, ibilbidean oztopo argiak sahiestu eta abar) lantzea interesgarria da (de Souto Barreto eta lank.,2016). Hala ere, kontuan izan behar da oreka edota koordinazio ariketa espezifiko hauek arriskurik gabe egin ahal izateko

aurrez indarra landu den hainbat saio burutzea aholkatzen da (de Souto Barreto eta lank.,2016).

1.5.2.4. Mugikortasun artikularra edota malgutasuna

Mugikortasun artikularra (saioaren hasieran, dinamikoa da) eta luzaketa (saioaren amaieran, estatikoa da) ariketak burutzea gomendatzen da. Malgutasuna muskulua berotua dagoenean lantzea egokiagoa baita (ACSM, 2013).

Malgutasunaren entrenamendurako, luzaketak gomendatzen dira, horretarako 10-30 segundoz tenkatasun edo deserosotasun puntu batean jarrera mantendu behar da. Ariketa bakoitza 2-4 errepikapen kopuruarekin 60 bat segundo lantzea gomendatzen da (ACSM, 2013). Luzaketa estatikoak astean gutxienez 2 aldiz eta gutxienez 10 minutuz burutzea aholkatzen da (ACSM, 2013; Zaleski eta lank., 2016). Mina sentitzen dutela esateko zailtasunak dituzten pertsonekin tentuz ibili behar da (de Souto Barreto eta lank., 2016). Malgutasuna lantzea erorketen prebentziorako garrantzitsua izan daiteke, batez ere aldaka, belaun eta orkatilen mugikortasun mugatuak erorketa arriskua handitu eta ibileran izaten diren aldaketetan eragina izan dezaketeelako (Montero-Fernandez eta lank., 2013).

2.

HELBURUAK

OBJECTIVES

2. HELBURUAK / OBJECTIVES

Azken hamarkadan asko izan dira hirugarren adineko pertsonetan ariketa fisikoaren eragina aztertzen duten argitaratutako ikerketak. Hala eta guztiz ere, ikerketa gehienak komunitatean bizi diren adineko pertsonekin aurrera eraman dira eta hirugarren adineko egoitzetan bizi zein ospitalizazio bat pairatu duten bezalako biztanleri zaurgarriekin gauzatutakoak ez dira hain ugariak izan. Honi gehitu behar zaio, bereziki, osagai anitzeko ariketa fisikoko programak, funtzionaltasun fisikoaren galera ekidin edota lausotzeko eraginkorrak izan daitezkela frogatu dela. Hala ere, orain arte ez da ondorioztatu zein ariketa fisiko mota den egokiena funtzio fisiko zein kognitiboa, egoera nutrizionala edota bizi-kalitate egokia zaintzeko ospitalizazio bat bezalako egoera akutu bat izan duten hirugarren adineko pertsonentzat.

Hortaz, hau guztia kontutan harturik, ikerketa proiektu honen helburu orokorra ospitalizazio bat izan duten hirugarren adineko pertsonei lotutako parametroetan norbanakoan oinarrituriko eta intentsitate moderatuan buruturiko bi ariketa fisikoko programa progresiboen eragina aztertzea izan da.

Berariazko helburuak honakoak izaki:

1. Lehenik, adinekoek ospitaleko alta jaso ondoren ariketa fisikoko programa batean parte hartzeari uko egiteko dituzten arrazoiak identifikatzea. Bigarrenik, parte ez hartzearekin lotutako faktore fisiko, kliniko eta soziodemografikoak objektiboki aztertzea.

2. Osagai anitzeko ariketa fisikoko bi esku-hartzeren onurak alderatu, talde (gainbegiratuan ospitalean) eta bakarkako saioen (gainbegiratu gabe etxean) iraupen desberdineko aldiak zituztenak, ospitaleratu ondoren helduen funtzio fisikoari, jarduera fisikoari, bizi-kalitateari, antropometriari eta nutrizio-egoerari dagokienez.

3. Lehenik, hauskortasun eta sarkopeniarengan osagai anitzeko ariketa fisikoko bi esku-hartzeren onurak aztertu eta alderatu. Bigarrenik, hauskortasun eta sarkopeniaren irizpide bakoitzean garaturiko aldaketak aztertzea.

4. Lehenik, ospitalizazio osteko adineko helduetan miostatina eta folistatina hauskortasun eta sarkopeniaren biomarkatzaile molekular gisa hartuta, bi biomarkatzaileen arteko lotura aztertzea. Bigarrenik, bi proteinek hauskortasuna eta/edo sarkopenia identifikatzeko duten gaitasuna eta baliozkotutako proba fisiko sinpleen ahalmenarekin alderatzea.

In the last decade, many studies have been published analyzing the influence of physical exercise in the elderly. However, most of the studies have been carried out with community-dwelling elderly people and not so many have been carried out with vulnerable populations such as those who have been hospitalized or live in nursing homes. In addition, it should be added that it has been shown that multicomponent physical exercise programs can be effective in preventing or reducing the loss of physical function. However, so far it has not been concluded which type of physical exercise is the most appropriate for elderly people who have had an acute situation such as hospitalization to take care of their physical or cognitive function, their nutritional status or quality of life.

Therefore, taking all this into account, the general objective of this research project has been to analyze the influence of two individualized, progressive, moderate-intensity physical exercise programs on parameters related to elderly people who have been hospitalized.

Being specific objectives:

1. First, to identify the reasons why older people may forgo participation in a physical exercise program after hospital discharge. Second, to objectively analyze the physical, clinical and sociodemographic factors associated with non-participation.

2. To compare the benefits of two multicomponent physical exercise interventions with different time periods of group (supervision in hospital) and individual (without supervision at home) sessions in relation to physical function, physical activity, quality of life, anthropometry and nutritional status in post-hospitalized adults.

3. First, to analyze and compare the benefits of two multicomponent physical exercise interventions on frailty and sarcopenia. Second, to analyze the modifications developed in each of the criteria for frailty and sarcopenia.

4. First, considering myostatin and follistatin as molecular biomarkers of frailty and sarcopenia, to analyze the relationship between the two biomarkers in post-hospitalized adults. Second, to compared the capability of both proteins to identify frailty and/or sarcopenia with the ability of validated simple physical tests.

3.

MATERIAL ETA METODOAK

MATERIALS AND METHODS

3. MATERIAL ETA METODOAK / MATERIALS AND METHODS

3.1. Ikerketaren diseinua

Proiektu hau Osakidetzako Arabako Unibertsitate Ospitaleako (HUA) Barne Medikuntza eta Neurologia zerbitzuko eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) Ageing-On ikerketa taldearen arteko elkarlanaren fruitua izan zen. Baita ere, aipagarria da, proiektu hau Bordeleko Unibertsitatearekin (Université de Bordeaux, UB) nazioarteko tesia jorratzeko tutoretzakidetzarako hitzarmenaren barnean ezarria zegoela.

Bioaraba Osasun Ikerketa Institutuko Entsegu Kliniko eta Etika Batzordeak (CEIC-HUA Code Expte. 2017-021) eta Agente Biologikoen eta genetikoki eraldatutako organismoen Ikerketetarako Etika Batzordea (ABIEB M30/2018/201) ikerlana onartu zuten. Ikerketa proiektuaren protokoloa berriz Australian and New Zealand Clinical Trials Registry-n (ANZCTR) erregistratu zen honako kodea eskuratuz: ACTRN12619000093189. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntzako, Hizkuntza-Politika eta Kultura (2016111138) Departamentuko diru-laguntza batek eta Osasun Departamentuko Programa-Kontratu batek finantzatutako Ikerketa bat izan da. Horrez gain, eta azkenik, tutoretzakidetzarako hitzarmena zela eta tesia burutzeko zein estantzia Bordelen egin ahal izateko, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) (PIFBUR16/07) diru-laguntza jaso dut.

Behin proiektua erregistratua zein etika batzordeak onartua izan ostean pilotuaren jorratzeari ekin genion. Honela ikerlana egiteko garaian aurretiko lana kontuan harturik prozedura egokiena erabiliko genuen. Adibidez, pilotuari eskerrak ospitalizazio ostean pazienteak intentsitate desberdineko ariketa fisikora nola egokitzen ziren erakutsi zigun eta erreklutamendua hobetzeko zein estrategia erabili beharko genituzkeen erabakitzera lagundu zigun. Azken finean, prestaturiko balorazio, saioetarako ariketak eta intentsitateak zein espazio eta materiala probatu eta doitu ziren.

3.2. Laginaren ezaugarriak

Ikerlanean parte hartu ahal izateko barneratze irizpideak honako hauek izan ziren:

- 70 urte edo gehiagoko emakume edo gizona izatea.
- Mini-Mental State Examination (MMSE) testean (Folstein eta lank., 1975) 20 puntu edo gehiago izatea.
- Bere kabuz edota laguntza gailuarekin gutxienez lau metro ibiltzeko gai izatea.

Baztertzeko irizpideak ondorengo hauek izan ziren: giltzurrunetako gaixotasun kronikoa, dementzia larria, gaixotasun neuromuskular autoimmunea, azken hiru

hilabeteetan miokardio-infartu akutua edo hezur-haustura bat diagnostikatzea, edota baimen informatuaren inprimakia sinatzeari uko egitea.

Guztira, errekrutatzeak iraun zuen denbora guztian 2.365 paziente onartu zituzten barne medikuntza eta neurologiako plantetan. Aztertu ondoren, 509 paziente hautagarri izan ziren alta emateko unean ariketa fisikoaren programari ekiteko. Ospitaleko onarpen-erregistroen arabera, hautagarri horien % 41,8 infekzioekin lotuta egon ziren, % 18,2 gaitasun motorraren narriadurarik gabeko apoplexien ondorio izan ziren, % 16,4 bihotz-gutxiegitasun deskonpentsatuaren eta % 5,5 erorikoen ondorio izan ziren. Ospitaleratzeen gainerako % 18 beste baldintza batzuen eraginez (neurologikoak, eldarnioa, anemia, etab.) izan zen. Ebaluatutako paziente horien artean, 106-k onartu zuten alta hartu orduko ariketa fisikoko programan parte hartzea. Esku-hartzea hasi aurretik, 51-k berriz ospitalizatuak izan, edo parte hartzeari uko egin zioten. Beraz, azkenik, 55 parte-hartzaile zoriz bi taldeetan banatu ziren, 28 ELA-ra eta 27 EMA-ra. Lagin osoaren batezbesteko adina 81,5 urtekoa izan zen. Parte hartu zuten pertsonetatik % 47,3 emakumezkoak eta % 52,7 gizonezkoak izan ziren.



3. Irudia: Parte-hartzaileen banaketa sexuaren arabera. **Iturria:** Propioa

Horien % 30,4ek 12 urte edo gutxiagoko ikasketa-maila eta % 49,1ek ibiltzeko nolabaiteko laguntza erabiltzen zuten. Etxerako irisgarritasunari dagokionez, % 5,5ek etxeko sarrerarekin lotutako ingurumen-oztopoekin arazoak zituzten eta % 36,4 bakarrik bizi zen.

3.3. Prozedura eta esku-hartzea

Ikerlanean beti prozedura bera jarraituz lan egin genuen. Lehenik, errekrutatzea gauzatzeko barneratze irizpideak betetzen zituzten pazienteak identifikatu behar genituen. Horretarako egunero ospitalizazio berriak Osakidetzaren Osabide Global programan berrikusi edota plantako medikuek balizko parte-hartzaileak identifikatzen

zituzten. Bigarrenik, identifikaturiko balizko paziente horiei, beraien gelan, balorazio labur bat gauzatzen genien berauei zein familiartekoei proiektua ahoz azaldu eta baimen informatua (1. eranskina) sinatu ostean. Hirugarrenik, errekrutatze prozesua errazteko astean behin, informazio-saioak eta informazio-triptikoak ematen genituen (2. eranskina). Parte-hartzaileen onarpena izanik ospitalizazio amaieran (alta egunean) balorazio bat gauzatu, azelerometroa jarri eta 0. asteko balorazioak egiteko zita ixten genuen.

Gerora 4.irudian ikus daitekeen moduan proiektuan barneratu ziren parte-hartzaile guztietan balorazioak epe desberdinetan gauzatu ziren: esku-hartzea hasi aurretik (0 astea, alta eguna), talde luzeko fasearen amaieran (12. astea, esku-hartzearen erdian) eta esku-hartze osoaren ondoren (24. aste, amaieran). Balorazio guztiak leku berean gauzatu genituen, eta emaitza guztiak ikertzaile gaitu berak jaso zituen.



4. Irudia: Bi taldeen ibilbide eta ebaluazio asteak. **Iturria:** propioa

Ikerketa proiektu hau sei hilabeteko iraupena izan zuen ausazko entsegu kliniko bat izan da. Parte-hartzaile guztiak zoriz bi taldetan banatu ziren: epe luzeko adarra (ELA) eta epe motzeko adarra (EMA). Bi taldeen banaketa paziente guztietan 1:1 ratio banaketa errespetatuz eta generoa kontuan hartuz burutu zen. EMA-k ospitalean sei asteko talde-saioak (periodo gainbegiratua) egin zituen, eta 18 asteko banakako saioak etxean. ELA-k ospitalean 12 asteko talde-saioak (periodo gainbegiratua) egin zituen, eta beste 12 aste eman zituen etxean banakako saioak eginez.

ELA-k eta EMA-k periodo gainbegiratuan astean 60 minutuko bi saio gauzatzen zituzten, bata bestearen artean gutxienez 48 orduko epea izanik. Saio hauek, ospitalean bertan ariketa fisikoa egiteko prestatuta zegoen gela batean, heldu hauskorretan esperientziadun hezitzaile fisiko batek gainbegiratu zituen. Saio hauetan, gehienez 8 eta gutxienez 3 pertsonako taldeak parte hartzen zuten. Gelan bertan aulki sendoak, oreka zein indar ariketak burutzeko euskarri moduan erabiltzen zirenak, eta saioa burutzeko beharrezkoa zen hainbat material zeuden. Material hori, gelan bertan zegoen armairu batean gordetzen zen honako hau izanik: pisu ezberdinetako mankuernak, pisu ezberdinetako lastreak, step-ak, pilota bigunak, baloi bigunak eta konoak.

Taldekako saioetan aurrera eramaten zen entrenamendu programan, indarra, potentzia, oreka eta gaitasun aerobikoa lantzen ziren. Programa, eduki teknikoetan

autoreek aurrez antzeko populazioetan zuten esperientzian oinarrituta (Rodriguez-Larrad eta lank., 2017) eta Amerikako Kirol Medikuntza Eskola (Nelson eta lank., 2007) zein Amerikako bihotz elkarteak (Chodzko-Zajko, 2014) ezarritako gidalerroak jarraituz sortu zen. Programa hau, norbanakoari egokituta, osagai anitzeko ariketez osatua eta intentsitate arin (% 40-50) eta moderatuan (% 60-70) antolatua zegoen. Indarraren intentsitatea interbentzioan zehar % 40-50etik % 70era, progresiboki handitzen joan zen, parte-hartzaileen tolerantziaren kontuan izanik. Hasierako asteetan (1-3 asteak), helburu nagusia teknikaren ikasketa eta familiarizazioa lortzea izan zen, horretarako, aurrez esan bezala, intentsitate arinak (% 40-50) erabiliz (ACSM, 2013). Berriz, hurrengo asteetako (4-12) helburua indarraren garapena zen eta hori lortzeko intentsitate moderatuak (% 60-70) erabili ziren. Beraz, esan genezake, indar egokitzapenak finkatzeko asmoz intentsitatea bi-hiru astero behin % 5-10 igo egin zela.

Entrenamendu programaren lehen hiru asteetan, egokitzapen fasean, ariketen familiarizazioa burutzeari ekin zitzaion. Bigarren astearen ondoren, pisu gehigarriak erabiltzen hasi ziren. Lan karga hori zehazteko, Brzycki ekuazioaren (Brzycki, 1993) bitartez errepikapen maximoaren (RM1) estimazio testa egin zen. Ondorengo asteetan, alegia 6. asterarte EMA-n eta 12. astearte ELA-n, bolumena eta intentsitatea progresiboki aurrez programatua zegoen bezala handitzen joan zitzaien.

$$\text{Brzycki ekuazioa} = \text{Pisua} \div [\, 1.0278 - (\, 0.0278 \times \text{Errepikapen kopurua}) \,]$$

Atal gainbegiratuan eginiko programa honelako egitura zuten saioez osatua zegoen:

Saioen hasieran 5-10 minutuko girotze aldi labur bat gauzatzen zen. Non, lepo, sorbalda, eskumutur, aldaka, belaun eta orkatilen mugikortasun artikularra lantzeko ariketak egiten ziren.

Atal nagusian indar, oreka zein gaitasun aerobikoa lantzen zen 30-40 minutuz. Indar entrenamenduan, goi zein behe adarrak lantzeko (beso-flexioa, belaun luzatze eta tolestea, aldaka luzatze, hanka abdukzio, oin eta orpo altxatze eta altxa-eseri) ariketak material zein pisu gehigarriarekin egiten ziren. Hauen intentsitateak lehen 3 asteetan RM1-etik % 40-50 ziren eta gainontzekoetan RM1-etik % 60-70 bitartekoak. Oreka entrenamenduari dagokionez, oreka estatiko zein dinamikoa lantzeko ariketak gauzatzen ziren. Hauen zailtasunak progresiboki esku euskarriak eta sostengu oinarriak txikituz edo kenduz eta mugimendu konplexuak gehituz garatu ziren. Alegia, oreka lantzeko ariketen kasuan, ariketa estatikoetatik hasita, ariketa dinamikoak sartuz mugimenduen konplexutasuna progresiboki handitzen joan zen. Lan aerobikoa gauzatzerako orduan zegoen espazio murritza zela eta, 10 edo 60m-ko itzuliak besterik ez ziren egiten. Hala ere, beti, saioetatik at ibiltzeko gomendatzen zitzaien.

Saioa amaitzeko, lasaitze zein erlaxazio aldi bat gauzatzen zen. Bertan, malgutasun ariketa bat aurrera eraman eta jarraian arnaste sakonen bitartez, erlaxazioa bilatzen zen.

Bertaratzeak saio guztietan jasotzen ziren horretarako sortutako Excel orri batean. Saio bat egina hartzen zen, ariketen % 80 edo gehiago eginez gero. 3. eranskinean atal gainbegiratuan eginiko saioen antolaketa eta ariketei buruzko informazio gehigarria ikusgai dago. Baita ere eranskin berean parte-hartzaile bakoitzari saioen kontrola eramateko egutegi adibide (6 astekoa) bat ageri da.

EMA-k eta ELA-k etxean gauzatu behar zuen programa, baita ere autoreek duten esperientzian oinarritzeaz gain, Otawa Exercise Programme (Campbell eta lank., 2003) eta European Vivifrail proiektuetan (Izquierdo eta lank., 2017) oinarritzen zen. Kasu honetan indarra, oreka (beti beste bizikide bat ondoan zutela) eta gaitasun aerobikoa lantzeko helburuarekin parte-hartzaile bakoitzari astekari bat (4. Eranskina) eman zitzaion. Bertan ariketa anitzeko bost saio eta gaitasun aerobikoa paseoen bitartez lantzeko 7 eguneko gomendioak agertzen ziren. Saio horiek beti atal gainbegiratuan landutako ariketaz osatuak zeuden eta ibiltzeko gomendio horiek 6 minutu ibiltzen testean oinarrituak zeuden. Gomendio horiek, programaren hasieran 15 minutu eguneko izatetik, bukaeran 45-60 minutu izatera pasa zitezkeen. Material gehigarria zuten partaideei intentsitate moderatuan (% 60) erabili beharreko pisua erabiltzeko adierazten zitzaien. Bestalde ariketak etxean zuten material zein bakoitzaren gorputz pisuarekin gauzatzeko pentsatuak zeuden.

Partaideek bi astetik behin telefono dei bat jasotzen zuten beraien zalantzak argitu eta ariketa zein paseoekiko atxikimendua jasotzeko asmoz. Kasu honetan, saioaren % 50a edo gehiago jorratuz gero, saioa egintzat ematen zen. 5. eranskinean bakarkako saioen ariketa sorta eta ibiltzeko gomendioei buruzko informazio gehigarria ikusgai dago.

3.4. Balorazioak

Balorazioak aukeratzerako garaian kontuan izan genuen, nola ez, test edo eskala balioztatu zein fidagarriak eta ahal bagenu eskala jarraiak dituzten test multzoak izatea. Prozeduran azaldutako pausuak kontuan izanik eta proiektu osoa gauzatuz gero parte-hartzaile guztiek bost balorazio epe desberdin izan zituzten (errekrutatzea, alta eguna eta 0.astea, 12. astea eta 24. astea), horretarako 6. eranskinean ikus daitekeen bezala hiru erregistro orri desberdin sortu genituen. Ikasketa prozesuaren ondorioz izandako hobekuntzak ekiditeko proba guztiak birritan gauzatu zituzten eta bietatik hoberena hautatu zen.

Neurketa guztiak ospitalean bertan egin ziren, aurretik aipatu bezala, lehenik bakoitzaren gelan eta gerora proiekturako zoriz banatu ostean horretarako espresuki

ospitaleak eskainitako eta moldatutako kontsultan. Bertan egoera fisikoko proba gehienak, hauskortasuna, gorputz-osaeraren neurketak, odol-ateratzeak, eta test neuropsikologikoak burutu ziren. Aldiz, ibilera abiadurako ohiko zein azkarreko probak eta 6 minutuko proba kontsulta zegoen hirugarren solairuko korridorean burutu genituen. Ondorengo lerroetan, proba hauek burutzeko erabilitako materiala zein prozedurak deskribatuko dira. Egoera zein jarduera fisikoa eta bizi-kalitatea neurtzeko erabilitako prozedurak deskribatuz hasiz. Ondoren, gorputz-osaera, nutrizio-egoera eta odol analisiak aztertzeko erabilitako prozedurekin jarraituz. Eta azkenik, ikerketa honetan erabilitako hauskortasuna, funtzio kognitiboa zein afektibitate-egoera neurtzeko erabili diren testekin bukatuz.

3.4.1. Egoera fisikoa

3.4.1.1. Short Physical Performance Battery (SPPB)

SPPB-a hirugarren adineko pertsonen behe gorputz-adarren funtzioa objektiboki neurtzeko helburua duen test multzo laburra da. Test multzo hau gaur egun hirugarren adineko pertsonen gaitasun fisikoak neurtzeko erreminta erabilienetakoa da. Guralnik eta lankideek 2000. urtean garatu zuten. Test multzo honek fidagarritasun oso altua dauka. Gaitasun funtzionaleko aldaketak zein desgaitasun-arriskua antzemateko sentikortasuna frogatua du. Alegia, “screening”-erako tresna baliagarria da, ospitaleko alta jaso ondoren emaitza txarrak lortzeko arrisku handia duten adinekoak identifikatzeko egokia izateaz gain. SPPB-ko puntuazio altuenek funtzio edo egoera fisiko hobea adierazten dute eta puntuazio txarrak ordea erorketa, eguneroko jarduerak burutzeko zailtasun, mugikortasun galera, desgaitasun, ospitalizazio, instituzionalizazio eta heriotzarekin lotu dira (Guralnik eta lank., 2000; Volpato eta lank., 2011).

SPPB-ak, orekaren ebaluazioa, ibileraren abiadura eta beheko gorputz-adarren indarra uztartzen ditu. Ebaluazioa ere hurrenkera horretan gauzatu behar da. Proba bakoitza 0-4ko eskalan kalifikatzen da, errendimendu osoaren puntuazio-tartea 0-12 puntukoa izanik (Guralnik eta lank., 2000). Erabilitako materiala honakoa izan zen: besaurrerik gabeko aulkia, kronometroa, zinta itsaskorra eta distantziak neurtzeko zinta metrikoa (20 m).

Oreka estatikoa:

Parte-hartzaileari hiru posiziotan 10 segundoz mantentzen saiatzeko eskatuko zitzaion: bi oinak elkarrekin, semi-tandem eta tandem posizioan. Atal honetan, lehenengo posizioa gauzatu ahal izanez gero, hurrengoa burutzen zen, baina posizioa mantendu ezin baitzuen, ez zen hurrengo posizioa burutzen.

5. Irudia: SPPB-ko oreka estatikoaren hiru posizioak. **Iturria:** Guralnik eta lank., 2000.

Puntuazioak: Parte-hartzaileak ez zuen punturik jasotzen 10 segundoz oinak elkartuta oreka mantentzeko gai ez bazen. Lortuz gero puntu bat ematen zitzaion, bi puntu semi-tandem posizioan mantentzagatik, hiru puntu tandem posizioan 3-9,99 segundoz mantenduz gero eta lau puntu tandem posizioan 10 segundoz oreka mantentzea lortzen bazuen. Beraz, puntuazio altuenak oreka estatiko hobea adierazten du.

Ibilera abiadura:

Parte-hartzaileari ohiko erritmoan lau metroko distantzia ibiltzeko eskatu zitzaion. Behar izango balu, parte-hartzaileak laguntza tresna (makulua, eskorga, bastoi...) erabili zezakeen. Parte-hartzaileak ibiltzeari ekiten zionean denbora neurtzen hasten zen eta berriz lau metroak igaro ostean denbora gelditzen zen. Atal hau bi aldiz burutu zuten eta bi aldietako denborarik onena hartu zen kontuan.



6. Irudia: SPPB-ko 4 metroko ibilera abiadura. **Iturria:** Guralnik eta lank., 2000.

Puntuazioak: Parte hartzaileak ez zuen punturik jasotzen lau metro oinez ibiltzeko gai ez bazen. Puntu bat jasotzen zuen 8,7 segundo edo gehiago behar izanez gero, bi puntu 6,21-8,79 segundo bitarte behar bazituen, hiru puntu 4,82-6,20 segundo bitarte behar izanez gero eta lau puntu 4,82 segundo baino gutxiago erabiltzen bazituen. Beraz puntuazio altuak ibilera abiadura azkarra adierazten du.

Altxa eta eseri:

Parte-hartzaileak aulkitik bost aldiz altxa eta esertzeko behar duen denbora jaso zen. Horretarako parte-hartzaileari proba hau besoak gurutzatuta mantentzeko eta ahalik eta azkarren egiten saiatzeko adierazi zitzaion. Errepikapen bat modu egokian gauzatzeko gai zela ziurtatu ostean, testa burutzeari ekiten zitzaion. Parte-hartzaileak aulkitik altxatzeari ekiten zionean denbora kontatzen hasten zen eta bosgarren aldiz guztiz altxatzean (zutik) denbora gelditzen zen. Proba bertan behera geratzen zen parte hartzaileak altxatzeko eskuak erabili edota minutu bat baino gehiago behar izanez gero.

7 Irudia: SPPB-ko 5 altxaldiak. **Iturria:** Guralnik eta lank., 2000.

Puntuazioak: Parte hartzaileak ez zuen punturik jasotzen minutu batean aulkitik bost aldiz altxatzeko gai ez bazen. Puntu bat jasotzen zuen 16,7 segundo baino gehiago behar baitzituen, bi puntu 13,70-16,69 segundo bitarte behar bazituen, hiru puntu 11,20-13,69 segundo bitarte behar izanez gero eta lau puntu 11,19 segundo baino gutxiago erabiltzen bazituen. Beraz, puntuazio altuak beheko gorputz-adarren indar handiagoa adierazten du.

3.4.1.2. Eskuko eta besaurreko indarra

Eskuko eta besaurreko indarra, osasunarekin lotuta dagoela frogatu da, zehazki, gaixotasun kardiobaskular, desgaitasun, morbilitate eta heriotzarekin Leong eta lank., 2015; Sayer eta Kirkwood, 2015). Horrez gain, esku eta besaurreko indarrak hirugarren adinean galera fisiko zein kognitiboa ebaluatzeko iragarpen balio moduan onartua dago (Rijk eta lank., 2016). Hala ere, ikerketa gehiagoren beharra azpimarratu dute eskuko eta besaurreko indarraren handitzeak zein eragin izan dezakeen ondorioztatzeko (Leong eta lank., 2015).

8. Irudia: Eskuko eta besaurreko indarraren neurketa. **Iturria:** Propioa

Parte-hartzailea besaurrerik gabeko aulki batean eserita egonik dinamometroa eskuarekin nola hartu behar zuen azaltzen zitzaion. Hots, dinamometroa eskuarekin eustean erdiko falangeekin indarra egin behar zuela eta ukondoa 90º-tara tolesturik zuela ahalik eta gehien estutzeko esan zitzaion. Proban parte-hartzaileek esku banarekin (dominantea zein ez-dominantea) bi saiakera burutu zituzten. Dinamometro digitala kilogramoetan (kg-tan) ezarria zegoen eta esku bakoitzeko

neurketarik hoberena (indar maximoa) hautatzen zen. Erabilitako materiala honakoa izan zen: Patterson Jamar Plus (Jamar, IL, USA) dinamometro digitala eta besaurrerik gabeko aulkia.

3.4.1.3. Senior Fitness Test (SFT)

SFT-a adineko pertsonen egoera fisikoa modu seguru eta praktikoan aztertzeko 2001ean Rikli eta Jones-ek, sorturiko test multzoa da. Test multzo honek zapi atalek osatzen dute, batera uztartu edo banaka erabili daitezkeenak. Gure kasuan atalak banaka erabiltzea erabaki genuen eta zazpi atal horietatik jarraian sakonago azalduko ditudan lau erabili genituen. SFT-a 60-94 urte bitarteko pertsona autonomo zein gaitasun fisiko eta funtzional desberdineko pertsonentzako egokia da. Gainera, test multzoak ematen dituen erreferentzia-baloreei esker (generoka eta bost urteko tarteak) ikerturiko parte-hartzaileen adin eta sexu bereko balore normalekin konpara ditzakegu (Rikli eta Jones, 2001). Erabilitako materiala honakoa izan zen: besaurrerik gabeko aulkia, kronometroa, emakumeentzat bost librako (2,27 kg) eta gizonentzat zortzi librakoa (3,63 kg) neoprenozko Valeo HW5 mankuernak, zinta itsaskorra, distantziak neurtzeko zinta metrikoa (20 m), distantziak mugatzeko konoak, eta Polar ft4 (Finlandia) pultsometroa.

Altxa eta eseri (30 segundotan): 30-s Chair-Stand Test

Atal honetan behe adarreko indarra (aulkitik altxatzeko gaitasuna) ebaluatu zen. Parte-hartzaileak bizkarra zuzen, oinak lurrean eta besoak bularrean gurutzatuta zituelarik besaurrerik gabeko aulkian eserita egon behar zen. Parte-hartzaileak eskuak gurutzatuta mantenduz, aulkitik altxatzeari ekin eta hasierako jarrerara bueltatu behar zen. Ekintza hori 30 segundotan ahal bezain bestetan errepikatu behar zuen. Proba ahoz garbi azaltzeaz gain, aulkia paretaren kontra jartzea eta ebaluatzailea parte-hartzailearen ondoan kokatzea komenigarria zen, desoreka edo erorketa arriskua ekiditeko. Parte-hartzaileari mugimendua probatzeko aukera ematen zitzaion.

Puntuazioa: Parte-hartzaileek 30 segundotan buruturiko altxa-eseri errepikapen kopurua jaso zen. Denbora amaitutakoan parte hartzaileak mugimenduaren erdia (zutik) edo gehiago burutu balu, errepikapen hori ontzat kontatzen zen. Bi saiakeretatik errepikapen gehien (kopuru maximoa) burutu zuen proba kontuan hartzen zen. Errepikapen kopuru handiak beheko gorputz-adarren indar handia adierazten du.

Beso-flexioa (30 segundotan): 30-s Arm-Curl Test

Atal honetan goi adarreko indarra ebaluatu zen. Parte-hartzailea paretaren kontra

kokaturiko aulkiaren erdialdean, bizkarra zuzen eta oinak lurrean jarrita zituelarik kokatzen zen. Emakumea izanez gero 2,27 kg-ko pisua erabiltzen zuen, gizonekin berriz 3,63 kg-koa. Proba beso eta esku dominantean gauzatu zen. Parte-hartzailea aurretiaz azalduriko posizioan egonik, pisua ongi ebaturik zuela, esku ahurra gorputzari begira jarri behar zuen hasierako posizioa osatuz. Horrela egonik, probari ekiten zion, pisua altxatzen hasi bezain pronto eskumuturra biratu behar zuen esku ahurra gora begira geratu arte. Ukondoaren flexioa, ahal izanez gero, pisua sorbaldaren altuerara igo arte egin behar zuen. Behin pisua igo ondoren, eskua hasierako puntura jaitsi behar zuen besoa luzatuaz eta eskumuturra aurreko posizio berera biratuz. Parte-hartzaileari ahoz mugimendu oso hau 30 segundoz ahal bezain bestetan errepikatzeko azaldu zitzaion. Ekintza nola egin garbi azaltzeaz gain, ebaluatzaileak parte-hartzailearen ondoan kokatzea komenigarria zen. Honela, probaren gauzatze egokirako parte-hartzaileak pisua igo zein jaisterakoan ukondoa mugitzen ez zuela ziurtatu eta pisua igo edo jaisterakoan sorbalda zein izterrean kolpeak ekiditeko. Parte-hartzaileari mugimendua probatzeko aukera ematen zitzaion.

Puntuazioa: Parte-hartzaileek 30 segundotan buruturiko altxaldi kopurua jasotzen zen. Denbora amaitutakoan parte hartzaileak mugimenduaren erdia (flexioa) edo gehiago burutu bazuen, errepikapen hori ontzat kontatzen zen. Bi saiakeretatik errepikapen gehien (kopuru maximoa) burutzen zena hartzen zen kontuan. Errepikapen kopuru handiak goiko gorputz-adarren indar handia adierazten du.

Sei minutuko proba (ibiltzen): 6-minute Walking Test

Atal honetan gaitasun aerobikoa edo erresistentzia ebaluatzen zen. Proba hau burutu ahal izateko leku zabal baten beharra dago, 4,57 x 18,38 metrokoa zehazki. Hori Santiago ospitalean gauza gaitza zenez, 6 minutuko proba, 30 metro luzerako espazioa beharrezkoa den aldaeran gauzatu zen. Beraz, proba 30 metro baino luzeagoa zen korridorea erabiliz egin zen. Bertan garrantzitsua izan zen zoru lau eta ez irristakorra izatea eta baita ere proba gauzatzen zen bitartean jendearen fluxua kontrolatzea. Aurrez, zinta itsaskorrarekin, ibilbidearen hasiera eta bukaera zein biraketak gauzatu behar ziren puntuak markatu ziren. Ibilbideak guztira 30 metroko luzera zuen eta kono bakoitzaren artean 29 metro zeuden. Mutur bakoitza eta bira eman behar zen konoaren artea 0,5 metroko distantzia zegoen norabide aldaketa (biraketa) segurtasunez egin ahal izateko. Parte-hartzaileari ahoz, 6 minututan zehar gauzatu beharreko ibilbidea (itzulia) ahal bezain bestetan errepikatzeko azaldu zitzaion. Proba nola egin garbi azaltzeaz gain, ebaluatzailea uneoro parte-hartzailearen ondoan kokatzea komenigarria zen. Alde batetik, parte-hartzaileak zenbat itzuli eman zituen eta bihotz maiztasuna kontrolatzen joateko. Itzuli

bakoitzeko denbora ere jasotzen zen. Eta beste alde batetik, hiru, lau eta bost minutuetan, parte-hartzaileari falta zen denbora adierazteko, azken honek ibilera abiadura kontrola zezan, proba ahalik eta azkarren ibiltzen egin behar baitzen. Sei minutuak igarotzean, parte-hartzaileari zegoen tokian geratzeko esaten zitzaion minutu bateko errekuperazioa egin zezan. Proba gauzatzeko beti bi ebaluatzaile zeuden, aurrez esan bezala jende fluxua kontrolatzeko eta parte-hartzailea gehiegi nekatzen bazen, berehala aulki bat gerturatu ahal izateko gerora atseden hartu ostean berriz ibiltzeari ekin edo proba amai zezan. Nahiz eta proba hau gauzatzeko ez zen beharrezkotzat jotzen, segurtasun neurri moduan, bihotz maiztasunaren kontrola eramateko pultsometroak erabili ziren. Baita ere, hasierako zein bukaerako bihotz maiztasunak eta Borg eskalaren (Borg, 1970) bitartez esfortzu kardiobaskular eta muskularra neurtu ziren.

Puntuazioa: Parte-hartzaileak 6 minututan eginiko distantzia totala (metrotan) kontuan hartu zen. Horretarako itzuli kopurua (60 metro) eta azken itzulian eginiko metroak batzen ziren. Itzuli kopuru handiak gaitasun aerobiko edo erresistentzia egokia adierazten du.

Altxa, ibili, bira eta eseri (2,44 metro): 8-Foot Timed Up and Go Test

Atal honetan oreka dinamikoa eta zalutasuna ebaluatzen ziren. Proba hau burutu ahal izateko aulki bat paretaren kontra kokatua zegoelarik, 2,44 metrotara kono bat ipini zen. Distantzia hori, aulkiaren aurreko ertzetik konoaren atzeko alboko distantzia zen. Proba ahalik eta azkarren egin behar zuten. Alegia, parte-hartzailea zutitu, konoraino ibiltzen joan, konoa inguratuz bira emanez norabidea aldatu eta berriz aulkian eseri behar zen. Parte-hartzaileak bizkarra zuzen, oinak lurrean eta besoak bularrean gurutzatuta edo eskuak izterretan zituelarik besaurrerik gabeko aulkiaren erdialdean eserita egon behar zen. Hasi aurretik, parte-hartzaileak gorputza pixka bat aurrealderantz inklinatu eta oin bat bestea baino aurrerago ipintzen zuen, ateratzeko prest egongo balitz bezala. Parte-hartzaileari testa ahoz azaltzeaz gain, erakustaldi bat egiten zitzaion zalantzan argitu asmoz. Ebaluatzailea proba burutzen zebilenaren ondoan joaten zen, honek oreka galduz gero erortzeko arriskua eteteko.

Puntuazioa: Parte-hartzaileak proba osatzeko erabilitako denbora (segundoetan) hartzen zen kontuan. Denbora parte-hartzaileak altxaldia ekiterakoan hasten zen kontatzen eta bukatu berriz aulkian esertzerakoan. Bi saiakeretatik denbora gutxien behar izan zuen probaren denbora jasotzen zen. Denbora gutxi behar izateak oreka dinamiko edota zalutasun hobea adierazten du.

3.4.1.4. Ibilera abiadura

Gaitasun funtzionalaren gainbehera gehienbat ibiltzeko gaitasunaren okertzeak dakar. Ibilera abiadura hirugarren adineko pertsonetan gaitasun funtzionalaren gainbehera antzemateko erabiltzen den ohiko test bat da (Cesari eta lank., 2005; Rosano eta lank., 2008; Cesari eta lank., 2009; Studenski eta lank., 2011). Komunitatean bizi diren adinduen ohiko ibilera abiadura < 1 m/s-koa dutenetan, osasunari loturiko ondorio kaltegarriak izateko arriskuan daudela frogatu da; hala nola hilkortasuna eta ospitalizazioak iragartzen ditu (Guralnik eta lank., 2000; Cesari eta lank., 2005). 0.8 m/s-ko ibilera abiadura hauskortasun-markagailu gorte-puntu bezala kontuan izateaz gain, abiadura horren beherako baloreak osasun egoera patologikoekin ere erlazionatzen dira (Montero-Odasso eta lank., 2004; Cruz-Jentoft eta lank., 2010; Studenski eta lank., 2011). Erabilitako materiala honakoa izan zen: kronometroa, zinta itsaskorra eta distantziak neurtzeko zinta metrikoa (20 m).

Parte-hartzaileak 10 metro ibili behar izan zituen, abiadura arruntean zein azkarrean gauzatzen zuten. Aldaera bakoitza birritan gauzatu zuten. Ibilbidean nahiz eta 10 metrokoa izan, denbora 4 edo 8 metro gauzatzeko behar izan zutena jaso zen. (Bohannon eta lank., 1996) Hasierako fasea, alegia, 1.go metroa eta azkenengo fasea, azken metroa, neurketatik kanpo utzi zen, azelerazioa zein dezelerazioa baitziren. Bi saiakeretatik parte-hartzaileak denbora gutxien behar izan zuen denbora jaso eta distantziarekin zatituz, ibilera abiadura kalkulatu zen.

3.4.1.5. Berg Oreka Eskala

Berg Balance Scale balioztaturik dagoen, 14 proba dituen eta oreka galera antzemateko gai den oreka test multzo bat da (Berg eta lank., 1992). Berg oreka test multzoak erorketak izango ez dituen pertsona aurreikusteko baliogarria dela frogatu da, nahiz eta ez den oraindik testeko puntuazioaren eta erorketa kopuruarekin lotura zuzenik frogatu (Bogle-Thorbahn eta Newton, 1996). Test multzoa gauzatzeko erabilitako materiala honakoa izan zen: besaurrerik gabeko aulkia, besaurredun aulkia, kronometroa, zinta itsaskorra, paretan itsasteko paperezko zinta metrikoa, step bat eta kono bat.

Esan bezala test multzo honek 14 proba desberdin ditu. Proba bakoitzean, parte-hartzaileari ahoz azaldu ostean demostrazio praktiko bat egiten zitzaion. Proba bakoitzak puntuazio zehatz bat du, 0 eta 4 bitartekoa izan daitekeena. Proba guztietako puntuak gehitu ziren puntuazio orokor bat izateko. Beraz puntuazioa baxuena 0 izan zitekeen eta altuena berriz 56. Puntuazio altuak oreka estatiko egokia adierazten du.

3.4.2. Jarduera edo aktibitate fisikoa

Osasun arloko ikerketak burutu eta osasun-egoera mantentzeko egokiak diren aholkuak helarazi ahal izateko jarduera fisikoaren neurketa jorratzea garrantzitsua da (Troiano eta lank., 2008; Bernard eta lank., 2018). Azelerometroen erabilpenarekin neurketa objektiboak egiteko gaitasuna dugu. Hauen bitartez jarduera fisikoaren kantitatea, maiztasuna, iraupena eta intentsitateari buruzko informazioaz gain denbora sedentarioa edota atseden denbora (loa) jaso daiteke (Migueles eta lank., 2017). Azelerometroa gerrian eta eskumuturrean jarri daiteke, baina gerrian jartzean emaitza zehatzagoak lortzen direla dirudi. Hala ere, gaur egun pertsona adinduetan eskumuturreko azelerometroekin jarduera fisikoa zein loa aztertu duten ikerketa gutxi daude (Migueles eta lank., 2017). Erabilitako materiala honakoa izan zen: wGT3XBT Actigraph azelerometroa, Actigraph konpainiako ActiLife analisi softwarea (6.11.9 bertsioa. Actigraph LLC, Pensacola, FL, USA) eta lo zein dutxa orduak apuntatzeko astekaria.

Adineko pertsonak ariketa fisikoko programetan atxikitzeko zailtasunak oso nabarmenak dira; hala ere, ospitalizazio osteko interbentzioetan parte hartzea eragozten duten ezaugarri klinikoei buruzko informazioa mugatua da (Deer eta lank., 2018). Gure ikerketak argi adierazten du helduek interes gutxi dutela ospitaleratze osteko ariketa fisikoko programetan parte hartzeko, eta parte ez hartzeko arrazoiak parametro fisiko, nutrizional eta sozialekin bat egiten dutela. Era berean, adinean gora egiteak, egoera nutrizional eskasa eta etxebizitzan irisgarritasun arazoak izateak, parte ez hartzearen iragarleak direla ere ondorioztatu da. Ariketa fisikoan oinarrituriko programa batean parte hartzeko oztopoetan zentratzen bagara, adierazi beharra dago ospitaleratze ondorengo programa gehienak bihotz eta odol hodietako edo biriketako errehabilitazioa jorratzen dauden gaixoetan egiten direla, edota aldaka zein belauneko ebakuntzaren ondoren (Benzo eta lank., 2015; Ruano-Ravina eta lank., 2016). Programa hauetan jasotako parte-hartze tasak (% 30-70), orokorrean, gure programarenak baino altuagoak dira (Benzo eta lank., 2015; Ruano-Ravina eta lank., 2016). Baliteke desberdintasun honen gakoa, aipaturiko tratamenduen ondoren, ariketa fisikoa errehabilitazioaren funtsezko zatitzat hartzen dela izatea. Hau gertatzen da European Society of Cardiology (Piepoli eta lank., 2010), American Thoracic Society, eta European Respiratory Society (Spruit eta lank., 2013) elkarteek ospitalizazio ostean, ariketa fisikoa oso gomendagarria dela diotelako, eta normalean horri eskerrak, pazienteek honelako programa batean parte hartzea onuragarritzat dute; eta ondorioz programan sartzea onartzen dute. Baina gure ikerketaren ospitaleratze arrazoi antzekoa (batez ere infekzioak) duten adineko pazienteei (geriatrikoei) dagokionez, esan beharra dago sarritan ez dutela esku-hartzea onuragarritzat hartzen. Egia da aurretiaz eginiko

ikerketetan parte-hartze tasa altuagoak izan zirela; hala ere, interbentzio horietako parte-hartzaileak, gure ikerketarekin alderatuz, zertxobait gazteagoak ziren (Brovold eta lank., 2013; Deer eta lank., 2018). Halaber, gure ikerketako partaidetza-tasa, komunitatean bizi ziren baina antzeko ezaugarriak zituzten hirugarren adinekoekin eginiko beste ikerlanetan emandakoaren antzekoa, % 7.3-13 bitarte, izan da (van der Deijl eta lank., 2014). Aipatzekoa da, gure ikerketan, pazienteen erdiek parte ez hartzeko arrazoi nagusia ariketa fisikorako interes falta izan zela. Interes falta hau adineko beste populazio heldu batzuen artean deskribatua ageria da, populazio honek ez baititu jarduera fisikoaren onura positiboak ezagutzen (Guerin eta lank., 2008; Chen, 2010). Adinduen populazioetan beste oztopo batzuk, hala nola gizarte-eragina edo izaera sozialagoa dutenak ere ageri dira, besteak beste, norbanakoaren estimulurik eza, muga fisikoak (mina edo eragozpenak) edo auto-efikazioa baxua (Hill eta lank., 2011; Ferguson eta lank., 2019). Horrexegatik, auzi hau dela eta, osasun-profesionalek pazienteei ospitaleratzearekin lotutako narriadura fisiko zein kognitiboei buruz informatzeko (Graf, 2006; Mathews eta lank., 2014), eta baita ospitaleratze baten ondorio kaltegarri horiek zuzentzeko ariketa fisikoaren onurei buruz informatzeko ere, funtsezko papera jokatu ahal izango dute (Martínez-Velilla eta lank., 2019). Arrazoi hauengatik, beharrezkoa da ospitalizazio ostean, tratamendu egituratu baten parte gisa, pazienteak aktiboki ariketa fisikoko programetan sar daitezen bultzatzea, eta noski, pazienteen pertzepzioak eta konpromiso-faktoreak populazio honentzako ariketa interbentzioak diseinatzerakoan kontuan hartzea.

Aurrez adierazitakoaz gain, konturatu ginen, etxeko irisgarritasun eskasa ariketa fisikoko programetan parte ez hartzeko faktore independentea zela. Emaitza hau beste ikerketa kualitatibo batzuekin bat dator, non irisgarritasun edota ingurumen oztopoek ariketa programetan atxikimendua lortzea eragozten duten (Franco eta lank., 2015). Normalean, irisgarritasun eskasa estatus sozioekonomiko baxuagoarekin lotuta dago, zein, osasun emaitza negatiboen iragarle garrantzitsuenetako bat den (Kollia eta lank., 2018). Gainera, ariketa-programan parte hartu nahi ez zutenen laurdenarentzat garraio arazoa erabaki horren arrazoi gisa helarazi zuten. Emaitza hau bat dator garraiorako sarbide eskasa oztopotzat definitzen duten beste ikerketa batzuekin, hau da, adineko pertsonak jarduera fisikoaren parte-hartzearen oztopo bezala (Franco eta lank., 2015). Hau dena kontuan izanik, ariketa fisikoko programetan egoera ekonomiko baxuagoa duten pertsonen parte-hartze handiagoa lortzeko eta bertaratu behar diren instalazioetara garraioa izateko zein erraztasun ekonomikoak emateko ahalegin bereziak egin behar direla argi geratu da.

Ospitale-altari aplikatutako osagai anitzeko ariketa fisikoko bi esku-hartzeek parte-hartzaileen funtzio fisiko- eta nutrizio-egoerari onura nabarmenak ekarri zizkieten, eta

ospitalizazioari lotutako gainbehera funtzionalari aurre egin zioten. Emaitzek iradokitzen dute, halaber, osagai anitzeko sei asteko ariketa fisikoa egitea nahikoa dela ospitalizazioarekin lotutako narriadura funtzional eta nutrizionala alderantzikatzeko eta/edo lehengoratzeko. Kontrol-talderik ez geneukala kontuan hartuta, baliteke, besterik gabe, ospitaleratu ondoren izandako hobekuntza fisikoak egoera akutua gainditzeagatik izana. Hala ere, aurretiazko ikerketek frogatu dute esku-hartze fisikorik ezean, SPPBren puntuazioa, ondorioz egoera funtzionala, ospitaleratu ondorengo hilabeteetan ez dela nabarmen hobetzen (Timonen eta lank., 2002; Vogler eta lank., 2009; Sherrington eta lank., 2014). SPPB-a ezgaitasun arriskua detektatzeko tresna baliagarria da (Guralnik eta lank., 2000), eta ospitaleko alta jaso ondoren emaitza eskasak izateko arrisku handia duten helduak identifikatzeko informazio pronostiko garrantzitsua ematen du (Volpato eta lank., 2011). Ikerketa honetan, bi esku-hartzeen lehen 12 asteetan SPPB-aren puntuazioa bi puntu inguru handitu zen (puntu bakarra klinikoki esanguratsua izanik) (Perera eta lank., 2006) eta hobekuntza hauek hurrengo 12 asteetan (etxean egin beharreko periodoa) mantendu ziren. Beraz bi esku-hartzeak jorratu ondoren eta funtzio fisikoan izandako hobekuntzak ikusirik, argi adierazi daiteke garaturiko programak ospitaleko alta jaso ondoren emaitza eskasak izateko arriskua murrizteko eraginkorrak direla.

Ospitalizazio ostean (alta eman ondoren) funtzio fisikoa leheneratzeko helburuarekin ariketa fisikoko programak ebaluatzen dituzten ikerketek, hauen jorratzearen onurei buruz, emaitza kontraesankorrak eman dituzte. Emaitzen kontraesan hori esku-hartze mota (talde saioak versus bakarkako saioak etxean) eta pazienteen patologiek azal lezakete. Gure emaitzak aurreko lanekin bat datoz; izan ere, talde saioetan oinarritutako osagai anitzeko programak ospitaleratzeari lotutako narriadura funtzionala hobetzeko edo leheneratzeko eraginkorrak dira (Timonen eta lank., 2002). Kontrara, etxean oinarritutako esku-hartzeek emaitza apalagoak erakusten dituzte (Vogler eta lank., 2009; Hill eta lank., 2015; Tsekoura eta lank., 2018). Etxean oinarritutako programetan funtzio fisikoan hobekuntza handiagoak lortzeko gainbegiratze maila garrantzitsua da (Hill eta lank., 2015; Lacroix eta lank., 2016; Tsekoura eta lank., 2018). Autore batzuen ustez, etxean oinarritutako programek indarrean duten eragin txikiagoa etxeko inguruneak intentsitate nahikoa duten programak jorratzeko sortzen dituen zailtasunetan oinarritzen da (Vogler eta lank., 2009). Hala eta guztiz ere, pazienteen funtzio fisikoan eta eguneroko bizimoduaren jardueretan berreskuratze edo hobekuntza onuragarriagoak izateko, ospitaleratze-aldian hasitako ariketa fisikoko esku-hartzea, etxean egindako batekin jarraitzea iradoki izan da (DeVito eta lank., 2003; Kosse eta lank., 2013). Etxean gauzatutako periodoan, taldean oinarritutako periodoan funtzio eta jarduera fisikoan lortutako hobekuntzak mantentzea lortu zen. Gure

emaitzak aurretiazko ikerlanekin bat datoz. Horien arabera, jarraipenerako etxera gauzaturiko bisitak eta telefono-deiak etxean oinarritutako esku-hartzeak betetzeko atxikimenduari eusteko eraginkorrak dira (Kosse eta lank., 2013; Tsekoura eta lank., 2018) .

Parte-hartzaile gehienak interbentzioaren hasieran malnutrizioa jasateko arriskuan zeuden bitartean, 12 asteren ondoren, nutrizio-egoera ona zutenek desnutrizio-arriskua zutenak gainditu zituzten, eta MNA testaren arabera, subjektu bakar bat zegoen desnutrizioan. Nutrizio-hobekuntza hori nabarmen mantendu zen hurrengo hiru hilabeteetan. Gure ezagutzarako, hau da lehen ikerlana ospitaleratze ondorengo esku-hartzeak MNA-n (egoera nutrizionala) dituen ondorioak deskribatzen dituena. Hala ere, beste populazio batzuetan egindako ikerketek egoera nutrizionala hobetzeko ariketa fisikoaren eraginkortasuna erakutsi dute (Timmerman eta lank., 2012). Gure emaitzek aurretik aipatutakoarekin antzekotasunak azaleratu dituzte, hots, bi taldeetako parte-hartzaileek esku-hartzearen amaieran nutrizio-egoera maila onargarri baten barruan bukatu zuten, beraz ariketa fisikoa ospitaleratu ondoren adineko helduen nutrizio-egoera hobetzeko tresna erabilgarria izan daitekeela iradokiz. MNA-ren hobekuntzak bereziki aipagarriak direla esan beharra dago, batez ere nutrizio-egoera zein funtzio fisikoan emaitza positiboak izateak (Blanc-Bisson eta lank., 2008; Dent eta lank., 2019), eguneko jarduerak murrizteak (Gill eta lank., 2010) eta parte-hartzaileen gizarte-isolamenduak (Robins eta lank., 2018) eragin ditzaketen emaitza kaltegarri batzuekin zerikusia duten faktoreen babesletzat hartzen direlako. Faktore horiek eragin negatiboa izan dezakete helduen autonomian eta bizi kalitatean, eta, askotan, ez dira hautematen. Taldeen artean bizi kalitatearen gaineko efektuetan desberdintasun txikiak egon dira. ELA-k 12 asteren buruan igoera nabarmena izan zuen, hain zuzen ere taldean oinarritutako aldia amaitu zenean. Aipatu beharra dago EMA-k sei aste lehenago amaitu zuela taldean oinarritutako programa. Aitzitik, ELA-n etxean oinarritutako aldian, bizi kalitateak behera egin zuen. Emaitza horiek iradokitzen dutenez, taldeetan oinarritutako esku-hartzeak etxean oinarritutakoak baino egokiagoak izan daitezke bizi kalitatea hobetzeko, minbizia duten (Buffart eta lank., 2017) pazienteetan eta sarkopenia duten adineko pertsonetan proposatzen den bezala (Tsekoura eta lank., 2018). Taldeko esku-hartzeetan gizarte-elementu bat egoteak desberdintasun hori azal lezake. Hala ere, gure emaitzetan talde-interakziorik ez dugunez lortu, edozein interpretazio egitearekin zuhurrak gara; datu gehiago behar dira behaketa hori argitzeko.

Bi esku-hartzeen eraginkortasuna funtzio fisiko eta nutrizio-egoeran zentratuz konparatzen dugunean, esan genezake epe luzeko adarra ez zela epe laburreko adarra baino eraginkorragoa izan. Ospitalean sei asteko talde saioak, eta, ondoren, etxean 18

asteko banakako saioak erakutsi zuten nahikoa zela goiko eta beheko gorputz-adarraren indarra, abiadura, oreka estatikoa eta dinamikoa, gaitasun funtzionala, erresistentzia aerobikoa, jarduera fisikoa eta nutrizio-egoera hobetzeko.

Hauskortasunari dagokionez, lehen 12 asteetan, ospitale-altari aplikatutako osagai anitzeko ariketa fisikoa egiteko bi esku-hatzeek onura esanguratsu eta baliokideak eman zituzten. Eta ondorioz gure esku-hartzeak ospitaleratu ondoko adineko pazienteentzat seguruak direla frogatu genuen. Emaitzek iradokitzen dute, halaber, ospitalizazioari lotutako narriadura funtzional eta nutrizionalean deskribatu dugun bezala, sei asteko iraupena duen talde saioak egitea nahikoa dela hauskortasuna leheneratzeko. Bi esku-hartzeek nabarmen murriztu zuten hauskortasuna. Hasieran, Fried-en Frailty Index arabera, 36 pazienteetatik 23 hauskorrak ziren eta, bukaeran (12.astea) hiruk bakarrik zuten hauskortasun-egoera. Hauskortasun irizpide bakoitza betetzen zuten pazienteen kopuruak ere behera egin zuen, EMA-n akiduran, moteltasunean eta jarduera baxuan eta ELA-n moteltasunean izan ziren murrizketa nabarmenenak. Ondorioz, 12 asteetan Fried-en indizearen batezbestekoa, hurrenez hurren EMA-n eta ELA-n % 56 eta % 64 murriztu zen.

Hauskortasuna sindrome multisistemiko konplexua da, eta sakonki aldatzen du pazienteak egoera akututik sendatzeko duen gaitasuna (De Biasio eta lank., 2020). Edadetu hauskorrak bereziki zaurgarriak dira ospitalizazioaren ondorio kaltegarrien aurrean, batez ere funtzio fisikoaren narriaduraren aurrean (Merchant eta lank., 2021). Gaitasunak gutxitze horrek altaren ondorengo hilabeteetan ere jarrai dezake (Chen eta lank., 2008]. Ildo horretatik jarraiki, eta epe luzera begiratuz, azterlan batek ikusi zuen altatik 3 hilabetera muskulu-masa, muskulu-indar eta pazienteen errendimendu fisikoak ez zituztela populazioaren batez besteko mailak lortzen (Aarden eta lank., 2020). Hori gutxi ez balitz, beste azterketa baten arabera, ospitaleratu eta urtebetera ere izandako gainbehera funtzonal hori mantendu daiteke (Gill eta lank., 2010). Beraz aurrez adierazi bezala, gure emaitzek erakutsi zuten ospitaleratu ondoko pazienteentan hauskortasuna lehengoratu daitekeela. Ondorio hori klinikoki garrantzitsua da, hauskortasun leunduak ospitalizazioarekin lotutako kontrako gertaeren arriskua murriztu baitezake, hala nola, berrospitaleratzeak, mendekotasuna, instituzionalizazioa eta baita heriotza ere. Aurretik beste aldagai fisiko batzuetan deskribatu bezala hauskortasunaren prebalentziaren murrizketan taldeen artean desberdintasunik lortu ez dugun arren, egia da moteltasunaren (martxaren abiadura) irizpidean taldeen arteko konparaketa ELA-ren alde dagoela. Horren arrazoia etxeko programetan funtzio fisikoan hobekuntza handiagoak lortzeko gainbegiratze-maila garrantzitsua dela izan daiteke (Lacroix eta lank., 2016; Tsekoura eta lank., 2018).

Sarkopeniari dagokionez, bi taldeetako batean ere ez zen hobekuntza nabarmenik lortu. Emaitza hauek bat datoz berriki argitaratu den argitalpen batean; autoreek ondorioztatu dutenez, badirudi ariketa fisikoko programak aplikatzeak sindrome horren ondorio nagusietako batzuk indargabetzen dituela, hala nola, indarra gutxitzea eta errendimendu fisikoa. Hala ere, probak ez dira aski muskulu-masan efektu bat dagoen edo ez bermatzeko (Escriche-Escuder eta lank., 2021). Sarkopeniaren trataeran baliteke ariketa fisikoa bera bakarrik nahikoa ez izatea; akaso horregatik osagai anitzeko ariketa-programak eta interbentzio nutrizionalak konbinatzea bultzatzen duten esku-hartze multimodalak eraginkorragoak izan daiteke (Cruz-Jentoft eta lank., 2017; Nascimento eta lank., 2019, Han eta lank., 2020).

Arreta parte-hartzaileak sarkopenirako hautagai gisa sailkatzeko bi irizpideetan jartzen badugu, bi taldeetan alde txiki bat ikusiko dugu. Hauskortasunaren ebaluazioan gertatu bezala, ez da heltzeko indarra hobetzea lortzen, baina gorputzaren behealdeko indarra hobetzeko joera positiboa dago. Hau izan liteke. izan ere, eskuaren eta besaurrearen euste-indarra ez delako adinekoentzako indar ariketa programa bati erantzunez muskulu-funtzioan gertatzen diren aldaketak ebaluatzeko neurri klinikoki garrantzitsu eta/edo baliagarria (Bourdel-Marchasson eta lank., 2001; Leenders eta lank., 2013). Osagai anitzeko ariketa eraginkorra izan liteke sarkopeniaren kasuan funtzio fisikoaren narriadurari aurre egiteko. Hala ere, ez dago argi ariketa-programa hori eraginkorra ote den sarkopenia duten pertsonen muskulu-masa handitzeko (Makizako eta lank., 2020 Escriche-Escuder eta lank., 2021). Gainera, DXA neurketan gure lagin-tamaina hauskortasunaren ebaluazioan baino txikiagoa izan da eta metodologia horren bidez gorputz-osaeran izandako 1,0 kg-tik beherako aldeak ezin dira hauteman (Tieland eta lank., 2012). Baliteke, interbentzioaren eragina eta zahartzearekin eta sarkopeniarekin lotutako muskulu-masaren eta muskulu-indarraren murrizketaren prebentzioa argitzeko, lagin-tamaina handiagokoak diren azterketa gehiago egin behar izatea.

Sarkopenia eta hasukortasuna alde batera utzi gabe, baina zehazki biomarkatzaileen bidez hauen identifikazioan murgilduta jarraituko dugu. Esan genezake, emaitzetan ikusten denez, hauskortasuna edo sarkopenia zuten parte-hartzaileetan miostatina kontzentrazio seriko txikiagoa izan zuteela, eta folistatina altuagoa zela hauskortasuna zutenetan. Erregresio-ekuazioek eta hartzailearen ezaugarri operatiboaren (ROC) kurbek adierazi zutenez, biomarkatzaile molekularrek baino ahalmen handiagoa zuten ibilera abiadura eta 8TUG (altxa, ibili, bira eta eseri) probek hauskortasuna identifikatzeko. Miostatina izan zen sarkopenia modu esanguratsuan identifikatzeko gai zen biomarkatzaile bakar ebaluatua.

Miostatinak eta folistatinak kontrako funtzioak dituzte: miostatinak muskulu eskeletikoan proteolisia handitu eta proteinen sintesia inhibitzen du (White eta lank.,

2014), eta folistatinak aldiz muskulu-hazkuntza sustatzen du (Lee eta lank., 2010). Gure emaitzak ez datoz bat proteina bakoitzaren funtzioarekin. Hain zuzen, miostatina eta hauskortasunaren edo sarkopeniaren artean erlazio/lotura negatiboa antzeman zen, eta folistatina eta hauskortasunaren arteko erlazio/lotura positiboa hauteman zen. Hori bat dator aurretiazko ikerketa batzuekin (Bergen eta lank., 2015; Liaw eta lank., 2016; Arrieta eta lank., 2019), baina ez beste batzuekin. Non, funtzio fisiko okerragoa zuten pertsonetan miostatina kontzentrazioa altua zen (White eta lank., 2014) eta erresistentzia-entrenamenduaren ondoren folistatina altuago eta miostatina baxuago zutela adierazi zen (Mafi eta lank., 2016).

Zirkulazio mailan muskulu-galera sindromea dituzten gaixoetan miostatina baxua eta folistatina altua identifikatu ziren; horrek adierazi lezake bi proteinek muskulu-galera handiagoa murrizteko barne-mekanismo batean parte har dezaketela (Mariot eta lank., 2017). Ildo horretatik joaz, zenbait autorek proposatu dute miostatinak “txalona” gisa joka dezakeela, aurkako egoera metabolikoei erantzuteko muskulu-hazkunde eskeletikoa murriztuz, eta hazkundea inhibitzeko beharrik ez dagoenean bere jarduera gutxituz (Fife eta lank., 2018).

Erregresio-ereduetan, proba fisikoen errendimenduak eta miostatinaren eta folistatinaren kontzentrazio serikoak hauskortasunarekin lotura erakutsi zuten. Hala ere, ROC kurben analisiaren arabera, bi biomarkatzaile molekularren kurba azpiko areak (AUC), bakarrik zein batera eta azterlan honetan zein beste batzuetan 8TUG edo ibilera abiadura probetan aurkitutakoak baino txikiagoak ziren (Pamoukdjian eta lank., 2015; Diez-Ruiz eta lank., 2016). Proba fisikoak aurrera eramateko sinpletasun eta kostu txikia kontuan hartuta, ez dirudi erabilitako biomarkatzaileek hauskortasun baheketan hauek ordezkatzerik izango dutenik. Hala ere, pazientearen egoera edo arrazoi logistikoak direla eta, ibilera abiadura edo 8TUG probak egiterik ez dagoenean, miostatinaren eta folistatinaren kuantifikazioa tresna erabilgarri zein lagungarria izan daiteke.

Azterlan honetan, sarkopenia identifikatzeko miostatina aldagai independente gisa eraikitako erregresio-eredua baino ez zen esanguratsua izan. Gainera, ROC kurbek miostatina-kontzentrazio baxuak sarkopenia identifikatzeko ahalmen onargarria eta sentikortasun handia duela erakutsi zuten. Gure analisian lortutako AUC-a aurretiazko ikerketetan interleuzina 6, makrofagoen migrazioaren faktore inhibitzaile eta intsulina bezalako hazkunde-faktorearentzako baino handiagoa izan zen; baina biomarkatzaile seriko horien konbinazioak lortutako AUC-aren antzekoa (Kwak eta lank., 2018). Beste autore batzuek ordea (Chang eta lan., 2017), adierazi dute sarkopenia iragartzeko irisinak ikerketa honetan miostatinari aurkituriko baino gaitasun handiagoa duela.

Ikerketa honetan hauskortasuna edo sarkopenia identifikatzeko aztertutako markatzaile molekular zein fisikoen espezifikotasunak bat datoz baldintza horien artean, batez ere muskulu-masarekin lotuta, desberdintasunak daudelako ideiarekin. Konkretuki, proba fisikoek hauskortasuna zehaztasun handiagoz identifikatu zuten bitartean, miostatina serikoaren kontzentrazioa (muskulu-hazkundearekin lotutako proteina bat), ebaluatutako aldagaietatik sarkopenia identifikatzen bakarra izan zen. Hauskortasunaren eta sarkopeniaren izaera multifaktoriala dela eta, seguruenik, biomarkatzaile konposatuen indizeek baldintza horiek goiz detektatzeko edozein biomarkatzaile indibidualek baino informazio gehiago emango lukete (Calvani eta lank., 2015; Cardoso eta lank., 2018). Zehazki, aktibina, GDF11 eta GDF15 biomarkatzaileak, TFG-β familiaren parte direnak eta muskulu-hazkundean parte hartzen dutenak, hauskortasun eta/edo sarkopeniaren baheketarako hautagai onak izan daitezke (White eta lank., 2014). Beraz, hauskortasuna eta/edo sarkopenia identifikatzeko interesgarria litzateke egiaztatzea ea proteina horien analisiak ere ikerketa honetan ebaluatutako biomarkatzaileen gaitasuna handitu dezaketen

5.1. MUGAK, INDARGUNEAK ETA ETORKIZUNERAKO PROPOSAMENAK

5.1.1. Ikerketako mugak

Alde batetik, ikerketa kontrol talderik gabe eraman zen aurrera, hori izan bagenu aukera izango genukeen ariketa fisikoa egiten ez duten pertsona nagusien emaitzekin konparatzeko. Eta are gehiago, talde kontrol hori izateak aukera emango liguke egoera akutu batean egon ostean eman diren hobekuntzak ziurtasunez programarenak edo berezkoak (egoera igaro delako) diren jakiteko.

Beste aldetik, ikerketa honetan dagoen partaide kopurua txikia da, batez ere ezezkoekin konparatzen baditugu, lehen zein bigarren mailako emaitzetan garrantzi estatistikoa lortzeko arazoak sortuz. Hala ere, argi izan behar dugu ospitalizaturik dauden pertsona nagusien errekrutamendua ez dela batere eginkizun erraza.

Horrez gain eta bukatzeko, nahiz eta funtzio fisikoko hainbat testek hobekuntzak sendoak izan zirela erakutsi, kontuan izan behar da esku-hartzean erabilitako ariketetako batzuk lehen mailako emaitzen antzekoak direla.

5.1.2. Indarguneak eta etorkizuneko proposamenak

Ikerketa proiektu honen indarguneei dagokienez, ez dugu ahaztu behar ikerketa gutxik aztertu dituztela ospitalizazioaren ondoren adineko pertsonekin (beraien tratamenduaren barne egon gabe) ariketa-programek zer nolako eragina duten. Baita ere adierazgarria da aipatzea, ikerketa hau ospitalizazio ostean adinduekin osagai anitzeko eta aldi desberdinak (taldekako saioak ospitalean + etxean bakarkako ariketak) bateratu dituen ariketa programa bat aurrera eraman duen lehen ausazko entsegu klinikoa izan dela.

Ikerketa honetan lortutako emaitzek beste artikulu zientifiko zein ikerketa batzuk sustatzeko aukera sortzen dute. Lehenengo eta behin, jaso diren beste aldagai gehiago aztertzea (elikadura, loa, odol analitikak, depresio eta kognizio eskalak…) interesgarria izango litzateke. Bigarrenik, osagai anitzeko ariketa fisikoko programak eraginkorrak direla ikusi da; baina ez dakigu zenbatera irauten duten hobekuntza horiek edota egonkortzen diren ere. Beraz oso interesgarria izango litzake parte-hartzaileei jarraipen bat (follow-up) egitea. Baina jarraipen hori baiezkoa zein ezezkoa eman zutenetan egitea oraindik ere garrantzitsuagoa da beraien artean desberdintasunik dagoen edo ez ikusteko. Azkenik, esku-hartze goiztiarrak beharrezkoak direla ikasi ahal izan dugu, beraz etorkizuneko beste lerro bat ere litzateke erantzun denbora egokiena zein den aztertzea. Hots, ospitalizazioan zehar eta alta ostean osagai anitzeko ariketa programa bat gauzatzen dituzten bi talde aztertu eta beraien artean konparatu erantzun denbora goiztiarrena eta egokiena zein den ikusteko.

6.

ONDORIOAK

CONCLUSIONS

6. ONDORIOAK / CONCLUSIONS

1. Ikerketa-proiektu honek, ospitalizatu ondoko ariketa fisikoko programa batean pertsona helduek parte-hartze txikia dutela berretsi egin du. Parte ez hartzea adin handiagoarekin, nutrizio-egoera txarrarekin eta etxeko irisgarritasun txikiagoarekin lotuta dago. Ahalegin handiak egin behar dira ariketa fisikoko programetan parte hartzea handitzeko, bereziki parte hartzeko joera txikiena duten populazioetan. Gure aurkikuntzek ariketaren programa onuragarrietan adineko pazienteen parte-hartzea handitzeko faktore horiek kontuan hartuko dituen esku-hartze diseinu baten beharra azpimarratzen dute.

2. Ikerketa-proiektu honetan, ospitalizazioari lotutako narriadurari aurre eginez, ospitale-altan aplikatutako eta taldean zein etxean egindako luzera desberdinetako osagai anitzeko ariketa fisikoko bi esku-hartzeren onurak alderatu ditugu. Bi esku-hartze horiek eraginkorrak direla erakutsi dute. Aurkikuntza horietan oinarrituta, beti ere biak etxean hogeita lau aste bete arte irauten dutenean, taldean egindako sei asteko ariketa fisikoko esku-hartzeak hamabi astekoaren antzeko onura funtzionala eta nutriziolanak sortu zituela zehaztu dugu.

3. Bestalde, ikerketa-proiektu honek ospitaleratu ondoren hirugarren adineko pertsonen hauskortasun eta sarkopenian hamabi astez osagai anitzeko bi esku-hartzeren eraginkortasuna konparatu du. Taldean oinarritutako sei asteko osagai anitzeko ariketa fisikoko esku-hartze bat hauskortasuna aldatzeko nahikoa dela zehaztu dugu. Baina sarkopeniaren tratamenduan eta prebentzioan eragina argitzeko, lagin handiagoekin ikerketa gehiago behar direla ondorioztatu dugu. Baita ere, populazio hauskor eta sarkopenikoa, talde- edota etxe-ingurunean ariketa-programa bati erantzuteko gai dela frogatu dugu.

4. Azterlan honen arabera, miostatina hauskortasunarekin eta sarkopeniarekin negatiboki lotzen da, eta follistatina, berriz, hauskortasunarekin positiboki. Miostatina ospitaleratu osteko hirugarren adineko pertsonetan sarkopenia identifikatzeko biomarkatzaile erabilgarria izan daiteke. Haatik, hauskortasuna identifikatzeko proba fisikoek baino gaitasun txikiagoa dauka. Lagin handiagoko eta miokina horiek beste biomarkatzaile batzuekin batera erabiliz azterlan gehiago egitea justifikatzen dela frogatu dugu.

5. Aplikagarritasunari dagokionez aipatu, aurkikuntza hauek ospitalizazio bati jarraiki ariketa fisikoko programa batean adinekoen helgarritasuna eta parte hartzea handitzeko estrategiak islatzen dituztela. Era berean, emaitza horiek ospitaleratu ondoren adinekoek egin ditzazketen ariketa fisikoko interbentzio praktiko, egingarri eta errentagarriak diseinatzeko informazio baliotsua ematen dute.

1. This study confirms low participation of older adults in a post-hospitalization physical exercise program. Non-participation was associated with increased age, poor nutritional status, and reduced home accessibility. Efforts are needed to increase participation in physical exercise programs, specifically in populations that are less prone to participate. Our findings support the need for intervention design that accounts for these factors to increase older patient participation in beneficial exercise programs.

2. In this research project, we compared the benefits of two multicomponent physical exercise interventions implemented at hospital discharge with different group- and home-based period lengths, combating the decline associated with hospitalization in older adults. Both interventions have demonstrated their effectiveness and based on these findings, we determined that six weeks of a group-based exercise intervention caused similar functional and nutritional benefits to a longer group-based intervention of twelve weeks, when both are continued at home until twenty-four weeks.

3. On the other hand, this research project has compared during twelve weeks the effectiveness of two multi-component intervention on frailty and sarcopenia among older adults after hospitalization. We determined that a six-week group-based multicomponent exercise intervention is sufficient to reverse frailty, but further studies using larger samples are warranted to clarify the effect of treatment and prevention of sarcopenia. In addition, it has been shown that frail and sarcopenic population is capable of responding to an exercise program whether in a group-based or a home-based setting.

4. The present study shows that whereas myostatin was negatively associated with frailty and sarcopenia, follistatin was positively associated with frailty. Myostatin may be a useful biomarker for sarcopenia in post-hospitalised older adults. However, it has a lower capability for identifying frailty than physical tests. Further studies using larger samples and these myokines together with other biomarkers are warranted.

5. In terms of implementation, these findings inform strategies to improve accessibility and increase older adult participation in physical exercise programs following hospitalization. Likewise, these results provide valuable information for the design of practical, feasible, and cost-efective physical exercise interventions following hospitalization in older adults.

7.

BIBLIOGRAFIA

BIBLIOGRAPHY

7. BIBLIOGRAFIA / BIBLIOGRAPHY

Aarden, J. J., Reijnierse, E. M., van der Schaaf, M., van der Esch, M., Reichardt, L. A., van Seben, R., Bosch, J. A., Twisk, J., Maier, A. B., Engelbert, R., Buurman, B. M., eta Hospital-ADL study group (2021). Longitudinal Changes in Muscle Mass, Muscle Strength, and Physical Performance in Acutely Hospitalized Older Adults. Journal of the American Medical Directors Association, 22(4), 839–845.e1. https://doi.org/10.1016/j.jamda.2020.12.006

ACSM: American College of Sports Medicine (2009). American College of Sports Medicine position stand. Progression models in resistance training for healthy adults. Medicine and science in sports and exercise, 41(3), 687–708. https://doi.org/10.1249/MSS.0b013e3181915670

ACSM: American College of Sports Medicine. (2013). ACSM's guidelines for exercise testing and prescription. Baltimore, USA: Lippincott Williams & Wilkins.

Aranha, A., Smitherman, H. C., Jr, Patel, D., eta Patel, P. J. (2020). Association of Hospital Readmissions and Survivability With Frailty and Palliative Performance Scores Among Long-Term Care Residents. American Journal of Hospice and Palliative Care, 37(9), 716–720. https://doi.org/10.1177/1049909120907602

Arrieta, H., Hervás, G., Rezola-Pardo, C., Ruiz-Litago, F., Iturburu, M., Yanguas, J. J., Gil, S. M., Rodriguez-Larrad, A., eta Irazusta, J. (2019). Serum Myostatin Levels Are Higher in Fitter, More Active, and Non-Frail Long-Term Nursing Home Residents and Increase after a Physical Exercise Intervention. Gerontology, 65(3), 229–239. https://doi.org/10.1159/000494137

Arrieta, H., Rezola-Pardo, C., Zarrazquin, I., Echeverria, I., Yanguas, J. J., Iturburu, M., Gil, S. M., Rodriguez-Larrad, A., eta Irazusta, J. (2018). A multicomponent exercise program improves physical function in long-term nursing home residents: a randomized controlled trial. Experimental gerontology, 103, 94-100. https://doi.org/10.1016/j.exger.2018.01.008

Bäck, M., Jivegård, L., Johansson, A., Nordanstig, J., Svanberg, T., Adania, U. W., eta Sjögren, P. (2015). Home-based supervised exercise versus hospital-based supervised exercise or unsupervised walk advice as treatment for intermittent claudication: a systematic review. Journal of rehabilitation medicine, 47(9), 801–808. https://doi.org/10.2340/16501977-2012

Badia, X., Roset, M., Montserrat, S., Herdman, M., eta Segura, A. (1999). The Spanish version of EuroQol: a description and its applications. European Quality of Life scale. Medicina clinica, 112 Suppl 1, 79-85.

Benzo, R., Wetzstein, M., Neuenfeldt, P., eta McEvoy, C. (2015). Implementation of physical activity programs after COPD hospitalizations: Lessons from a randomized study. Chronic respiratory disease, 12(1), 5–10. https://doi.org/10.1177/1479972314562208

Berg, K. O., Wood-Dauphinee, S. L., Williams, J. I., eta Maki, B. (1992). Measuring balance in the elderly: validation of an instrument. Canadian journal of public health= Revue canadienne de sante publique, 83 Suppl 2, S7-S11.

Bergen, H. R., 3rd, Farr, J. N., Vanderboom, P. M., Atkinson, E. J., White, T. A., Singh, R. J., Khosla, S., eta LeBrasseur, N. K. (2015). Myostatin as a mediator of sarcopenia versus homeostatic regulator of muscle mass: insights using a new mass spectrometry-based assay. Skeletal muscle, 5, 21. https://doi.org/10.1186/s13395-015-0047-5

Bernard, P., Doré, I., Romain, A. J., Hains-Monfette, G., Kingsbury, C., eta Sabiston, C. (2018). Dose response association of objective physical activity with mental health in a representative national sample of adults: A cross-sectional study. PloS one, 13(10), e0204682. https://doi.org/10.1371/journal.pone.0204682

Bertschi, D., Kiss, C. M., Beerli, N., eta Kressig, R. W. (2021). Sarcopenia in hospitalized geriatric patients: insights into prevalence and associated parameters using new EWGSOP2 guidelines. European journal of clinical nutrition, 75(4), 653–660. https://doi.org/10.1038/s41430-020-00780-7

Biomarkers Definitions Working Group. (2001). Biomarkers and surrogate endpoints: preferred definitions and conceptual framework. Clinical pharmacology and therapeutics, 69(3), 89-95. https://doi.org/10.1067/mcp.2001.113989

Blanc-Bisson, C., Dechamps, A., Gouspillou, G., Dehail, P., eta Bourdel-Marchasson, I. (2008). A randomized controlled trial on early physiotherapy intervention versus usual care in acute care unit for elderly: potential benefits in light of dietary intakes. The journal of nutrition, health & aging, 12(6), 395–399. https://doi.org/10.1007/BF02982673

Blazer, D. G., Yaffe, K., eta Karlawish, J. (2015). Cognitive aging: a report from the Institute of Medicine. Journal of the American Medical Association, 313(21), 2121-2122. https://doi.org/10.1001/jama.2015.4380

Bogle-Thorbahn, L. D., eta Newton, R. A. (1996). Use of the Berg Balance Test to predict falls in elderly persons. Physical therapy, 76(6), 576–585. https://doi.org/10.1093/ptj/76.6.576

Bohannon, R. W., Andrews, A. W., eta Thomas, M. W. (1996). Walking speed: reference values and correlates for older adults. Journal of orthopaedic & sports physical therapy, 24(2), 86-90. https://doi.org/10.2519/jospt.1996.24.2.86

Borg, G. (1970). Perceived exertion as an indicator of somatic stress. Scandinavian Journal of Rehabiitationl Medicine.

Bouillon, K., Kivimaki, M., Hamer, M., Sabia, S., Fransson, E. I., Singh-Manoux, A., Gale, C. R., eta Batty, G. D. (2013). Measures of frailty in population-based studies: an overview BMC geriatrics, 13, 64. https://doi.org/10.1186/1471-2318-13-64

Bourdel-Marchasson, I., Joseph, P. A., Dehail, P., Biran, M., Faux, P., Rainfray, M., Emeriau, J. P., Canioni, P., eta Thiaudière, E. (2001). Functional and metabolic early changes in calf muscle occurring during nutritional repletion in malnourished elderly patients. *The American journal of clinical nutrition*, *73*(4), 832–838. https://doi.org/10.1093/ajcn/73.4.832

Bradley, C. (2013). Trends in hospitalisations due to falls by older people, Australia. Canberra (AUST): Australia Institute of Health and Welfare. Retreived from: https://core.ac.uk/download/pdf/30676566

Brady, A. O., Straight, C. R., eta Evans, E. M. (2014). Body composition, muscle capacity, and physical function in older adults: an integrated conceptual model. Journal of aging and physical activity, 22(3), 441-452. https://doi.org/10.1123/japa.2013-0009

Brovold, T., Skelton, D. A., eta Bergland, A. (2013). Older adults recently discharged from the hospital: effect of aerobic interval exercise on health-related quality of life, physical fitness, and physical activity. Journal of the American Geriatrics Society, 61(9), 1580–1585. https://doi.org/10.1111/jgs.12400

Brzycki, M. (1993). Strength testing—predicting a one-rep max from reps-to-fatigue. Journal of physical education, recreation & dance, 64(1), 88-90.

Buffart, L. M., Kalter, J., Sweegers, M. G., Courneya, K. S., Newton, R. U., Aaronson, N. K., Jacobsen, P. B., May, A. M., Galvão, D. A., Chinapaw, M. J., Steindorf, K., Irwin, M. L., Stuiver, M. M., Hayes, S., Griffith, K. A., Lucia, A., Mesters, I., van Weert, E., Knoop, H., Goedendorp, M. M., … Brug, J. (2017). Effects and moderators of exercise on quality of life and physical function in patients with cancer: An individual patient data meta-analysis of 34 RCTs. Cancer treatment reviews, 52, 91–104. https://doi.org/10.1016/j.ctrv.2016.11.010

Cadore, E. L., Rodríguez-Mañas, L., Sinclair, A., eta Izquierdo, M. (2013). Effects of different exercise interventions on risk of falls, gait ability, and balance in physically frail older adults: a systematic review. Rejuvenation research, 16(2), 105-114. https://doi.org/10.1089/rej.2012.1397

Calvani, R., Marini, F., Cesari, M., Tosato, M., Anker, S. D., von Haehling, S., Miller, R. R., Bernabei, R., Landi, F., Marzetti, E., eta SPRINTT consortium (2015). Biomarkers for physical frailty and sarcopenia: state of the science and future developments. Journal of cachexia, sarcopenia and muscle, 6(4), 278–286. https://doi.org/10.1002/jcsm.12051

Campbell, A.J., Robertson, M. eta Clare. (2003). Otago Exercise Programme to Prevent Falls in Older Adults. Retrieved from: https://hfwcny.org/hfwcny-content/uploads/Otago_Exercise_Programme-Revised.pdf

Campbell, S. E., Seymour, D. G., eta Primrose, W. R. (2004). A systematic literature review of factors affecting outcome in older medical patients admitted to hospital. Age and ageing, 33(2), 110-115. https://doi.org/10.1093/ageing/afh036

Cardoso, A. L., Fernandes, A., Aguilar-Pimentel, J. A., de Angelis, M. H., Guedes, J. R., Brito, M. A., Ortolano, S., Pani, G., Athanasopoulou, S., Gonos, E. S., Schosserer, M., Grillari, J., Peterson, P., Tuna, B. G., Dogan, S., Meyer, A., van Os, R., eta Trendelenburg, A. U. (2018). Towards frailty biomarkers: Candidates from genes and pathways regulated in aging and age-related diseases. Ageing research reviews, 47, 214–277. https://doi.org/10.1016/j.arr.2018.07.004

Carone, G. (2005). Long-term labour force projections for the 25 EU Member States: A set of data for assessing the economic impact of ageing. European Commission Economic Paper, (235). Brussels, Belgium.

Casas-Herrero, A., eta Izquierdo, M. (2012). Physical exercise as an efficient intervention in frail elderly persons. Anales del Sistema Sanitario de Navarra. Gobierno de Navarra, Departamento de Salud. 35(1), 69–85. https://doi.org/10.4321/s1137-66272012000100007

Cesari, M., Kritchevsky, S. B., Newman, A. B., Simonsick, E. M., Harris, T. B., Penninx, B. W., Brach, J. S., Tylavsky, F. A., Satterfield, S., Bauer, D. C., Rubin, S. M., Visser, M., Pahor, M., eta Health, Aging and Body Composition Study (2009). Added value of physical performance measures in predicting adverse health-related events: results from the Health, Aging And Body Composition Study. Journal of the American Geriatrics Society, 57(2), 251–259. https://doi.org/10.1111/j.1532-5415.2008.02126.x

Cesari, M., Kritchevsky, S. B., Penninx, B. W., Nicklas, B. J., Simonsick, E. M., Newman, A. B., Tylavsky, F. A., Brach, J. S., Satterfield, S., Bauer, D. C., Visser, M., Rubin, S. M., Harris, T. B., eta Pahor, M. (2005). Prognostic value of usual gait speed in well-functioning older people--results from the Health, Aging and Body Composition Study. Journal of the American Geriatrics Society, 53(10), 1675–1680. https://doi.org/10.1111/j.1532-5415.2005.53501.x

Cesari, M., Landi, F., Vellas, B., Bernabei, R., eta Marzetti, E. (2014). Sarcopenia and physical frailty: two sides of the same coin. Frontiers in aging neuroscience, 6, 192. https://doi.org/10.3389/fnagi.2014.00192

Chang, J. S., Kim, T. H., Nguyen, T. T., Park, K. S., Kim, N., eta Kong, I. D. (2017). Circulating irisin levels as a predictive biomarker for sarcopenia: A cross-sectional community-based study. Geriatrics & gerontology international, 17(11), 2266–2273. https://doi.org/10.1111/ggi.13030

Charlson, M. E., Pompei, P., Ales, K. L., eta MacKenzie, C. R. (1987). A new method of classifying prognostic comorbidity in longitudinal studies: development and validation. Journal of chronic diseases, 40(5), 373–383. https://doi.org/10.1016/0021-9681(87)90171-8

Charlson, M., Szatrowski, T. P., Peterson, J., eta Gold, J. (1994). Validation of a combined comorbidity index. Journal of clinical epidemiology, 47(11), 1245–1251. https://doi.org/10.1016/0895-4356(94)90129-5

Chen Y. M. (2010). Perceived barriers to physical activity among older adults residing in long-term care institutions. Journal of clinical nursing, 19(3-4), 432–439. https://doi.org/10.1111/j.1365-2702.2009.02990.x

Chen, C. C., Wang, C., eta Huang, G. H. (2008). Functional trajectory 6 months posthospitalization: a cohort study of older hospitalized patients in Taiwan. Nursing research, 57(2), 93–100. https://doi.org/10.1097/01.NNR.0000313485.18670.e2

Chodzko-Zajko, W. J. (2014). Exercise and physical activity for older adults. Kinesiology Review, 3(1), 101-106.

Chumlea, W. C., Roche, A. F., eta Steinbaugh, M. L. (1985). Estimating stature from knee height for persons 60 to 90 years of age. Journal of the American Geriatrics Society, 33(2), 116–120. https://doi.org/10.1111/j.1532-5415.1985.tb02276.x

Cichocki, M., Quehenberger, V., Zeiler, M., Adamcik, T., Manousek, M., Stamm, T., eta Krajic, K. (2015). Effectiveness of a low-threshold physical activity intervention in residential aged care–results of a randomized controlled trial. Clinical interventions in aging, 10, 885-895 https://doi.org/10.2147/CIA.S79360

Crimmins, E. M., eta Beltrán-Sánchez, H. (2011). Mortality and morbidity trends: is there compression of morbidity?. The journals of gerontology. Series B, Psychological sciences and social sciences, 66(1), 75–86. https://doi.org/10.1093/geronb/gbq088

Cruz-Jentoft, A. J., Baeyens, J. P., Bauer, J. M., Boirie, Y., Cederholm, T., Landi, F., Martin, F. C., Michel, J. P., Rolland, Y., Schneider, S. M., Topinková, E., Vandewoude, M., Zamboni, M., eta European Working Group on Sarcopenia in Older People (2010). Sarcopenia: European consensus on definition and diagnosis: Report of the European Working Group on Sarcopenia in Older People. Age and ageing, 39(4), 412–423. https://doi.org/10.1093/ageing/afq034

Cruz-Jentoft, A. J., Bahat, G., Bauer, J., Boirie, Y., Bruyère, O., Cederholm, T., Cooper, C., Landi, F., Rolland, Y., Sayer, A. A., Schneider, S. M., Sieber, C. C., Topinkova, E., Vandewoude, M., Visser, M., Zamboni, M., eta Writing Group for the European Working Group on Sarcopenia in Older People 2 (EWGSOP2), and the Extended Group for EWGSOP2 (2019). Sarcopenia: revised European consensus on definition and diagnosis. Age and ageing, 48(1), 16–31. https://doi.org/10.1093/ageing/afy169

Cruz-Jentoft, A. J., Kiesswetter, E., Drey, M., eta Sieber, C. C. (2017). Nutrition, frailty, and sarcopenia. Aging clinical and experimental research, 29(1), 43–48. https://doi.org/10.1007/s40520-016-0709-0

De Biasio, J. C., Mittel, A. M., Mueller, A. L., Ferrante, L. E., Kim, D. H., eta Shaefi, S. (2020). Frailty in Critical Care Medicine: A Review. Anesthesia and analgesia, 130(6), 1462–1473. https://doi.org/10.1213/ANE.0000000000004665

Deer, R. R., Dickinson, J. M., Fisher, S. R., Ju, H., eta Volpi, E. (2016). Identifying effective and feasible interventions to accelerate functional recovery from hospitalization in older adults: A randomized controlled pilot trial. Contemporary clinical trials, 49, 6-14. https://doi.org/10.1016/j.cct.2016.05.001

Deer, R. R., Dickinson, J. M., Baillargeon, J., Fisher, S. R., Raji, M., & Volpi, E. (2019). A Phase I Randomized Clinical Trial of Evidence-Based, Pragmatic Interventions to Improve Functional Recovery After Hospitalization in Geriatric Patients. The journals of gerontology. Series A, Biological sciences and medical sciences, 74(10), 1628–1636. https://doi.org/10.1093/gerona/glz084

Deer, R. R., Goodlett, S. M., Fisher, S. R., Baillargeon, J., Dickinson, J. M., Raji, M., eta Volpi, E. (2018). A Randomized Controlled Pilot Trial of Interventions to Improve Functional Recovery After Hospitalization in Older Adults: Feasibility and Adherence. The journals of gerontology. Series A, Biological sciences and medical sciences, 73(2), 187–193. https://doi.org/10.1093/gerona/glx111

Dent, E., Kowal, P., eta Hoogendijk, E. O. (2016). Frailty measurement in research and clinical practice: A review. European journal of internal medicine, 31, 3–10. https://doi.org/10.1016/j.ejim.2016.03.007

Dent, E., Hoogendijk, E. O., Visvanathan, R., eta Wright, O. (2019). Malnutrition Screening and Assessment in Hospitalised Older People: a Review. The journal of nutrition, health & aging, 23(5), 431–441. https://doi.org/10.1007/s12603-019-1176-z

de Souto Barreto, P., Morley, J. E., Chodzko-Zajko, W., H Pitkala, K., Weening-Djiksterhuis, E., Rodriguez-Mañas, L., Barbagallo, M., Rosendahl, E., Sinclair, A., Landi, F., Izquierdo, M., Vellas, B., Rolland, Y., eta International Association of Gerontology and Geriatrics – Global Aging Research Network (IAGG-GARN) and the IAGG European Region Clinical Section (2016). Recommendations on Physical Activity and Exercise for Older Adults Living in Long-Term Care Facilities: A Taskforce Report. Journal of the American Medical Directors Association, 17(5), 381–392. https://doi.org/10.1016/j.jamda.2016.01.021

De la Iglesia Martínez, J., Dueñas Herrero, R., Onís Vilches, M. C., Aguado Taberné, C., Albert Colomer, C., eta Luque Luque, R. (2001). Adaptación y validación al castellano del cuestionario de Pfeiffer (SPMSQ) para detectar la existencia de deterioro cognitivo en personas mayores de 65 años [Spanish language adaptation and validation of the Pfeiffer's questionnaire (SPMSQ) to detect cognitive deterioration in people over 65

years of age]. Medicina clinica, 117(4), 129–134. https://doi.org/10.1016/s0025-7753(01)72040-4

Del Pozo-Cruz, J., Magaña, M., Ballesteros, M., Porras, M., Rodríguez Bíes, E., Navas, P., eta López-Lluch, G.. (2013). Influence of functional capacity on lipid profile, muscle damage and biochemical profile among community-dwelling elderly-people. Revista Andaluza de Medicina del Deporte, 6(2), 57-65. Retrieved from: http://scielo.isciii.es/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S1888-75462013000200003&lng=es&tlng=es.

Deutz, N., Ashurst, I., Ballesteros, M. D., Bear, D. E., Cruz-Jentoft, A. J., Genton, L., Landi, F., Laviano, A., Norman, K., eta Prado, C. M. (2019). The Underappreciated Role of Low Muscle Mass in the Management of Malnutrition. Journal of the American Medical Directors Association, 20(1), 22–27. https://doi.org/10.1016/j.jamda.2018.11.021

DeVito, C. A., Morgan, R. O., Duque, M., Abdel-Moty, E., eta Virnig, B. A. (2003). Physical performance effects of low-intensity exercise among clinically defined high-risk elders. Gerontology, 49(3), 146–154. https://doi.org/10.1159/000069168

Diez-Ruiz, A., Bueno-Errandonea, A., Nuñez-Barrio, J., Sanchez-Martín, I., Vrotsou, K., eta Vergara, I. (2016). Factors associated with frailty in primary care: a prospective cohort study. BMC geriatrics, 16, 91. https://doi.org/10.1186/s12877-016-0263-9

Echeverria, I., Amasene, M., Urquiza, M., Labayen, I., Anaut, P., Rodriguez-Larrad, A., Irazusta, J., eta Besga, A. (2020). Multicomponent Physical Exercise in Older Adults after Hospitalization: A Randomized Controlled Trial Comparing Short- vs. Long-Term Group-Based Interventions. International journal of environmental research and public health, 17(2), 666. https://doi.org/10.3390/ijerph17020666

Elia, M., eta Stratton, R. (2004). On the ESPEN guidelines for nutritional screening 2002. Clinical nutrition (Edinburgh, Scotland), 23(1), 131–132. https://doi.org/10.1016/j.clnu.2003.09.016

Escriche-Escuder, A., Fuentes-Abolafio, I. J., Roldán-Jiménez, C., eta Cuesta-Vargas, A. I. (2021). Effects of exercise on muscle mass, strength, and physical performance in older adults with sarcopenia: A systematic review and meta-analysis according to the EWGSOP criteria. Experimental gerontology, 111420. Advance online publication. https://doi.org/10.1016/j.exger.2021.111420

Ethgen, O., Beaudart, C., Buckinx, F., Bruyère, O., eta Reginster, J. Y. (2017). The future prevalence of sarcopenia in Europe: a claim for public health action. Calcified tissue international, 100(3), 229-234. https://doi.org/10.1007/s00223-016-0220-9

Eustat. (2014). Osasunaren Panorama 2014. Retrieved from: https://eu.eustat.eus/elementos/ele0012300/Osasunaren_panorama_2014_35MB/inf0012374_e.pdf

Eustat. (2018). Euskal AEko emakumeen bizi-itxaropena (86,2 urte) altuena da 28-EB osoan. Retrieved from: https://eu.eustat.eus/elementos/ele0015400/Euskal_AEko_emakumeen_bizi-itxaropena_862_urte_altuena_da_28-EB_osoan/not0015471_e.html

Eustat. (2018b). Piramide interaktiboak. Retrieved from: https://eu.eustat.eus/indic/indicadoresgraficosvistapir.aspx?idgraf=522

Eustat. (2018d). Euskal AEk 2061ean 28.800 biztanle gehiago eduki litzake. Retrieved from: https://eu.eustat.eus/elementos/Euskal_AEk_2061ean_28800_biztanle_gehiago_eduki_litzake/not0015236_e.html

Eustat. (2019). Euskal AEko jaiotza-tasa EB-28ko batez bestekoaren oso azpitik dago. Retrieved from: https://eu.eustat.eus/elementos/ele0016600/Euskal_AEko_jaiotza-tasa_EB-28ko_batez_bestekoaren_oso_azpitik_dago/not0016676_e.html

Florida aretoa, 1. solairua
AUO Santiago

3. solairua, B pabiloia
AUO Santiago
15 kontsulta
Tel.: 945007728

Gomendio hauek Araba ESIk eta Euskal Herriko Unibertsitateak kolaboratzen duten “Intervención integral en Sarcopenia & Fragilidad” proiektuaren barne ezarriak daude.

Proiektuaren izenburua honakoa izanik: “Efectos de un programa de ejercicio y suplementación nutricional sobre la masa muscular, capacidad funcional y cognitiva y la calidad de vida en personas mayores de 75 años de edad: Estudio aleatorizado controlado”.

Kodea 2016111138

Ospitalizazioan jarduera fisikoa egiteko gomendioak

Osakidetza
ARABA ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA ARABA

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

1. MAILA

Esku-haurrean pilota bigun bat eutsi, pilota estutu eta eutsi segundu batzuetan.

Ohean etzanda belaunak tolestu. Pesak (botilak) izter gainean ezarri eta besoak luzatuta mantenduz sorbalden altuerara igo.

Ohean etzanda, belaunak tolestu. Eskuekin lagunduta, belauna bularralderantz eraman. Ariketa hau bi hankarekin egizu.

10 – 12 aldiz errepikatu ariketa bakoitza
Hanken eta besoen ariketak tartekatu.
Egunean zehar errepikatu ariketa bakoitza

2. MAILA



Ondo eserita, bizkarra zuzen eta oinak lurrean dituzula, mantendu pesak (botilak) izter gainean besoak luzaturik dituzula.
Besoak sorbalden altuerara igo.

Ondo eserita, bizkarra zuzen eta oinak lurrean dituzula, oina lurretik altxatu (izterra igo gabe), belauna zuzen mantendu.

Ondo eserita, bizkarra zuzen eta oinak lurrean dituzula, oinak puntilletan jarri eta jarraian orpoak bajatu eta puntak altxatu (punta-orpoa).

3. MAILA

Aulkia eskuekin eutsita duzula, bizkarra aurreratu. Sorbaldak zuzen dituzula, gorputza erabili aulkitik altxatzeko.



Zutik jarri aulki/mahai bateri eutsita oreka mantentzeko. Belauna tolestu oina lurretik altxatuz eta gluteora eraman.

Egunean zehar hainbat aldiz ibili oinetako egokia jantzita (zapata itxiak).

Laguntza behar baduzu erabili ezazu (taka-taka, makulua, muleta).

Osakidetza
ARABA ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA ARABA

SESIÓN INFORMATIVA SOBRE CÓMO MANTENER LA MOVILIDAD Y AUTONOMÍA DURANTE EL INGRESO HOSPITALARIO Y EN EL HOGAR

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

CHARLAS DIRIGIDAS A:

- Pacientes
- Familiares
- Cuidadores
- Personal sanitario
- Interesados

DÍA: Todos los miércoles hasta junio de 2018.
HORA: 12:00.

LUGAR: 1ª planta - Pabellón B - Sala Florida - HUA Santiago

Proyecto de Intervención Integral en Sarcopenia & Fragilidad (2016111138)

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

Osakidetza
ARABA ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA ARABA

ERIETXEKO EGONALDIAN ZEHAR ETA ETXEAN MUGIKORTASUNA ETA AUTONOMIA MANTENTZEAREN INGURUKO SAIO INFORMATIBOA

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

NORENTZAT:

- Pazienteak
- Senideak
- Zaintzaileak
- Osasun zerbitzuko langileak
- Interesatuak

EGUNA: Asteazken guztietan 2018ko ekaina arte.
ORDUA: 12:00.

LEKUA: 1. solairuan – B pabiloia – Florida aretoa - AUO Santiago

Proyecto de Intervención Integral en Sarcopenia & Fragilidad (2016111138)

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

3. ERANSKINA:

Talde-saioak eta egutegia

3. APPENDIX:

Group sessions and timetable

OSPITALEAN EGITEKO ARIKETAK

GIROTZE ALDIA (5-10 MINUTU)

MUGIKORTASUN ARTIKULARRA

- LEPOA:
  - Burua gora eta behera mugitu, eta jarraian ezker eta eskuinera.
- SORBALDA:
  - Gora eta behera mugitu.
- BESOAK:
  - Eskuekin belaunak eta sorbaldak ukituz
- ESKUAK:
  - 5 segundoz pilota bat estutuz esku batekin zein birekin
- HANKAK:
  - Belaunak igo eta jaitsiz (eserita)
  - Oin puntak eta orpoak igo eta jaitsiz (zutik)

ATAL NAGUSIA (30-40 MINUTU)

INDARRA

EGOKITZAPEN FASEAN, lehenengo hiru asteetan, 4-5 ariketa egin ziren, 2 serie eta 8-12 errepikapenarekin. Indar entrenamendua, egin ahal zuten indar maximoaren (RM1) %40-50-eko intentsitatean hasi zuten. Kargaren bolumena eta intentsitatea handitzen joan ziren parte hartzaileen arabera. Serieen artean 1-3 minututako atsedena izan zuten. Ariketa batzuetan, ariketaren konplexutasuna zela eta, ez zen material gehigarririk erabili. Beste ariketa batzuetan ordea exekuzio abiaduran aldaketak gauzatu ziren potentzia lantzeko asmoz.

INDAR GARAPENAREN FASEAN, laugarren astetik hamabigarren astera bitarte ariketa berberak gauzatu ziren, bakoitzean 8-12 errepikapeneko 2 serie eginez intentsitate moderatuan, alegia RM1-ko %60-70.

- BESO-FLEXIOA (Bizepsa)
  - Asteko bi saioetan eta pisu gehigarriarekin egiten zen
  - Aurretik aipatutako printzipioetan oinarrituta intentsitatea doitu zen.
    - 1-3 asteak: % 40-50 eta 4-12asteak: % 60-70


- ALTXA ETA ESERI
    - Asteko bi saioetan eta pisu gehigarririk gabe egiten zen.
    - Kasu honetan intentsitateari dagokionez progresioa honela gauzatu genuen. <RM1-eko proba egitean 10 errepikapen baino gehiago burutzen zituzten parte-hartzaileetan, serie bakoitzean 10 errepikapen burutu zituzten bukaeran 12ra iritsi arte. Beti ariketaren kontrola zutenean ahalik eta azkarren burutzeko azpimarratzen zitzaien. Aldiz, RM1-ko proban 10 errepikapen edo gutxiago burutu ahal zituztenak, programak zehazten zuen intentsitatearen arabera doitzen zitzaien errepikapen kopurua. Exekuzio abiadurari dagokionez gaitasun hori lantzeko zuten parte-hartzaileetan egoera kontzentrikoan potentzia mugimendua gauzatzen zuten eta eszentrikoan mugimendu arina.


- BERNA (PUNTA-ORPO)
    - Asteko bi saioetan eta pisu gehigarririk gabe egiten zen.
    - Kasu honetan beroketaren azken ariketa izan arren indar garapenaren fasean exekuzio abiadurari dagokion aldaera sartu zen. Gaitasun hori lantzeko teknika kontrol egokia zuten parte-hartzaileetan egoera kontzentrikoan potentzia mugimendua gauzatzen zuten eta eszentrikoan mugimendu arina.
- GLUTEO MUSKULU ERTAINA
    - Asteko lehen saioan eta pisu gehigarririk gabe egiten zen.
    - Interbentzioa doitzeko egin genuen proba pilotuan zein gure aurretiko esperientzian oinarrituz pisu gehigarri gabe burutzea erabaki genuen. Denek 10 edo 12 errepikapen burutu zituzten.
- BELAUN TOLESTEA (ISKIOTIBIALA)
    - Asteko lehen saioan eta pisu gehigarriarekin egiten zen.
    - Aurretik aipatutako printzipioetan oinarrituta intentsitatea doitu zen.
        - 1-3 asteak: %40-50
        - 4-12 asteak: % 60-70

- GLUTEO MUSKULU HANDIA
    - Asteko bigarren saioan eta pisu gehigarririk gabe egiten zen.
    - Interbentzioa doitzeko egin genuen proba pilotuan zein gure aurretiko esperientzian oinarrituz pisu gehigarri gabe burutzea erabaki genuen. Denek 10 edo 12 errepikapen burutu zituzten.


- BELAUN LUZATZEA (KOADRIZEPS)
    - Asteko bigarren saioan eta pisu gehigarriarekin egiten zen.
    - Aurretik aipatutako printzipioetan oinarrituta intentsitatea doitu zen.
        - 1-3 asteak: %40-50
        - 4-12 asteak: % 60-70


<u>OREKA</u>

- LEHENENGO FASEAN, lehenengo hiru asteetan, helburu nagusia ariketen ezagutza eta eserita zein zutik (beti euskarrien bitartez) bakoitzaren konfiantza areagotzea izan zen. Oreka estatikoa zutik landu zen, eta oreka dinamikoa, eserita. Saio bakoitzean 2 edo 3 oreka ariketa burutzen ziren.
- BIGARREN FASEAN, laugarren astetik hamabigarren astera bitarte, aurretiko oreka ariketak zailtzen joateaz gain beste berri batzuk gehitu ziren. Fase honetan, oreka

estatikoa eta dinamikoa zutik landu genituen. Saio bakoitzean laupabost ariketa burutu ziren.

- Oreka estatikoa zutik:
  - Asteko lehen zein bigarren saietan gauzatzen ziren. Beti ere beharrezkoa ikusiko bagenu euskarriaren laguntza erabiltzen zen.
    - Lehen saioa: Bi oinak elkarrekin eta semi-tandem.
    - Bigarren saioa: Tandem eta oin bakarrean (monopodal) mantenduz.
  - Ariketa honen zailtasuna, bigarren fasean euskarrien kentzearekin edo beste aldaerak sartuz (begi bat edo biak itxita) gauzatu zen.


- Oreka dinamikoa eserita:
  - Lehen fasearen asteko lehen saioan gauzatzen zen
  - Parte-hartzaileak bata bestearen parean eserita zeudela kideari baloia pasa (bota ez) behar zioten. Pixkanaka bata bestearen lekutik urrutiago jarrita 10-15 errepikapen egiten zituzten
  - Ariketa hau bigarren fasean zutik binaka edo taldeka borobilean gauzatu zen.
- Oreka dinamikoa zutik:
  - Lehen fasean asteko bigarren saioan gauzatu zen.
    - Lehen saioa: Parte-hartzaileak step baten aurrean zutik daudelarik, oin bat eta gero bestea step-aren gainean jarri behar zuten (euskarriaren laguntzaz beharrezkoa ikusiko bagenu).
  - Bigarren fasean ariketa berriak eta aurrez eserita egin zirenak gehitu ziren. Beraz oreka dinamikoa bi saioetan landu zen.
    - Bigarren saioa: Baloia taldekideei aurrez aurre edo borobilean pasa behar diete (beti euskarri bat hurbil izanik).
    - Lehen eta bigarren saioa: Parte-hartzaileek hainbat bira dituzten zirkuitu motz batzuk egin behar zituzten.

LAN AEROBIKOA

Atal hau ospitaleko korridorean zein saioa ematen zen gelan lantzen zen. Ibilaldi motz zein ertainak egiten ziren. Distantziak ez zirenez luzeak gehienez 60 eta gutxienez 10 metroko itzuliak lantzen ziren, beti arrisku guztiak ekidinez eta oinezko abiadura desberdinekin (arina eta azkarra). Baita ere ibiltzeko gomendioak ematen zitzaizkien.

LASAITZE/ERLAXAZIO ALDIA (5-10 MINUTU)

MALGUTASUNA

Pilota bat hartu eta hau mugituz pixkanaka oin puntara eramanez. Tinkotasun edo deserosotasun arina (minik ez) nabaritzen zuten puntuan geratu, eta bertan 20-30 segundoz jarrera mantendu behar zuten. Arnasketa ez zen eutsi edo blokeatu behar (apneak). Honako hau hanka bakoitzarekin bi hiru aldiz gauzatu behar zuten.

ERLAXAZIO ARIKETAK

Begiak itxi eta arnasketa sakonak burutu beti ere erlaxatzeko helburuarekin.

Arabako Unibertsitate Ospitalea

2017ko Abendua (Gasteiz)

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
27	28	29	30	1	2	3
4	5 10:45 SAIOA	6	7 10:45 SAIOA	8	9	10
11	12 10:45 SAIOA	13	14 10:45 SAIOA	15	16	17
18	19 10:45 SAIOA	20	21 10:45 SAIOA	22	23	24
25	26 10:45 SAIOA	27	28 10:45 SAIOA	29	30	31

Arabako Unibertsitate Ospitalea

2018ko Urtarrila (Gasteiz)

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
1	2 10:45 SAIOA	3	4 10:45 SAIOA	5	6	7
8	9 10:45 SAIOA	10	11 10:45 SAIOA	12 AZELEROMETROAK	13	14
15	16 AZELEROMETROAK	17	18	19 PROBA FISIKOAK	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31	1	2	3	4

4. ERANSKINA:

Etxean egiteko ariketen astekaria

4. APPENDIX:

Weekly home activities timetable

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
Eskuko indarra 8. orrialdea	**Eskuko indarra** 8. orrialdea	**Eskuko indarra** 8. orrialdea	**Eskuko indarra** 8. orrialdea	**Eskuko indarra** 8. orrialdea	**Eskuko indarra** 8. orrialdea	**Malgutasuna** 30-35 orrialdeak
Eskumuturreko indarra 1kg 12. orrialdea	**Bernako indarra** 14 eta 15. orrialdeak	**Sorbaldako indarra 1kg** 9 eta 10.orrialdeak	**Bernako indarra** 14 eta 15. orrialdeak	**Eskumuturreko indarra 1kg** 12. orrialdea	**Sorbaldako indarra 1kg** 9 eta 10.orrialdeak	**Oreka** Gainbegiratzearekin! 22-26 orrialdeak
Bicepseko Indarra 4kg 11.orrialdea	**Gluteo handiko indarra** 16. orrialdea	**Bernako indarra** 14 eta 15.orrialdeak	**Gluteo handiko indarra** 16. orrialdea	**Bicepseko Indarra 4kg** 11.orrialdea	**Bernako indarra** 14 eta 15. orrialdeak	**Malgutasuna** 30-35 orrialdeak
Bernako indarra 14 eta15.orrialdeak	**Hankako indarra** 21. orrialdea	**Gluteo ertaineko indarra** 17. orrialdea	**Hankako indarra** 21. orrialdea	**Bernako indarra** 14 eta 15. orrialdeak	**Oreka** Gainbegiratzearekin! 22-26 orrialdeak	
Gluteo ertaineko indarra 17. orrialdea	**Kuadrizepseko indarra** 18. orrialdea	**Hankako indarra** 21. orrialdea	**Kuadrizepseko indarra** 18. orrialdea	**Gluteo ertaineko indarra** 17. orrialdea	**Malgutasuna** 30-35 orrialdeak	
Hankako indarra 21. orrialdea	**Oreka** Gainbegiratzearekin! 22-26 orrialdeak	**Ad/Abduktoreen indarra** 20. orrialdea	**Oreka** Gainbegiratzearekin! 22-26 orrialdeak	**Hankako indarra** 21. orrialdea		
Iskiotibialeko indarra 19. orrialdea	**Malgutasuna** 30-35 orrialdeak	**Malgutasuna** 30-35 orrialdeak	**Malgutasuna** 30-35 orrialdeak	**Iskiotibialeko indarra** 19. orrialdea		
Malgutasuna 30-35 orrialdeak				**Malgutasuna** 30-35 orrialdeak		
M. Aerobikoa Ibili/Bizikleta: 45 minutu (Erritmo normalean) 27-29. orrialdeak	**M. Aerobikoa** Ibili/Bizikleta: 45 minutu (Erritmo normalean) 27-29. orrialdeak	**M. Aerobikoa** Ibili/Bizikleta: 45 minutu (Erritmo normalean) 27-29. orrialdeak	**M. Aerobikoa** Ibili/Bizikleta: 45 minutu (Erritmo normalean) 27-29. orrialdeak	**M. Aerobikoa** Ibili/Bizikleta: 45 minutu (Erritmo normalean) 27-29. orrialdeak	**M. Aerobikoa** Ibili/Bizikleta: 45 minutu (Erritmo normalean) 27-29. orrialdeak	**M. Aerobikoa** Ibili/Bizikleta: 45 minutu (Erritmo normalean) 27-29. orrialdeak

LUNES	MARTES	MIÉRCOLES	JUEVES	VIERNES	SÁBADO	DOMINGO
Fuerza de manos página 8	**Fuerza de manos** página 8	**Fuerza de manos** página 8	**Fuerza de manos** página 8	**Fuerza de manos** página 8	**Fuerza de manos** página 8	**Flexibilidad** paginas 30-35
Fuerza Muñeca 1kg página 12	**Fuerza Pantorrila** páginas 14 y 15	**Fuerza Hombros 1kg** página 9 y 10	**Fuerza Pantorrila** páginas 14 y 15	**Fuerza Muñeca 1kg** página 12	**Fuerza Hombros 1kg** página 9 y 10	**Equilibrio** ¡con supervisión! paginas 22-26
Fuerza Biceps 4kg página 11	**Fuerza Glúteo Mayor** página 16	**Fuerza Pantorrila** páginas 14 y 15	**Fuerza Glúteo Mayor** página 16	**Fuerza Biceps 4kg** página 11	**Fuerza Pantorrila** páginas 14 y 15	**Flexibilidad** paginas 30-35
Fuerza Pantorrila páginas 14 y 15	**Fuerza Pierna** página 21	**Fuerza Glúteo Medio** página 17	**Fuerza Pierna** página 21	**Fuerza Pantorrila** páginas 14 y 15	**Equilibrio** ¡con supervisión! paginas 22-26	
Fuerza Glúteo Medio página 17	**Fuerza Cuadrizeps** página 18	**Fuerza Pierna** página 21	**Fuerza Cuadrizeps** página 18	**Fuerza Glúteo Medio** página 17	**Flexibilidad** paginas 30-35	
Fuerza Pierna página 21	**Equilibrio** ¡con supervisión! paginas 22-26	**Fuerza Add/Abductores** página 20	**Equilibrio** ¡con supervisión! paginas 22-26	**Fuerza Pierna** página 21		
Fuerza Isquiotibial página 19	**Flexibilidad** paginas 30-35	**Flexibilidad** paginas 30-35	**Flexibilidad** paginas 30-35	**Fuerza Isquiotibial** página 19		
Flexibilidad paginas 30-35				**Flexibilidad** paginas 30-35		
M. Aeróbico Paseo/Bicicleta: 45 minutos (Ritmo normal) paginas 27-29	**M. Aeróbico** Paseo/Bicicleta: 45 minutos (Ritmo normal) paginas 27-29	**M. Aeróbico** Paseo/Bicicleta: 45 minutos (Ritmo normal) paginas 27-29	**M. Aeróbico** Paseo/Bicicleta: 45 minutos (Ritmo normal) paginas 27-29	**M. Aeróbico** Paseo/Bicicleta: 45 minutos (Ritmo normal) paginas 27-29	**M. Aeróbico** Paseo/Bicicleta: 45 minutos (Ritmo normal) paginas 27-29	**M. Aeróbico** Paseo/Bicicleta: 45 minutos (Ritmo normal) paginas 27-29

5. ERANSKINA:

Bakarkako saioetako ariketa eta gomedioak (etxean)

5. APPENDIX:

Exercises and recommendations for individual sessions (home-based period)

ETXEAN EGITEKO ARIKETAK

JARDUERA FISIKOA. GOMENDIOAK

Gomendio hauek Arabako Unibertsitate Ospitaleak eta Euskal Herriko Unibertsitateak kolaboratzen duten "Intervención integral en Sarcopenia & Fragilidad" proiektuaren barne daude. Proiektuaren izenburua honakoa izaki: *"Efectos de un programa de ejercicio y suplementación nutricional sobre la masa muscular, capacidad funcional y cognitiva y la calidad de vida en personas mayores de 75 años de edad: Estudio aleatorizado controlado "*

Orrialde hauetan aurrera eraman ahal izateko gomendio batzuk adierazi nahi dizkizuegu.

Ospitalizazioan zehar, etxean edo zure bizitokian berauek jorratzera animatzen zaituztegu.

Giharrak indartu eta hauen erresistentzia hobetzeko balio dute. Baita ere oreka eta egoera kardiobaskularra hobetuko dira.

Zure baliabide zein gaitasunetan konfiantza emango dizu, eta horrek epe luzera bizi-kalitate hobeagoa ekarriko dizu.

Aurkezpena

- Indar zein gihar kopuru galerak beste hainbat gauzen artean egunerokotasuneko jardueren murriztea, erorietarako arriskua areagotzea eta autonomia zein independentzia galtzea dakar.
- Gihar funtzioaren galera eta narriaduran jarduera fisiko eza eta sedentarismoa faktore erabakigarriak dira.

Frogatuta dago jarduera fisikoa areagotzeak:

- Indar eta egoera fisikoa mantentzen zein hobetzen laguntzen duela.
- Oreka hobetzen eta beraz eroriak saihesten laguntzen duela.
- Diabetesa, osteoporosia edo bihotz gaitzak maneiatzen eta hobetzen laguntzen duela.
- Egoera animikoa, memoria eta ongizate orokorra hobetzen laguntzen duela.
- Depresio sentipenak murrizten laguntzen duela.
- Egunerokotasuneko jarduerak, hala nola, aulkitik altxa eseri, eskailerak igo, jantzi, dutxatu, poteak ireki edota ilobekin jolastea errazagoak izatera laguntzen duela.
- Desio diren eguneroko gauzak egitea errazten duela.

Aldaketa txikiek ere norbanakoaren funtzioan diferentziak lor ditzakete, ondorioz baita autonomian ere.

Programa egoki gauzatu ahal izateko aholkuak:

- Mina: Ariketak gauzatzen zabiltzan bitartean ez duzu inolako min artikular edo muskular ezgaiturik nabaritu behar.
- Eremua/Tokia: Eroriak prebenitzeko edota arriskua murriztu zein ezabatzeko ariketak gauzatu behar diren tokia/eremua egokia izan behar da. Arrisku oztopoak kendu.
- Elementu eta materiala: Segurtasun handiena ematen dizuten material zein elementuak (aulki, mahai, botila, pisu eta abar) erabili.
- Arropa eta oinetakoak: Arropa eroso eta oinetako egokiak (oin-zola ez irristakorrak eta orpoan sostengu egokia) erabili.
- Arnasketa: Normal arnastu, ariketak egiten zabiltzan bitartean arnasketa ez blokeatzea oso garrantzitsua da. Diafragma bidezko arnasketa gauzatu behar da, alegia, sudurretik arnasa hartu eta ahotik bota behar da.

SEGURTASUN ARAUAK

Jarraian, ariketa fisikoak jorratzen zabiltzan bitartean kontuan hartu beharreko hainbat seinale azalduko dizkizugu. Hauetarikoren bat pairatu eta sentitzen baduzu ariketa fisikoa egiteari utzi eta osasun arloko profesional batengana jo.

- Bularraldean min edo presioa.
- Zorabio, kontzientzia galera edo goragalea.
- Neke/Min handia.
- Haize falta sentsazioa.
- Palpitazioak.
- Izerdi hotza, zurbil egotea.

INDARRA. GOI ATALA

ESKUA ETA BESAURREA

Ariketa honek objektuak hartu edo hauei eusteko garaian arazoak badituzu laguntzeko balio. Baita ere objektuak irekitzeko garaian, poteak adibidez, lagunduko dizu.

Jarraibideak:

▪ Pauso 1

▪ Pauso 2

- Esku-haurrean teniseko pilota edo pilota bigun bat eutsi.
- Pilota poliki-poliki estutu eta 3-5 segundo eutsi.
- Poliki-poliki erlaxatu eskua.

10-12 aldiz errepikatu. Errepikapenen artean 1-2 segundo deskantsatu. Beste eskuarekin 10-12 aldiz errepikatu.

BESOAREN ATZEALDEA

Bultzada mugimendu honek, besoen giharrak indartuko ditu nahiz eta aulkitik altxatu ezin bazara.

Jarraibideak:

▪ Pauso 1 ▪ Pauso 2 ▪ Pauso 3

- Oinak sorbalden zabaleran lurrean jarririk beso-euskarridun aulki erresistente batean eseri. Bizkarra zein sorbaldak zuzen mantenduaz pixka bat aurreraka inklinatu zaitez. Beso-euskarriak eskuekin eutsi, eta lasai arnastu ezazu.
- Arnasa eginez erabili besoak zure gorputza aulkitik urruntzeko (+/- 10cm). Posizio hori 2 segundoz mantendu.
- Arnastu ezazu hasierako posiziora itzultzen zaren bitartean.

10-12 aldiz errepikatu. 1-3 minutu deskantsatu. Berriz, 10-12 aldiz errepikatu.

PEKTORALA ETA SORBALDAK

Flexio hauek beso, sorbalda eta bularraldea indartuko dute.

Jarraibideak:

- Zure besoen luzera baina handiagoko distantzia batean, paretara begira zutik jar zaitez oinak sorbalden zabaleran jarriak dituzularik.

Zure gorputza aurreraka inklinatu esku-ahurrak, sorbalden altueran eta zabaleran, paretan ezarri arte.

- Poliki arnastu ukondoak tolesten dituzula goiko enborra paretarantz hurbiltzen duzun heinean. Mugimendu geldoa bezain kontrolatua izan dadila. Oinak lurrean finko mantenduz posizioa segundo 1 mantendu.
- Arnasa eginez poliki atzeraka bultzatu besoak zuzen izan arte.

10-12 aldiz errepikatu. 1-3 minutu deskantsatu. Berriz, 10-12 aldiz errepikatu.

SORBALDAK ETA BESOAK

Ariketa honek sorbalda zein besoak indartuko dizkizu. Ariketa hau zutunik edota aulki erresistente batean eserita egin dezakezu.

Jarraibideak:

- Aulki erresistente batean eseri oinak sorbalden zabaleran lurrean jarrita dituzula. Pesak (botilak) irudian adierazten den moduan mantendu esku-ahurrak aurrerantz dituzula.
- Arnasa egin bi besoak batera buru gainetik luzatzen dituzun bitartean. Ukondoak arinki tolestuak mantenduz posizio horretan 2-3 segundo iraun.
- Arnastu poliki besoak jaisten dituzun bitartean hasierako posizioa berreskuratu arte.

10-12 aldiz errepikatu. 1-3 minutu deskantsatu. Berriz, 10-12 aldiz errepikatu.

SORBALDAK ETA BESOAK

Ariketa honek apal batean gauzak uzten edota bertatik gauzak errazago hartzen lagunduko dizu. Ariketa hau etzanda, zutunik edota aulki erresistente batean eserita egin dezakezu.

Zutik egiteko jarraibideak:

▪ Pauso 1 ▪ Pauso 2 ▪ Pauso 3

- Zutik zaudela, oinak lurrean sorbalden zabaleran jarri. Pesak (botilak) izter gainean ezarri besoak luzaturik dituzula.
- Besoak luzatuta mantenduz arnasa egin hauek sorbalden altuerara igotzen dituzun bitartean. Posizio horretan 2 segundoz iraun.
- Arnastu poliki besoak jaisten dituzun bitartean hasierako posizioa berreskuratu arte.

10-12 aldiz errepikatu. 1-3 minutu deskantsatu. Berriz, 10-12 aldiz errepikatu.

Eserita egiteko jarraibideak:

▪ Pauso 1 ▪ Pauso 2 ▪ Pauso 3

- Aulki erresistente batean eseri oinak sorbalden zabaleran lurrean jarrita dituzula. Pesak (botilak) izter gainean ezarri besoak luzaturik dituzula.
- Besoak luzatuta mantenduz arnasa egin hauek sorbalden altuerara igotzen dituzun bitartean. Posizio horretan 2 segundoz iraun.
- Arnastu poliki besoak jaisten dituzun bitartean hasierako posizioa berreskuratu arte.

10-12 aldiz errepikatu. 1-3 minutu deskantsatu. Berriz, 10-12 aldiz errepikatu.

Etzanda egiteko jarraibideak:

▪ Pauso 1

▪ Pauso 2

▪ Pauso 3

- Ohean etzanda belaunak tolestu eta oinak sorbalden zabaleran jarri. Pesak (botilak) izter gainean ezarri besoak luzaturik dituzula.
- Besoak luzatuta mantenduz arnasa egin hauek sorbalden altuerara igotzen dituzun bitartean. Posizio horretan 2 segundoz iraun.
- Arnastu poliki besoak jaisten dituzun bitartean hasierako posizioa berreskuratu arte.

10-12 aldiz errepikatu. 1-3 minutu deskantsatu. Berriz, 10-12 aldiz errepikatu.

ESKUMUTURRA ETA BESAURREA

Ariketa honek eskumuturrak indartuko dizkizu. Baita ere goi ataleko indar ariketak egiten dituzunean lesioak ekiditeko balioko dizu.

Jarraibideak:

▪ Pauso 1

▪ Pauso 2



- Oinak lurrean sorbalden zabaleran jarrita dituzula beso-euskarriak dituen aulki erresistente batean eseri. Besoetako bat beso-euskarri batean ezarri eskua ertzean duzula.
- Pesa (botila) esku-ahurra gorantza duzula mantendu. Eskumuturra oso poliki lehenik gorantza tolestu eta bigarrenik beherantz.
- Hasierako posiziora itzuli.

10-12 aldiz errepikatu. 1-3 minutu deskantsatu. Berriz, 10-12 aldiz errepikatu.

Beste eskuarekin berdina errepikatu.

BIZEPSA

Ariketa honek besoak indartuko dizkizu. Baita ere pisu asko edo erosketak hartzen dituzunean lesioak ekiditeko balioko dizu.

Jarraibideak:

▪ Pauso 1



▪ Pauso 2



- Oinak lurrean sorbalden zabaleran jarrita dituzula aulki erresistente batean eseri. Beso bat alde bereko izterraren alboan eskumuturra zurrun eta eskua-ahurra gorantz duzula jarri.
- Pesa (botila) ongi eutsita mantendu.
  Arnas lasai egin ukondoa sorbaldarantz poliki-poliki tolesten duzun bitartean.
- Hasierako posiziora itzuli.

10-12 aldiz errepikatu. 1-3 minutu deskantsatu. Berriz, 10-12 aldiz errepikatu.

Beste eskuarekin berdina errepikatu

INDARRA.BEHE ATALA

BERNA (PUNTA-ORPO)

Ariketa honek ibilera erraztuko dizu berna eta orkatilak indartuz. Ariketa hau etzanda, zutunik edota aulki erresistente batean eserita egin dezakezu.

Zutik egiteko jarraibideak:

Hasierako Posizioa: Zutik, oinak sorbalden zabaleran dituzula, aulki/mahai baten atzean honi eutsita jarri oreka mantentzeko.



- Kontzentratu poliki arnasten duzun bitartean. Arnas egin eta puntilletan (oin punten gainean) ahalik eta altuen jar zaitez. Posizio hori 1-3 segundoz mantendu. Lasaitasunez arnastu poliki orpoak lurrera jaisten dituzun bitartean.
- Jarraian oin puntak altxatu eta oina soilik orpo gainean ezarri.

10-12 aldiz errepikatu. 1-3 minutu deskantsatu. Berriz, 10-12 aldiz errepikatu.

Eserita egiteko jarraibideak:

Hasierako Posizioa: Aulki egonkor batean eseri oinak lurrean sorbalden zabaleran jarrita dituzula.

- Kontzentratu poliki arnasten duzun bitartean.

  Arnas egin eta puntiletan (oin punten gainean) ahalik eta altuen jar zaitez. Posizio hori 1-3 segundoz.
  Lasaitasunez arnastu poliki orpoak lurrera jaisten dituzun bitartean.
- Jarraian oin puntak altxatu eta oina soilik orpo gainean ezarri.

10-12 aldiz errepikatu. 1-3 minutu deskantsatu. Berriz, 10-12 aldiz errepikatu.

Etzanda egiteko jarraibideak:

Hasierako Posizioa: Ohean etzanda belaunak tolestu eta eskuak sabelean dituzula oinak sorbalden zabaleran jarri.



- Kontzentratu poliki arnasten duzun bitartean. Arnas egin eta puntiletan (oin punten gainean) ahalik eta altuen jar zaitez. Posizio hori 1-3 segundoz mantendu. Lasaitasunez arnastu poliki orpoak lurrera jaisten dituzun bitartean.
- Jarraian oin puntak altxatu eta oina soilik orpo gainean ezarri.

10-12 aldiz errepikatu. 1-3 minutu deskantsatu. Berriz, 10-12 aldiz errepikatu.

HANKA (TOLESTE HIRUKOITZA)

Ariketa honek hankak indartzen eta mugikortasuna handitzen lagunduko dizu. Ariketa hau bi hankekin batera edo hanka bakoitzarekin egin daiteke.

Jarraibideak:

- Hasierako Posizioa: Ohean etzanda belaunak tolestu eta eskuak tripan dituzula oinak sorbalden zabaleran jarri.
- Kontzentratu zaitez poliki arnasten duzun bitartean. Arnas egin eta bi belaunetako bat bularralderantz eraman, ahalik eta hurbilen jarriaz. Eskuekin lagun zaitez. Posizio hori 1-3 segundoz mantendu.
- Arnastu poliki hasierako posiziora itzultzen zaren bitartean.

10-12 aldiz errepikatu. 1-3 minutu deskantsatu. Berriz, 10-12 aldiz errepikatu.

HANKA (TOLESTE HIRUKOITZA)

Ariketa honek hankak indartzen eta mugikortasuna handitzen lagunduko dizu. Ariketa hau bi hankekin batera edo hanka bakoitzarekin egin daiteke.

Jarraibideak:

Hasierako Posizioa: Ohean etzanda hankak luzaturik eta eskuak tripan dituzula oinak sorbalden zabaleran jarri.



- Kontzentratu zaitez poliki arnasten duzun bitartean.

  Arnas egin eta bi belaunetako bat bularralderantz eraman, ahalik eta hurbilen jarriz. Eskuekin lagun zaitez. Posizio hori 1-3 segundoz mantendu.

- Arnastu poliki hasierako posiziora itzultzen zaren bitartean.

10-12 aldiz errepikatu. 1-3 minutu deskantsatu. Berriz, 10-12 aldiz errepikatu.

ALDAKAREN LUZAKETA (GLUTEO HANDIA)

Ariketa honek ipurmasail eta bizkar behealdea indartuko dizkizu.

Jarraibideak:

Hasierako Posizioa: Zutik, oinak sorbalden zabaleran dituzula, aulki/mahai baten atzean honi eutsita jarri oreka mantentzeko.



- Kontzentratu poliki arnasten duzun bitartean.
  Arnas egin eta belauna tolestu gabe poliki hanka atzerantz mugitu. Saiatu aurrerantz ez inklinatzen. Sostengu hanka arinki tolestua egon behar du.
- Posizio horretan segundo 1 iraun. Arnastu poliki hanka hasierako posiziora jaisten duzun bitartean.

10-12 aldiz errepikatu, hankak tartekatuz. 1-3 minutu deskantsatu. Berriz, 10-12 aldiz errepikatu.

Aldaera baten jarraibideak:

Hasierako Posizioa: Zutik, oinak sorbalden zabaleran dituzula, aulki/mahai baten atzean honi soilik esku batekin eutsita jarri oreka mantentzeko.



- Kontzentratu poliki arnasten duzun bitartean.
  Arnas egin eta belauna tolestu gabe poliki hanka atzerantz mugitu. Saiatu aurrerantz ez inklinatzen. Sostengu hanka arinki tolestua egon behar du.
- Posizio horretan segundo 1 iraun. Arnastu poliki hanka hasierako posiziora jaisten duzun bitartean.

10-12 aldiz errepikatu, hankak tartekatuz. 1-3 minutu deskantsatu. Berriz, 10-12 aldiz errepikatu.

<u>ALDAKA BANATZEA (GLUTEO ERTAINA)</u>

Ariketa honek bi aldakak eta ipurmasailak indartuko dizkizu.

Jarraibideak:

Hasierako Posizioa: Zutik, oinak sorbalden zabaleran dituzula, aulki/mahai baten atzean honi eutsita jarri oreka mantentzeko.



- Kontzentratu poliki arnasten duzun bitartean.
  Arnas egin eta belauna tolestu gabe poliki hanka alborantz mugitu. Saiatu bizkarra zuzen mantentzen eta ez inklinatzen. Sostengu hanka luzatuta egon behar du.
- Posizio horretan segundo 1 iraun. Arnastu poliki hanka hasierako posiziora jaisten duzun bitartean.

10-12 aldiz errepikatu, hankak tartekatuz. 1-3 minutu deskantsatu. Berriz, 10-12 aldiz errepikatu.

Aldaera baten jarraibideak:

Hasierako Posizioa: Zutik, oinak sorbalden zabaleran dituzula, aulki/mahai baten atzean honi soilik esku batekin eutsita jarri oreka mantentzeko.



- Kontzentratu poliki arnasten duzun bitartean.

  Arnas egin eta belauna tolestu gabe poliki hanka alborantz mugitu. Saiatu bizkarra zuzen mantentzen eta ez inklinatzen. Sostengu hanka luzatuta egon behar du.

- Posizio horretan segundo 1 iraun. Arnastu poliki hanka hasierako posiziora jaisten duzun bitartean.

  10-12 aldiz errepikatu, hankak tartekatuz. 1-3 minutu deskantsatu. Berriz, 10-12 aldiz errepikatu.

<u>BELAUN TOLESTEA (ISKIOTIBIALA)</u>

Ariketa honek izter atzealdea indartuko dizu aldakaren luzaketa eta belaun tolestea erraztuz.

Jarraibideak:

Hasierako Posizioa: Zutik, oinak sorbalden zabaleran, aulki/mahai baten atzean honi eutsita jarri oreka mantentzeko.



- Kontzentratu poliki arnastuz.
  Arnas egin eta belauna tolestu oina lurretik altxatuz. Saiatu bizkarra zuzen mantentzen eta ez inklinatzen. Sostengu hanka luzatuta egon behar du.

- Posizio hori 2-3 segundoz mantendu. Arnastu poliki hanka (belauna luzatu) hasierako posiziora jaisten duzun bitartean.

10-12 aldiz errepikatu, hankak tartekatuz. 1-3 minutu deskantsatu. Berriz, 10-12 aldiz errepikatu.

BELAUN LUZATZEA (KOADRIZEPS)

Ariketa honek izterrak indartu eta belauneko artritis sintomak murriztu ditzake.

Jarraibideak:

Hasierako Posizioa: Aulki egonkor batean eseri oinak lurrean sorbalden zabaleran jarrita dituzula. Eskuak izter gainean eta bizkarraldea guztiz bermatua zein luzatua jarri.



- Kontzentratu poliki arnastuz.
  Arnas egin eta belauna guztiz luzatu (izterra igo gabe) oina lurretik altxatuz baina belauna blokeatu gabe.
- Posizio hori 2-3 segundoz mantendu. Arnastu poliki hanka (belauna tolestu) hasierako posiziora jaisten duzun bitartean.

10-12 aldiz errepikatu, hankak tartekatuz. 1-3 minutu deskantsatu. Berriz, 10-12 aldiz errepikatu.

HANKAK ETA KOREA

Ariketa honek, abdomena, izterrak, aldaka eta gluteoa indartuko dizkizu.

Jarraibideak:

Hasierako Posizioa: Oinak lurrean sorbalden zabaleran jarririk beso-euskarridun aulki erresistente batean eseri. Bizkarra zein sorbaldak zuzen mantenduz pixka bat aurreraka inklinatu zaitez. Beso-euskarriak eskuekin eutsi, eta lasai arnastu ezazu.

- Arnasa eginez erabili besoak zure gorputza aulkitik urrundu eta zutik jarri ahal izateko. Zutik eta tente segundo 1 mantendu zaitez.
- Arnastu beso-euskarriak eutsita poliki hasierako posiziora itzultzen zaren bitartean.

10-12 aldiz errepikatu. 1-3 minutu deskantsatu. Berriz, 10-12 aldiz errepikatu.

Aldaera baten jarraibideak:

Hasierako Posizioa: Oinak lurrean sorbalden zabaleran jarririk beso-euskarridun aulki erresistente batean eseri. Bizkarra zein sorbaldak zuzen mantenduz pixka bat aurreraka inklinatu zaitez. Beso-euskarri batean esku bat jarri eta bestea zure alboan, lasai arnastu ezazu.

▪ Hasierako posizioa ▪Pauso 1 ▪ Pauso 2

- Arnasa eginez erabili besoa zure gorputza aulkitik urrundu eta zutik jarri ahal izateko. Zutik eta tente segundo 1 mantendu zaitez.
- Arnastu beso-euskarrira eutsita poliki hasierako posiziora itzultzen zaren bitartean.

10-12 aldiz errepikatu. 1-3 minutu deskantsatu. Berriz, 10-12 aldiz errepikatu.

Bigarren aldaeraren jarraibideak:

Hasierako Posizioa: Oinak lurrean sorbalden zabaleran jarririk aulki erresistente batean eseri. Bizkarra zein sorbaldak zuzen mantenduz besoak bularrean gurutzatu.

▪ Hasierako Posizioa ▪ Pauso 1 ▪ Pauso 2



- Arnasa eginez enborra aurreraka inklinatu. Besoa luzatuz (lurrarekiko paralelo jarri) eta mugimendu horren inertzia erabiliz zure gorputza aulkitik urrundu eta altxatu. Zutik eta tente segundo 1 mantendu zaitez.
- Arnastu ezazu poliki hasierako posiziora itzultzen zaren bitartean. Besoak luzatuak mantendu bukaeran berriz gurutzatzeko.

10-12 aldiz errepikatu. 1-3 minutu deskantsatu. Berriz, 10-12 aldiz errepikatu

Hirugarren aldaeraren jarraibideak:

Hasierako Posizioa: Oinak lurrean sorbalden zabaleran jarririk aulki erresistente baten ertzean eseri. Bizkarra zein sorbaldak zuzen mantenduaz besoak bularrean gurutzatu.



- Arnasa eginez enborra aurreraka inklinatu. Belaunak luzatuz eta mugimendu horren inertzia erabiliz zure gorputza aulkitik urrundu eta altxatu. Zutik eta tente segundo 1 mantendu zaitez.
- Arnastu ezazu lasai, poliki hasierako posiziora itzultzen zaren bitartean besoak bularrean gurutzatuak dituzula.

10-12 aldiz errepikatu. 1-3 minutu deskantsatu. Berriz, 10-12 aldiz errepikatu

ADUKTOREAK ETA ABDUKTOREAK

Ariketa honek izterrak indartu eta urratsean zehar oreka zein egonkortasun ona izaten lagunduko dizu.

Jarraibideak:

Hasierako Posizioa: Aulki egonkor batean eseri, oinak lurrean sorbalden zabaleran jarri, baloia belaunarekin eutsiz. Eskuak izter gainean eta bizkarraldea guztiz bermatua zein luzatua jarri.

- Kontzentratu poliki arnasten duzun bitartean.

  Arnas egin eta baloia ahal duzun guztia estutu. Egoera horretan 2-3 segundoz iraun .
- Hasierako posiziora itzultzeko lasaitasunez arnastu hankak irekitzen dituzun bitartean.

10-12 aldiz errepikatu. 1-3 minutu deskantsatu. Berriz, 10-12 aldiz errepikatu

ADUKTOREAK ETA ABDUKTOREAK

Ariketa honek izterrak indartu eta urratsean zehar oreka zein egonkortasun ona izaten lagunduko dizu.

Jarraibideak:

Hasierako Posizioa: Ohean ahoz gora etzan, belaunak tolestuak eta oinak sorbalden zabaleran baloia eusten dituzula jarri. Eskuak izter gainean eta bizkarraldea guztiz bermatua zein luzatua jarri.

▪ Hasierako Posizioa

▪ Pauso 1



- Kontzentratu poliki arnasten duzun bitartean.

  Arnas egin eta baloia ahal duzun guztia estutu. Egoera horretan 2-3 segundoz iraun .

- Hasierako posiziora itzultzeko lasaitasunez arnastu hankak irekitzen dituzun bitartean.

10-12 aldiz errepikatu. 1-3 minutu deskantsatu. Berriz, 10-12 aldiz errepikatu.

OREKA

OINAK JUNTU

Ariketa hau bi eskuren edo bakarraren bermearekin egin daiteke edota sostengu gabe. Baita ere begiak irekita edo itxita egitearen aldaera sar genezake.

Jarraibideak:

- Hasierako Posizioa: Zutik, oinak sorbalden zabaleran dituzula, aulki/mahai baten atzean honi eutsita jarri oreka mantentzeko.
- Pauso 1: Prest sentitzen zarenean bi oinak elkartu, itsatsita egongo balira bezala. Posizio hori 10-12 segundoz mantendu. Gerora hasierako posiziora itzuli.

Fase guzti hau 3 aldiz errepikatu. Oso garrantzitsua ariketa guztiz zentratua eta kontzentratua zaudela gauzatzea.

"SEMI-TÁNDEM"

Ariketa hau bi eskuren edo bakarraren bermearekin egin daiteke edota sostengu gabe. Baita ere begiak irekita edo itxita egitearen aldaera sar genezake.

Jarraibideak:



- Hasierako Posizioa: Zutik, oinak sorbalden zabaleran dituzula, aulki/mahai baten atzean honi eutsita jarri oreka mantentzeko.
- Pauso 1: Prest sentitzen zarenean bi oinak elkartu, bat bestea baino pixka bat aurreratuago jarriz. Alegia, aurrerago ezarririko oinaren orpoa, beste oinaren behatz lodiaren parean jarri. Posizio hori 10-12 segundoz mantendu. Gerora hasierako posiziora itzuli.

Fase guzti hau 3 aldiz errepikatu. Oso garrantzitsua ariketa guztiz zentratua eta kontzentratua zaudela gauzatzea.

“TÁNDEM”

Ariketa hau bi eskuren edo bakarraren bermearekin egin daiteke edota sostengu gabe. Baita ere begiak irekita edo itxita egitearen aldaera sar genezake.

Jarraibideak:

- Hasierako Posizioa: Zutik, oinak sorbalden zabaleran dituzula, aulki/mahai baten atzean honi eutsita jarri oreka mantentzeko.
- Pauso 1: Prest sentitzen zarenean bi oinak elkartu, bat bestearen aurrean jarriz, alegia, ilaran egongo balira bezala.

  Posizio hori 10-12 segundoz mantendu. Gerora hasierako posiziora itzuli.

Fase guzti hau 3 aldiz errepikatu. Oso garrantzitsua ariketa guztiz zentratua eta kontzentratua zaudela gauzatzea.

“MONOPODAL”

Ariketa hau bi eskuren edo bakarraren bermearekin egin daiteke edota sostengu gabe. Baita ere begiak irekita edo itxita egitearen aldaera sar genezake.

Jarraibideak:

- Hasierako Posizioa: Zutik, oinak sorbalden zabaleran dituzula, aulki/mahai baten atzean honi eutsita jarri oreka mantentzeko.
- Paso 1: Prest sentitzen zarenean lurretik oin bat altxatu ezazu. Oina gorputzaren aurrealdetik edo atzealdetik altxa dezakezu.

  Posizio hori 10-12 segundoz mantendu. Gerora hasierako posiziora itzuli.

Fase guzti hau 3 aldiz errepikatu. Oso garrantzitsua ariketa guztiz zentratua eta kontzentratua zaudela gauzatzea.

ATAL AEROBIKOA

Jarraibide orokorrak:

- Oinez ibiltzea da emango dizugun gomendiorik onena.
- Ahal duzun heinean, egunero oinez ibili, eta saiatu pixkanaka ibilbidea luzatzen.
- Betiere erortzeko arriskuak oso eskasak edo ez daudenean ibiltzea gomendatzen da.
- Laguntza teknikoak erabili: bastoi, muleta, taka-taka eta abar beharrezkoa den heinean soilik.
- Aurrera begira ibil zaitez oinez, ez joan lurrera begira. Ibiltzerakoan sorbaldak erlaxatuak eta besoak arinki kulunkaka dituzula joan.
- Gehiegi nekatzen zarela sentituz gero, eseri eta hartu atseden.

Distantzia ezberdineko Jarraibideak:

- Altxatu eta Ibili (Distantzi Laburrak)

  Aulkitik laguntzarekin edo laguntzarik gabe altxatu, nekeak uzten dizun haina ibili, zutik segundo batzuk deskantsatu (10-15) eta aulkira itzul zaitez.

  5 aldiz errepikatu. Errepikapenen artean minutu 1 deskantsatu.

- Paseoak (Distantzi Luzeak)

  Etxetik atera aurretik gauzatuko duzun ibilbidea distantziaren arabera aukeratu, alegia, gauzatzeak eramango dizun denbora eta ibilbidean zehar deskantsatzeko aukera izango zenuen edo ez kontuan izanik.

  Ordu-erdiko (30') paseoekin hastea gomendatzen dizugu. Hamabosgarren minutuan (15') 30"-1'ko deskantsua egin eta jarraian ibilbideari berriz ekin.

  Oinez erritmo arruntean, zuretzako ohikoa den erritmoan, ibili eta progresiboki iraupena 10-15 minututan igotzen joan. Hau da:

  - 15 minutu (') oinez + 30segundo (") deskantsu + 15 minutu (') oinez
  - 15' oinez + 30-60'' deskantsu + 15' oinez + 30-60'' deskantsu + 15'' oinez
  - 15' oinez + 30-60'' deskantsu + 15' oinez + 30-60'' deskantsu + 15' oinez + 30-60'' deskantsu +15' oinez.

MALGUTASUNA

LEPO ETA ZERBIKALAK

Luzaketa erraz honek lepoko zein zerbikaletako tentsioa arintzeko balio dezake. Luzaketa hau eserita zein zutik gauzatu dezakezu.

Jarraibideak:

▪ Pauso 1



▪ Pauso 2

Hasierako Posizioa: Zutik edo eserita, oinak sorbalden zabaleran dituzula jar zaitez.

- Arnasa egin eta poliki burua eskuinerantz bihurtu luzatze arin bat nabaritu arte. Tentuz ibili lepoa ez aurrera ez atzera inklinatzeko, posizio eroso batean egon behar zara. Arnastu eta 3-5 segundoz posizioa mantendu ezazu.
- Arnas egin eta oraingoa burua beste alderantz (ezkerra) bihurtu.

Albo bakoitzera 4 aldiz errepikatu.

GERRI ETA BIZKAR

Luzaketa erraz honek zure bizkar zein sorbaldetako tentsioa arintzeko balio dezake. Luzaketa hau eserita zein zutik gauzatu dezakezu.

Jarraibideak:

Hasierako Posizioa: Zutik edo eserita, oinak sorbalden zabaleran dituzula jar zaitez.

▪ Hasierako Posizioa

▪ Pauso 1

▪ Pauso 2

- Arnasa egin eta poliki gerria eskuinerantz biratu luzatze arin bat nabaritu arte. Tentuz ibili goi enborra ez aurrera ez atzera inklinatzeko, posizio eroso batean egon behar zara. Arnastu eta 3-5 segundoz posizioa mantendu ezazu.
- Arnas egin eta oraingoa burua beste alderantz (ezkerra) biratu. Eskuen kokapenean jar ezazu arreta.

Albo bakoitzera 4 aldiz errepikatu.

SORBALDAK

Luzaketa erraz honek zure sorbalden eta bizkarreko goi atalaren tentsioa arintzeko balio dezake. Luzaketa hau eserita zein zutik gauzatu dezakezu.

Jarraibideak:

Hasierako Posizioa: Zutik edo eserita, oinak sorbalden zabaleran eta besoak gurutze eran dituzula jar zaitez.

▪ Pauso 1

▪ Pauso 2

- Besoak gurutze eran eta esku-ahurrak aurrerantz begira, sorbalden altueran mantendu itzazu.
- Poliki arnas egin eta besoak atzerantz bihurtu omoplatoak estutzen (hurbiltzen) dituzun bitartean.

Luzatze edo egonezin arin bat nabaritzerakoan gelditu. Arnastu eta 3-5 segundoz posizioa mantendu ezazu. 4 aldiz errepikatu.

Aldaera baten jarraibideak:

Hasierako Posizioa: Zutik edo eserita, oinak sorbalden zabaleran eta besoak gurutze eran dituzula jar zaitez.

▪ Pauso 1

▪ Pauso 2

- Besoak gurutze eran eta esku-ahurrak aurrerantz begira, sorbalden altueran mantendu itzazu.
- Poliki arnas egin eta besoak gorantz bihurtu omoplatoak estutzen (hurbiltzen) dituzun bitartean. Luzatze edo egonezin arin bat nabaritzerakoan gelditu. Arnastu eta 3-5 segundoz posizioa mantendu ezazu.

4 aldiz errepikatu.

IZTER ATZEALDEA

Luzaketa erraz honek zure izterren atzealde zein bikietako tentsioa arintzeko balio dezake. Luzaketa hau eserita zein zutik gauzatu dezakezu.

Jarraibideak:

Hasierako Posizioa: Aulki erresistente baten ertzean eseri, hanka bat guztiz luzaturik eta bestea 90º tolesturik duzula.

- Pauso 1

- Pauso 2

- Hasierako posizioan egonik, luzaturiko hankaren orpoa lurrean bermatu (oin punta gorantz begira dagoelarik) pilota hanka bereko izterrean jartzen duzun bitartean. Birikak haizez bete.
- Arnas egin hankan zehar pilota poliki jaisten duzun bitartean. Luzatze edo egonezin arin bat nabaritzerakoan gelditu. Arnastu eta 3-5 segundoz posizioa mantendu ezazu. Hanka bakoitzarekin 4 aldiz errepikatu.

6. ERANSKINA:

Balorazio eta erregistro orriak

6. APPENDIX:

Valuation and recording sheets

Data: Izena:

Hospitalizazioa

DINAMOMETRIA				
Ezkerra	L1	kg	L2	kg
Eskuina	R1	kg	R2	kg

DATU ANTROPOMETRIKOAK	
Pisua (Kg)	
Altuera(cm)	
Bernaren diametroa	
IMC: Pisua / Altuera^2	

G ♂	(2,02 x belaunaren altuera) - (0,04 x adina) + 64,19
E ♀	(1,83 x belaunaren altuera) - (0,24 x adina) + 84,88

SPPB		Denbora		Puntuak
Altxa-eseri (5 errep) (sg)				
Oreka oinak elkarrekin (10s)				
Oreka Semitandem (10s)				
Oreka Tandem (10s)				
Materiala:	Martxa 4m			
		GUZTIRA		

PFEIFFER

INSTRUCCIONES: Preguntar las cuestiones 1-10 en este orden y recoger todas las respuestas. Recoger el número total de errores	**Errores**
¿Cuál es la fecha de hoy? (día, mes, y año)	
¿Qué día de la semana es hoy?	
¿Cuál es el nombre de este sitio? (vale cualquier descripción correcta del lugar)	
¿Cuál es su número de teléfono? (Si no tiene, ¿cuál es su dirección completa?)	
¿Qué edad tiene?	
Dígame su fecha de nacimiento	
¿Cómo se llama el Presidente del Gobierno?	
¿Cómo se llama el anterior Presidente del Gobierno?	
Dígame el primer apellido de su madre	
Reste de tres en tres desde 20. (cualquier error hace errónea la respuesta)	
TOTAL	

Valoración:
0-2 errores: normal
3-4 errores: deterioro leve
5-7 errores: deterioro moderado
8-10 errores: deterioro severo/grave

- Si el nivel educativo es bajo (estudios elementales) se admite 1 error más por cada categoría.
- Si el nivel educativo es alto (estudios universitarios) se admite un error menos.

MNA-SF

	A. Ha perdido el apetito? Ha comido menos por falta de apetito, problemas digestivos, dificultades de masticación o deglución en los últimos 3 meses?		
	0 = ha comido mucho menos		
	1 = ha comido menos		
	2 = ha comido igual		
	B. Pérdida reciente de peso (<3 meses)		C. Movilidad
	0 = pérdida de peso > 3 kg		0= de la cama al sillón
	1= no lo sabe		1= autonomía en el interior
	2= pérdida de peso entre 1 y 3 kg		2= sale del domicilio
	3 = no ha habido pérdida de peso		
	D. Ha tenido una enfermedad aguda o situación de estrés psicológico en los últimos 3 meses?		
	0=SI // 1=no		
	E. Problemas Neuropsicológicos		
	0= Demencia o depresión severa		
	1= Demencia o depresión moderada		
	2= Sin problemas psicológicos		
	F1. Índice de Masa Corporal (IMC: Peso / Talla²)	F2. Circunferencia de la pantorrilla (cm)	
	0= IMC < 19	0= CP < 31	Cm:
	1= IMC 19-21	3= CP ≥ 31	
	2= IMC 21-23	(sino IMC sustituir F1 por F2)	
	3= IMC ≥ 23	No contestar F2 si se ha podido contestar F1	

FRIED

	Pérdida de peso involuntario Ha perdido más de 4.5kg en el último año de forma involuntaria?	NO		SI	
	Estado de ánimo decaído. En la última semana:	Raramente (<1día)	Pocas veces (1-2 días)	Ocasionalmente (3-4 días)	La mayor parte del tiempo (5-7 días)
	¿Cuántos días ha sentido que todo lo que hacía era un esfuerzo?				
	¿Cuántas veces no ha tenido ganas de hacer nada?				
	Velocidad de la marcha Según altura y peso ¿El paciente tarda igual o más de lo indicado en caminar en 4m? ♂ ≤173cm ---------- ≥ 6.1s (0.66m/s) >173cm ---------- ≥ 5.2s (0.77m/s) ♀ ≤159cm ---------- ≥ 6.1 s (0.66 m/s) >159cm --------- ≥ 5.2 s (0.77 m/s)	NO		SI	
	Actividad Física Realiza semanalmente ≤ de la actividad física indicada ♂ <383 kcal/sem (pasear ≤ 2¨30h/sem) ♀ <270 kcal/sem (pasear ≤ 2h/sem)	NO		SI	
	Debilidad muscular Según IMC y sexo ¿la fuerza prensora de la menor es ≤ a la indicada?	NO		SI	

IMC ♂	*DIM*		*IMC ♀*	*DIM*		*TOTAL:*
<24	*≤20kg*		*<23*	*≤17kg*		
24.1-26	*≤30 kg*		*23.1-26*	*≤17.3kg*		*≥3: frágil*
26.1-28	*≤30kg*		*26.1-29*	*≤18kg*		*1-2: prefrágil*
>28	*≤32kg*		*>29*	*≤21kg*		*0: robusto*

Data: Izena:

ALTA EGUNA

DINAMOMETRIA			
Ezk1		Ezk2	
Esk1		Esk2	

TEST	1.go Saiakera	2.go Saiakera	Oharrak
1. **TUG**:Altxa, ibili eta eseri **NORMAL** (3m) (sg)			
2. **8FUG**: Altxa, ibili eta eseri **AZKAR** (2,44m) (sg)			

	4m Norm.	8m Norm.	4m Azk.	8m Azk.	Oharrak
3. Ibilera abiadura. 1.proba (sg)					
4. Ibilera abiadura. 2.proba (sg)					

TEST	Errep.
Aulkitik alta eta eseri *(30")*	
Beso flexioa mankuernekin *(30")*	

SPPB	Denbora	Puntuak
Altxa-eseri (5 errep) (sg)		
Oreka olnak elkarrekin (10s)		
Oreka semitandem (10s)		
Oreka tandem (10s)		
Materiala: Martxa 4m		
	GUZTIRA	

Data: Izena:

EGUNA: Lab. 1 Lab.2 Lab. 3 Lab. 4

DINAMOMETRIA				
Ezkerra	Ezk1	Kg	Ezk2	Kg
Eskuina	Esk1	Kg	Esk2	Kg

SENIOR FITNESS TEST (SFT)					
TEST	1.go saiakera		2. saiakera		Oharrak
1. Aulkitik altxa eta eseri(30") *(errep.)*			x		
2. Beso-flexioa mankuernekin *(30") (errep.)*			x		
3. TUG: Altxa, ibili, eseri NORMAL 3m (sg)					
4. 8FUG: Altxa, ibili eta eseri AZKAR (2,44m) (sg)					
	4m Norm.	8m Norm.	4m Azk.	8m Azk.	
5. Ibilera abiadura 1. Proba (sg)					
6. Ibilera abiadura 2.Proba (sg)					

6MWT		
Joan/Etorri (30m) Bira osoa (60m)		Denbora
1	60m	
2	120m	
3	180m	
4	240m	
5	300m	
6	360m	
7	420m	
8	480m	
9	540m	
10	600m	
11	660m	
12	720m	
13	780m	
14	840m	
15	900m	
16	960m	
BUELTAK GUZTIRA (m)		
DISTANTZIA (m)		
GUZTIRA (m)		

Berg oreka testa	Puntuazioa
1. Aulkitik altxa	
2. Zutik egon	
3. Eserita egon	
4. Aulkian Eseri	
5. Transferentziak	
6. Begiak itxita	
7. Oinak elkartuta	
8. Besoa aurreraka luzatu	
9. Lurretik objektu bat jaso	
10. Atzera begiratu	
11. 360°-ko bira ematea	
12. Oinak step edo eskaloi baten gainean jarri	
13. Tandem	
14. Hanka bakarrean	
GUZTIRA	

Pisua	kg	
	Ezkerra	Eskuina
Altuera (cm)		

		Oharrak	Borg
Bm Hasierakoa			Arnasketa: 1 2
Bm amaierakoa			Hankak: 1 2
Bm Errek (1')			

SPPB		Denbora		Puntuak
Altxa-eseri (5 errep) (sg)				
Oreka oinak elkarrekin (10s)				
Oreka semitandem (10s)				
Oreka tandem (10s)				
Materiala:	Martxa 4m			
		GUZTIRA		

7. ERANSKINA:

Azelerometroen informazio zein erregistro orriak

7. APPENDIX:

Accelerometer information and recording sheets

ACELERÓMETRO: HOJA INFORMATIVA

Estimado señor o señora:

